5) Metodología para seleccionar la alternativa de rehabilitación más idónea utilizando herramientas multicriterio. El objetivo de esta herramienta es crear una técnica para la elección y selección de versiones diferentes y efectivas de la construcción de muros exteriores (13). Para ello se ha tenido en cuenta la durabilidad de la fachada, la transmitancia térmica, la estimación del coste de la fachada en  $m^2$ , el peso de la fachada y el tiempo de ejecución. Pero en esta metodología no se han considerado aspectos sociales con los que evaluar el impacto que la rehabilitación genera en los inquilinos y en el entorno del edificio. Además, tampoco se ha tenido en cuenta el impacto ambiental que genera la rehabilitación ya que, solo se centra en factores económicos y funcionales de la rehabilitación. La metodología se ha aplicado a edificios residenciales ubicados en Lituania.

6) Elección de la alternativa de rehabilitación de edificios, utilizando para ello diversos métodos de evaluación multicriterio (14). Los criterios que se han tenido en cuenta en este caso son el coste del aislamiento, la transmitancia térmica del aislamiento, resistencia de las juntas adhesivas, coeficiente a absorción de agua del acabado, el periodo de garantía, tiempo de ejecución, etc. Como en la metodología anterior, esta herramienta solo considera aspectos económicos y funcionales de la rehabilitación y no tiene en cuenta los aspectos ambientales y sociales que generan la rehabilitación. Se aplicada en edificios residenciales y públicos construidos durante los años de la Unión Soviética en Lituania. Por lo que, la metodología se centra en un tipo constructivo concreto de edificios construidos en un periodo de tipo concreto y un país concreto.

7) Metodología para seleccionar los elementos de construcción para la rehabilitación con el fin de mejorar el ahorro de energía en los edificios (88). Mediante esta metodología se pretende ayudar a seleccionar el aislamiento térmico para todo el edificio consiguiendo así, mejorar la durabilidad y disminuir las pérdidas de calor. El aislamiento de la envolvente se selecciona dependiendo de la estructura, materiales y particiones del edificio. A la hora de seleccionar los elementos de construcción más adecuados solo se han considerado aspectos económicos y funcionales. No se han tenido en cuenta, por ejemplo el impacto ambiental que la fabricación de los elementos de construcción generan en el medioambiente, ni el impacto social que puede generar la rehabilitación en los inquilinos ni en el entorno. La metodología se ha aplicado en edificios de mampostería sin aislamiento térmico construidos durante la Unión Soviética en Lituania. Asimismo, tal y como ocurría en la metodología anterior, esta herramienta se centra en un tipo constructivo concreto de edificios.

8) Metodología para establecer el proceso de selección efectiva de elementos de construcción para rehabilitación más importante para mejorar la eficiencia energética de los edificios utilizando para ello herramientas multicriterio (15). Principalmente se ha analizado la fachada como elemento constructivo además de otros elementos tales como el tejado, las ventanas y los techos. Los criterios analizados para seleccionar la fachada más idónea han sido la resistencia térmica, el precio de la estructura, ahorro de la energía después de la rehabilitación y el payback (el tiempo de retorno de la inversión). En esta metodología se han tenido en cuenta factores económicos y algunos funcionales, pero no se ha considerado el impacto ambiental que, por ejemplo se genera en la producción de los materiales utilizados, ni se ha tenido en cuenta el impacto social de la rehabilitación. La metodología se aplica a edificios “Panel buildings” construidos durante los últimos 40 años en Lituania. Como en las dos metodologías anteriores, esta herramienta de selección se centra en un tipo constructivo concreto de edificios.

9) Herramienta para seleccionar la estrategia de rehabilitación más adecuada para la rehabilitación de edificios de oficinas (89). Las estrategias se basan en la intervención de la fachada original de edificio ya que son las más significativas. Se han tenido en cuenta simultáneamente los tres pilares de la sostenibilidad: medioambiental, sociocultural y económico para determinar la estrategia de rehabilitación más adecuada en su totalidad. Pero no se ha considerado el aspecto funcional de la rehabilitación durante todo su ciclo de vida. El ámbito de aplicación es la rehabilitación de edificios de oficinas en Suiza. Por lo que, esta metodología se centra en edificio de uso no residencial y ubicados en Suiza.

10) Modelo para ayudar a seleccionar las acciones de rehabilitación de los edificios en la fase conceptual del proyecto para mejorar la sostenibilidad del edificio (90). Las acciones que se tiene en cuenta para la rehabilitación son, entre otras: añadir aislamiento de diferente espesor en la fachada y en el tejado, instalación de ventanas nuevas, instalación de iluminación adecuada, etc. La evaluación de las acciones se realiza teniendo en cuenta factores de funcionalidad y medioambientales. Pero no se han tenido en cuenta factores sociales. Además, no se selecciona la solución de rehabilitación de fachada más sostenible sino la acción de rehabilitación más adecuada. Se ha aplicado en un edificio residencial en Finlandia.

11) A nivel Europeo se inició una metodología, con el fin de evaluar las tecnologías de rehabilitación de las fachadas exteriores tanto tecnologías innovadoras como convencionales. El método sistemático incluye una lista de criterios y directrices detalladas para la evaluación teniendo en cuenta aspectos técnicos, funcionales, aspectos relacionados con el proceso tales como los impactos causados a los edificios vecinos y a sus usuarios y aspectos del ciclo de vida tanto medioambientales como financieros (16). De esta manera, se desea ayudar especialmente a las pequeñas y medianas empresas (PYME) a la hora de mejorar y desarrollar conceptos para la renovación de la fachada exterior del edificio. Pero con este método no se desea seleccionar la solución de fachada más idónea, sino ofrecer una herramienta para evaluar las técnicas de rehabilitación de fachadas exteriores. Además, se desconoce la metodología de evaluación y no se ha desarrollado una herramienta al uso.

En la siguiente Tabla 2. 16, se resumen las herramientas y metodologías comentadas en este apartado.

	<b>Objetivo</b>	<b>Ámbito de aplicación</b>	<b>Ref.</b>
1	Seleccionar el material aislante óptimo desde el punto de vista del reciclaje.	Edificios nuevos y existentes. Aplicado en un edificio multifamiliar ubicado en Grecia.	(10)
2	Seleccionar el material aislante óptimo para mejorar la eficiencia energética de los edificios.	Edificios existentes ubicados en Sarajevo.	(11)
3	Determinar el espesor óptimo del material aislante para la envolvente exterior de los edificios.	Edificios ubicados en España.	(12)
4	Seleccionar el material aislante óptimo para aislar por el interior edificios históricos.	Edificios históricos ubicados en la región del Mar Báltico.	(40)
5	Crear una técnica para la elección y selección de versiones diferentes y efectivas de la construcción de muros exteriores.	Edificios residenciales ubicados en Lituania.	(13)
6	Elección de la alternativa de rehabilitación de edificios utilizando para ello diversos métodos de evaluación multicriterio.	Edificios residenciales y públicos construidos durante los años de la Unión Soviética en Lituania.	(14)
7	Seleccionar el aislamiento térmico para todo el edificio, con el fin de mejorar el ahorro de energía en los edificios.	Edificios de masonería construidos durante la Unión Soviética en Lituania.	(88)
8	Establecer los procesos de elementos de construcción para rehabilitación más importantes para mejorar la eficiencia energética de los edificios.	“Panel buildings” construidos durante los últimos 40 años en Lituania.	(15)
9	Seleccionar la estrategia de rehabilitación más adecuada.	Edificios de oficinas en Suiza.	(89)
10	Modelo para ayudar a seleccionar las acciones de rehabilitación de los edificios en la fase conceptual del proyecto para mejorar la sostenibilidad del edificio.	Edificios residenciales en Finlandia.	(90)
11	Evaluar las tecnologías de rehabilitación de las fachadas exteriores tanto innovadoras como convencionales.	Edificios residenciales en toda Europa.	(16)

**Tabla 2. 16: Resumen de las herramientas y metodologías para seleccionar o evaluar las intervenciones de rehabilitación en edificios**

Considerando las herramientas y metodologías de selección vistas en este apartado, se puede afirmar que se han desarrollado una amplia gama de metodologías para ayudar en el proceso de rehabilitación de los edificios, tanto para seleccionar el material aislante como para seleccionar la alternativa de rehabilitación de fachada o la estrategia de rehabilitación más idónea. Para ayudar en la selección se han utilizado diferentes criterios y factores. Además, el ámbito de aplicación es diverso.

En el caso de esta Tesis Doctoral, la novedad radica en establecer una metodología de selección del sistema de rehabilitación de edificios residenciales que engloba tanto, la selección del material aislante más idóneo como la solución de rehabilitación de fachada desde el punto de vista de la sostenibilidad. Para realizar el análisis desde el punto de vista de la sostenibilidad, se tendrán en cuenta los tres pilares y un requerimiento más es decir,

considerarán como requerimientos el requerimiento económico, el medioambiental, el social y el funcional. Se ha introducido un requerimiento más puesto que, se ve necesario considerar la funcionalidad de las diferentes alternativas para comparar la complejidad de la instalación de éstas durante el proceso de ejecución. Además, se quiere aplicar a una Comunidad Autónoma caracterizada por una tipología constructiva y a un periodo de construcción concreto en el que no se tienen en cuenta las características térmicas de la envolvente y que se corresponden con un elevado número de edificios dentro de CAE. Este es un factor a tener en cuenta puesto que la normativa vigente en lo relativo a eficiencia energética en España establece diferentes exigencias dependiendo de la ubicación de los edificios a rehabilitar. Asimismo, el entorno sociocultural y económico de Euskadi difiere del resto de las comunidades autónomas de España. Aunque la metodología a establecer se desea aplicar en una región concreta y para un periodo de construcción concreto la metodología seleccionada, MIVES, permite ampliar el ámbito de aplicación modificando el entorno seleccionado en la metodología.

Es por todo ello por lo que, se ha llegado a la conclusión de que en la actualidad no existe una herramienta de selección del material aislante y de la solución de fachada más idónea desde el punto de vista de la sostenibilidad global para edificios ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi y construidos antes de la entrada en vigor del CTE.






### **3. Kapituluua: EKT-A INDARREAN SARTU BAINO LEHEN ERAIKITAKO ETA EAE KOKATUTA DAUDEN ERAIKINEN IKERKETA**

#### 3.1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) kokatutako eraikinen eraikuntza tipologia ikertzeko Bilbo hiria hartuko da erreferentzi bezala. Izan ere, Bilbo EAE-an etxebizitza parkerik handiena duen probintzi hiriburua da. Hiri hau Espainiako iparraldean kokatuta dago eta EAE-ko Bizkaia probintziaren hiriburua da.



3.1. Irudia: Euskadiko mapa

Erreferentzi bezala EKT-a (Eraikuntzaren kode teknikoa, 2006) indarrean sartu baino lehenago eraikitako eraikinak hartuko dira kontuan. Izan ere, kode tekniko honek eraikinen eraikuntzan efizientzia energetiko minimo bat betetzera behartzen baitu. Hau dela eta, EKT indarrean sartu ondoren eraikitako eraikinak ikuspegi termiko batetatik, kodeak ezartzen dituen betebeharrak minimoak betetzen dituela baieztatu daiteke. Hala ere, denbora pasa ahala eta kontsumo energetiko ia zero eraikinen inguruko Europako zuzentzura egokitzeko, gaur egungo eraikinen inguruko araua aldatuz joango da gogortuz energia-efizientziaren inguruko betebeharrak. Azken hau, 2013 urtean EKT-an egindako aldaketetan ikus daiteke.

EKT-a (2006) indarrean sartu baino lehenago dauden eraikuntza tipologiak zehazteko Bilbon erregistratuta duden eraikinak hartuko dira abiapuntu bezala. Horretarako, bi datu base erabiliko dira: INE (Estatistika institutu nazionala) eta EUSTAT (Euskal estatistika erakundea).

#### 3.2. Gaur egungo etxebizitza parkea

Bilbon dauden eraikuntza tipologiak zehazteko, hirian historian zehar eman diren aldaketak kontuan hartuko dira. Honela, erlazioatuko dira eraikuntza tipologiak gaur egun hirian dagoen eraikinen bolumenarekin.

Bilbo hirian historikoki eman den eraldaketa aipagarriena hiria portu-hiritik industria-hirira pasa zenean gertatu zen. XX. mendearen lehen erdian hiriaren populazioa nabarmenki handitu zen industriak izandako goren unearen ondorioz. Hortaz, lan egitera etortzen ziren

etorkientzat eta haien familientzat etxebizitzak eraikitzen hasi ziren, Etxe Merken legean (1991 eta 1921) islatzen den moduan (91).

Baino industriaren ondorioz hiriaren demografiaren igoerarik handiena ez zen izan XX. mendearen erdialdera arte, 50 eta 60. hamarkadan. Demografiaren igoera Espainiako beste lurraldetik etorritako etorkinen ondorioz eman zen eta hau etxebizitza berrien eraikuntzan islatu zen. Etxebizitza hauek langileentzat eraikin ziren batez ere, denbora labur batean eta inolako isolamendu termikorik gabe eraikitako eraikinak ziren. Bilbon gaur egun dauden eraikin kopuru handi bat garai horretan eraikin ziren.

70. urtearen erdian, industri sektorean eragin nabarmena izan zuen krisi ekonomiko handi bat eman zen. Horren ondorioz, hiriak populazio kopuru handia galdu zuen beste lekuetara emigratu baituten etorritako langileek. Hiria momentu horretan zerbitzu hiria bilakatu zen. 1995-eko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) (92) garai horretan eman zen aldaketaren isla da. HAPO-ean islatzen da hiriak egin zuen apustua zerbitzu jarduera bultzatzeko industriaren gainbehera dela eta.

Espainiako eta Europako Araudiek eraikinen ingurutzaila zehazteko orduan, eragin handia izan dute baitit bat ingurutzailak eraikitzeke eran. NBE-CT-79 Eraikingintzako Oinarrizko Araua, eraikinen isolamendu termikoa kontuan hartzen zuen lehen eraikuntza araua izan zen. Arau hau lehenengo krisi energetikoaren eraginez garatu zen. Hortaz, arau hau indarrean sartu zen unetik aurrera eraikitako eraikuntzek arau honetan ezartzen den isolamendu termikoaren eskakizuna betetzen dute. Baina 2006eko EKT-a indarrean sartzearekin batera eraikinekin energia-efizientziaren funtsezko hobekuntza jasango dute gehien bat, arau honetan erakinetan energia aurrezteko oinarrizko eskakizunak betetzeko erregelak eta prozedurak ezartzen baitira.

Eraikingintzako Oinarrizko Araua (NBE-CT-79), eraikinen baldintza termikoak kontuan hartzen bada, gaur egungo EKT-an energiaren aurrezpen eta efizientzia neurriak jasotzen dituen Energiaren aurrezpenari buruzko Oinarrizko Dokumentuaren HE1 sekzioaren (OD-HE1) aurretik da. NBE-CT-79 arauaren arabera eraikina termikoki egokia zen ondorengo neurriak muga batzuen barnean baldin bazeuden: eraikinaren itxituraren multzoan zehar transmititzen den bero transferentzia globala (KG), itxitura osatzen duten elementu bakoitzean zehar transmititzen den beroa (K), itxituraren portaera hidrotermikoa eta itxiturak airerako duen iragazkortasuna.

EKT eta NBE-CT-79 arauen arteko desberdintasun handienak EKT-ren OD-HE-ean eguzkiaren erradiazioa maila kontuan hartzen duela eta udako gogortasuna<sup>7</sup> zona klimatikoak ezartzeko erabiltzen duela dira. Azken honek, eraikinen berogailu eta hozte sisteman eragiten du. Gainera, EKT-ak erakinen barneko karga ere kontuan hartzen du, eraikinaren ingurutzailak izan behar dituen ezaugarriak ezartzeko (93).

Hurrengo 3.1. Taulan eraikingintzako oinarrizko araua (NBE-CT-79) eta gaur egungo Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Oinarrizko dokumentuaren (EKT-OD-HE1) arteko desberdintasunak erreparatu daitezke, eraikin bati baldintza termikoen inguruan exijitu behar zaiona kontuan hartuta.

---

<sup>7</sup> Gogortasun klimatikoa aldagai meteorologikoa bat da non, eguzki erradiazioa eta kanpoko tenperaturaren eragin bateratua konbinatzen dituen.

	NBE-CT-79		EKT-OD-HE
Arauaren aplikazio eremua	Eraikin berriak		Eraikin berriak eta eraikin birgaituak
Eraikinaren baldintza termikoak ezartzeko irizpideak	<p><math>K_G</math>: eraikinaren itxituraren multzoan zehar transmititzen den bero transferentzia globala.</p> <p><math>K_G</math>-ak neguan eraikin baten bero galerak mugatzen ditu.</p> <p>Mugatuta geratzen dira ere, neurri batean, udan ematen diren bero irabaziak.</p>	Eraikinaren forma faktorearen (f) arabera, zona klimatikoa eta berogailuan erabilitako energia mota.	Ez da existitzen transmisio globalik. Eraikinaren inguratzaile osoa osatzen duten elementu guztien transferentzia koefizientea zehazten da.
	<p>K: Itxitura osatzen duten elementu bakoitzaren zehar transmititzen den beroa.</p>	Itxituraren eta zona klimatikoaren arabera.	U: itxitura osatzen duten elementu desberdinen transmitatza termikoa, zona klimatikoaren arabera. U-ren kalkuluan, CT-79 ez bezala, ez ditu bakarrik kanpoko airearekin kontaktuan dauden zoruak kontuan hartzen baizik eta bizigarriak ez diren lekuekin kontaktuan dagoen zoru ere, hauek ere isolatu beharko baitira.
Zonabanatzea	Urteko gradu/eguna berogailuaren erabiltzen den aldia (A-tik E-era, eraikinaren eta bere itxituren baldintza termikoak ezartzeko) eta urtarrileko batez besteko tenperatura minimoa (V-tik Z-ra, kondentsazioak kalkulatzeko)		Neguko gogortasuna (A-tik E-era) eta udakoa (1-etik 4-ra) erabiltzen du itxituraren baldintza termikoak ezartzeko
	Ez da zonabanatzean gogortasun klimatikoa kontuan hartzen ez eta berogailua erabiltzen den aldia edo uda.		Plano horizontalaren gainean dagoen eguzkiaren eguneko batezbesteko erradiazio globalak (I-etik V-era) erabakitzen du ur beroaren gutxieneko eguzki-ekarpen minimoa eta energia elektrikoaren gutxiengo energia fotovoltaikoaren ekarpen minimoa ezartzeko.
	<p>Bilbo: C W</p> <p><math>K</math> (fatxada arinak, <math>\leq 200\text{kg/m}^2</math>) = <math>1,20\text{ w/m}^2\text{K}</math></p> <p><math>K</math> (fatxada astunak <math>&gt;200\text{kg/m}^2</math>) = <math>1,80\text{w/m}^2\text{K}</math></p>		<p>Bilbo: C1, I</p> <p><math>U_{\text{lim}}=0,73\text{ W/m}^2\text{K}</math></p> <p>Fatxada hormetan eta lurzoruarekin kontaktuan dauden itxituretan</p>

3.1. Taula: NBE-CT-79 eta EKT-OD-HE1-ren arteko desberdintasunak baldintza termikoak kontuan hartuta


Aurreko 3.1. Taulan ikus daitekeen bezala, gaur egungo EKT-aren Oinarrizko Dokumentua aurreko araua, Eraikingintzako Oinarrizko araua, baino zorrotzagoa da eraikinen baldintza termikoak kontuan hartzen badira. Gaur egungo arauak eraikinen eskari energetikoa murrizten du.

Halaber, 2013. urtean EKT-aren Energia Aurrezpenaren buruzko Oinarrizko Dokumentuak (OD-HE) aldaketak jaso zituen Europar Zuzentarauaren transposizio partziala Espainiako ordenantza juridikoan eman zedin. Batik bat 2010/31/UE Europar Zuzentaraua eraikinen energia-efizientziaren betekizunen inguruan eta 2009/28/CE Europar Zuzentaraua eraikinetan exijitu beharreko iturri berriztagarrietatik datorren energia eskaera maila minimoaren inguruan. Energia Aurrezpenaren buruzko Oinarrizko Dokumentuan emandako aldaketa abenduaren 2020an kontsumo energetiko ia zeroa eraikinetan lortzeko helburuaren lehenengo fasea da. Hala ere, helburu hori lortzeko, epe labur batean OD-HE-an aldaketa berriak aurreikusten dira, Espainiako ordenantza juridikoan exijentzia berri zorrotzagoak gehitzeko (94).

Hurrengo 3.2. Taulan eta 3.3. Taulan ikus daitezke CTE 2006 eta CTE 2013 arauen arteko desberdintasunak, baldintza termikoak kontuan hartuta.

	<b>EKT 2006</b>	<b>EKT modifikatua 2013an</b>
DB-HE		Energia Aurrezpenari buruzko Oinarrizko Dokumentu berri bat eranstean da, HE0: Kontsumo energetikoa mugatzea.
DB-HE-aren aplikazio eremua	Eraikin berriak eta existitzen diren eraikinetan aldaketak, erreformak edo eraikinen birgaitzea baldin eta, eraikinaren azalera erabilgarria 1000 m <sup>2</sup> baino handiagoetan eraikinaren itxitura totalaren %25-a baino gehiago birgaitzen bada.	Eraikin berriak eta existitzen diren eraikinen handitzeak (eraikinaren azalera edo eraiki bolumena handitzen denean), erreformak (mantentze lanak edo obrak kenduta) eta eraikinen erabileraren aldaketak.
Zona klimatikoa		Probintzi hiriburu batzuen neguko zona klimatikoan aldaketak

**3.2. Taula: EKT-OD-HE 2006 eta EKT-OD-HE 2013-ren arteko desberdintasunak baldintza termikoak kontuan hartuta**



3.3. Taula: EKT-OD-HE 2006 eta EKT-OD-HE 2013-ren arteko desberdintasunak zona klimatikoak kontuan hartuta

ETK-an 2013 urtean egindako aldaketa garrantzitsu bat inguratzaile termikoaren berezko parametroaren balio orientagarriak ezartzea da. Balio hauek OD-HE1 dokumentuaren eranskinean daude. Eranskin horretan etxebizitzetako eraikuntzako konponbideak aurrebideratzeko balio orientagarriak eskaintzen dira. Balio hauen erabilerak ez du bermatzen eskari energetikoko muga eskaera betetzea baina eraikuntzako konponbideen diseinuko hasierako fasean orientatzeko erabil daitezke. Balio honen erabilerarekin kostu optimodun eraikuntza konponbidea lortu nahi da kontuan hartuta kostu globala eta kontsumo energetikoa, hots, kontuan hartuta eraikinaren bizi-zikloan zehar ekonomikoagoa den eraikuntza konponbidea. Balio horiekin isolatzailearen lodiera berriak kalkulatu daitezke, EKT 2013-an ezarrita dauden exijentzia berriak lortzeko.

Hurrengo 3.4. Taulan ikus daiteke, nola aldatzen den poliuretano hedatuaren lodiera ( $\lambda = 0,028$  W/mK) fatxada aireztatu batean zona klimatikoa kontuan hartuta, eraikina non kokatzen denaren arabera, eta 2006 eta 2013-ko EKT-etan exijentzia termikoak kontuan hartuta. Taulan erreparatu daiteke, isolatzailearen lodiera handitzea beharrezkoa dela gaur egungo ETK-an ezartzen diren exijentzia termikoak betetzeko.

Zona klimatikoa	EKT 2006	EKT modifikatua 2013an
$\alpha$	-	30
A	30-35	35-50
B	30-40	50-65
C	35-45	75-90
D	40-50	80-95
E	40-55	90-105

3.4. Taula: Lodiera optimoak EKT 2006 eta EKT 2013-ko exijentzia termikoak betetzeko  
Iturria: Propioa, IPUR-ek (asociación de la Industria del Poliuretano rígido de España) eskaintako datuak erabiliz


Kontuan hartuta aurretik komentatutako garai historikoak eta Espainian urteetan zehar garatutako eraikuntza arauak, hurrengo garai desberdinak zehaztu daitezke. Sailkapen honen

bidez zehaztu daiteke, gaur egun eraikita duden eraikinek duten birgaitze energetikoaren beharra:

- 1900 urtea baino lehen: XIX mendea eta aurrekoak
- 1900-1936: Gerra baino lehen
- 1936-1960: Gerra eta gerra ondoren
- 1960-1980: Desarrollismo garaia
- 1980-2006: CT-79 indarrean
- 2006 urtea ondoren: EKT indarrean

Gaur egun dagoen etxebizitza parkea zehazteko, INE-ek eskainitako estatistikak hartu dira oinarri bezala. Dagoen zentsu berriena 2011 urteko populazio eta etxebizitzaren zentsua (5) da 10 urtero behin egiten delako zentsua.


3.1. Grafikoan ikus daitekeen bezala, EAE-an dauden eta etxebizitzetarako nagusiki edo bakarrik erabiltzen diren eraikinen %43a 1961 urtea baino lehen eraikin ziren. Hortaz, gaur egun dauden eraikinen ia erdiek 50 urte baino gehiagoko antzinatea dute.



**3.1. Grafikoa: EAE dauden etxebizitzaren banaketa, eraikin ziren urtea kontuan hartuta**  
Iturria: Propioa, INE-ren datuak erabiliz. "Edificios destinados principal o exclusivamente a viviendas según año de construcción". 2011


Bestalde, etxebizitza parkeko eraikinen %65a, gutxi gorabehera, 1980a urtea baino lehen eraiki ziren hortaz, ez dute inolako isolamendu termikorik. Izan ere, eraiki zirenean Espainia mailan ez zen isolamendu termikoaren inguruko betebeharrak ezartzen zuen inolako araurik existitzen (NBE-CT-79 araudia 1980 sartu zen indarrean). Halaber, kontuan hartuta energia-efizientziaren inguruko betebeharrak ezartzen dituen araudia 2006an indarrean sartu zela (EKT araudia), etxebizitzetarako nagusiki edo bakarrik erabiltzen diren eraikinen %90a energetikoki pobreak dira eta hortaz, energetikoki birgaitu beharko dira.

Gogoan izan behar da, "Europe's Buildings under the microscope" BPIE-ak (Buildings Performance Institute Europe) egindako txostenaren arabera, Euskadiko etxebizitza parkea Europa hegoko zaharrenetariko bat dela (4) eta Europar Batasun guztiaren barruan ere zaharrenetariko bat da, Erresuma Batuen atzetik (95) (Ikusi 3.2. Irudia).



3.2. Irudia: Europako etxebizitzaren antzinatea. (95, 96)

Bizkaian eman zen industrializazioagatik, EAE-ko probintzietatik eraikin gehien duen probintzia da. EAE-an dauden eraikinen ia erdiak Bizkaia probintzian kokatzen dira, 3.2. Grafikoan ikus daitekeen bezala. Bilbo Bizkaiko hiriburua izanda etxebizitza parke handiena duen hiria da EAE-ren barruan.




3.2. Grafikoa: Etxebizitzetarako erabiltzen diren eraikinen banaketa EAE probintzien arabera  
Iturria: Propioa, INE-ren datuak erabiliz. "Edificios destinados principal o exclusivamente a viviendas según año de construcción". 2011



INE-ren arabera, Bilbon dauden etxebizitzetarako nagusiki edo bakarrik erabiltzen diren eraikinen erdiak baino gehiagok 1960 urtea baino lehenago eraikin ziren, EAE-an gertatzen den bezala. Hortaz, Bilbon dauden eraikinen erdiek baino gehiagok 50 urte edo gehiagoko antzinatea dute.

Halaber, 3.3. Grafikoari erreparaturaz, aurretik Bilbo hiriaren inguruan esandako baieztatzen da. Izan ere, Bilbon dauden eraikin kopuru handi bat industria garikoak dira hau da, 50 eta 60. Urtekoak, garai horretan eman baitzen leherketa demografiko handiena.



**3.3. Grafikoa: Bilbon etxebizitzetarako erabiltzen diren eraikien banaketa eraikin ziren urtearen arabera**  
Iturria: Propioa, INE-ren datuak erabiliz. "Edificios destinados principal o exclusivamente a viviendas según año de construcción". 2011

Bilbon dauden eraikin kopuru handi batek energia-efizientzia hobetzeko neurrien faltan daude. Izan ere, eraiki zirenean ez zegoen inolako araudirik energiaren aurrezte eta efizientziaren inguruan. INE-ren (2011) datuen arabera, etxebizitzetarako nagusiki edo bakarrik erabiltzen diren 8.681 eraikin 1980 urtea baino lehen eraiki ziren. Hortaz, eraikin hauek ez daukate inolako isolamendu termikorik, NBE-CT-79 araudia indarrean sartu baino lehenago eraiki baitziren. Halaber, 1980 urtetik aurrera eraikitako eraikinen %8a baino gutxiagok EKT araudian ezartzen ziren energia-efizientziaren inguruko neurriak betetzen dituzte, arau hau 2006 urtean indarrean sartu baitzen. Hau dela eta, gaur egun etxebizitzetarako nagusiki edo bakarrik erabiltzen diren 9.000 eraikin baino gehiagok ez dute energia-efizientziaren inguruko inolako neurririk, kontuan hartu gabe jada birgaituta dauden eraikinak. Hortaz, eraikin guzti hauek birgaitu beharko dira EKT araudiak ezartzen dituen exijentzi termikoak betetzeko eta hortaz, eraikinen energia-efizientzia hobetzeko.

Kontuan hartuta 1998etik 2015era EAE-ko obra handiko lizentziak, batik bat obra berriko lizentziak eta birgaitzeko lizentziak ikusten da, eraikin berriak eraikitzeko joera gutxituz joan dela azken urteotan. Eraikinen birgaitzea aldiz, handituz joan da urteotan eta birgaitzeak eraikin berrien eraikuntza joera gaituztu du tarte handi batean. (Ikusi 3.4. Grafikoa).

### 3. Kapituluua

EUSTAT-en arabera, Birgaitzeko lizentzia honetan datza: *Obra handia da, baina aurrekoak ez bezala, ez dakar eraikin berria eraikitzea, baizik eta eraikitako eraikinen gainean jarduten da, aldeztatik zatizko eraispenak eginda edo egin gabe. Bi motakoa izan daiteke:*


- *Handitzeko obra:*

*Eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean okupatutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean, eta kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago eranstean da.*

- *Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra:*

*Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.*

Birgaitzeko lizentziaren definizioa aintzat hartuta, ezin da zehaztu azken urteotan aurrera eramane diren eraikinen birgaitze guztiak hauen energia-efizientzia hobetzeko izan denik. Hala ere, EKT-an 2013an eman den azkenengo moldaketan batik bat, energiaren aurrezpenari buruzko Oinarrizko Dokumentuan (OD-HE), aplikazio eremua handitu da aurretik ikusi den bezala. Aplikazio eremuaren handitze honek eraikin berriak eta existitzen diren eraikinen handitzeak, erreformak eta eraikinen erabileraren aldaketak ematen diren eraikinetan eskari energetikoa murriztea beharrezkoa da. Hortaz, 2013 urtetik aurrera emandako birgaitzeko lizentziek eraikinen energia-efizientzia hobekuntza bat ekarri dute. Halaber, 2006 urteko EKT arauaren aplikazio eremua ere aintzat hartuta, esan daiteke 2006tik 2013ra emandako obren lizentzien kopuru handi batek eraikinen energia-efizientzia hobekuntza bat ekarri duela. Hurrengo 3.4. Grafikoan 2013 urtetik aurrera birgaitze lizentzien handitzea ikus daiteke eraikin berrien eraikuntzarekin alderatuta. Gainera, datu hauei erreparaturik baiezta daiteke urteetan zehar eraikin berrien eraikitze joera nabarmenki gutxitu dela, eraikinen birgaitzearekin konparatuta.




3.4. Grafikoa: Obra handien lizentzia EAE-an urte bakoitzeko

Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Obra handiko lizentziak Euskal AEn urtearen eta hiruhilekoaren arabera lurralde historikoari eta obra-motari jarraiki. 1998-2016

Hurrengo 3.5. Grafikoan, Bilbon dauden etxebizitzetarako zuzendutako eraikinen egoera ikus daiteke. INE-k eraikinen egoeren inguruan hurrengo sailkapena ezartzen du:

- Aurrítua: Eraikina ondorengo egoera batean aurkitzen denean: eskoratuta dagoenean, aurri-deklarazio ofiziala tramitatzen ari denean edo aurri-deklarazio ofiziala existitzen denean. Bakarrik kontuan hartu dira bizigarriak diren eraikinak edo lokalen bat aktibo badin badu eraikinak.
- Txarra: Eraikina ondorengo egoera batean edo batzuetan aurkitzen denean: pitsadura nabarmenak edo bere itxitura batean sabeltzeak existitzen direnean, behe-jotzeak daudenean edo teilatuetan edo zoruan horizontaltasun falta dagoenena edo eraikinaren eustea utzi egin duela estimatzen denean (adibidez, eskaileraren mailek inklinazio susmagarri bat dutelako)
- Urria: Eraikina honelako egoera batean aurkitzen denean: euri-jaitsierak edo hondakin-uren ebakuazioa egoera txarrean dituenean, eraikinaren beheko partean hezetasunak daudenean edo teilatuan edo estalkian iragazketak daudenean.
- Ona: Eraikinak egoera aurrítuan, txarrean eta urrian aipatutako baldintzak betetzen ez dituenean.




**3.5. Grafikoa: Bilbon etxebizitzetarako zuzendutako eraikinen banaketa hauen egoera kontuan hartuta**  
Iturria: Propioa, INE-ren datuak erabiliz. "Edificios destinados principal o exclusivamente a viviendas según año de construcción". 2011

3.5. Grafikoari erreparatuz, adieraz daiteke Bilbon dauden etxebizitzetarako zuzendutako eraikinen egoera ona dela, kontuan hartu gabe eraikinen efizientzia energetikoa. Nahiz eta, Bilboko etxebizitza parkea zaharra izan eraikinen %10a bakarrik dago egoera aurrítuan, txarrean edo urrian.

Halaber, EUSTAT-ek etxebizitzaren konfort-indizearen kalkulu estatistikoa bat egiten du hurrengo eran: *Etxebizitzaren ezaugarri nagusiak eta instalazio eta zerbitzuak laburbiltzeko, instalazio edo zerbitzu bakoitza eta hautatutako ezaugarriak 3 kategoriatan sailkatu dira: oinarritzko maila, maila ertaina eta maila altua.*

3.6. Grafikoan ikus daitekeen bezala, EAE-n kokatzen diren etxebizitzaren konfort-indizea Bilbon dauden etxebizitzaren antzekoa da. Bilbon dauden etxebizitzaren erdia baino gehiagok konfort-indize ertaina daukate eta %5ak bakarrik indize baxu, kontuan hartuta etxebizitza familiar batek izan dezakeen erosotasuna edo ongizatea, etxebizitzaren antzinatea, instalazioak eta etxebizitzako hornikuntzen arabera. Gainera, Bilbon kokatzen diren etxebizitzaren batezbesteko konfort-indizearen balioa 70,8koa da, 100eko oinarria hartuta.




**3.6. Grafikoa: Bilbon eta EAE-an etxebizitzetarako zuzendutako eraikinen banaketa hauen konfort-indizea kontuan hartuta**

**Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Euskal AEko familia etxebizitza nagusiak, lurraldeen arabera, edukitze-erregimenari jarraiki. 2011**

Etxebizitzaren birgaitze energetikoak sortzen dituen energia-aurrezpenak zehazteko, etxebizitzetan dauden berogailu eta hozte-sistemen kontsumo energetikoen datuak kontuan hartu beharreko hasierako datuak dira.


Euskadin, kontuan hartuta baldintza klimatikoak eta lurraldearen kokapena, ez da beharrezkoa hozte-sistemen erabilera. Udan lurraldearen batezbesteko tenperatura 21,3 °C-koa da, EUSTAT-ek 2015an Ingurumena eta familiak datu estatistikoen arabera (97). Halaber, inkesta horren arabera, Euskadiko etxebizitzaren %1,7a baino ez dauka aire giroturik instalatuta, 3.7. Grafikoan ikus daitekeen bezala. Hau dela eta, ez da kontuan hartuko etxebizitzetako hozte-sistemen kontsumoa.



**3.7. Grafikoa: Euskadiko etxebizitzetan dauden hozte-sistemak**


**Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Euskal AEko etxebizitzak, egunez duten tenperatura graduen arabera (%). 2015**

Euskadiko ia etxebizitza guztietan hots, %100ean, berogailu sistema bat dago. Sistema hauetan erabiltzen den erregairik erabiliena gasa da eta ondoren elektrizitatea, hurrengo 3.8. Grafikoan ikus daitekeen bezala.



**3.8. Grafikoa: Euskadin erabiltzen den berogailu-sistema mota erregaiaren arabera**  
Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Euskal AEko etxebizitzak, berogailu motaren arabera (%). 2015

Halaber, Euskadin banakako sistemak dira gehien erabiltzen diren sistemak etxebizitzak berotzeko sistema zentralekin alderatuta, hurrengo 3.9. Grafikoan konprobatu daitekeen bezala.



**3.9. Grafikoa: Euskadin erabiltzen den berogailu mota**  
Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Euskal AEko etxebizitzak, berogailu motaren arabera (%). 2015

Etxebizitzaren birgaitzean eraikuntzako konponbiderik egokiena aukeratzeko orduan, edukitze erregimena kontuan hartu beharreko datu bat da. Izan ere, Eraikinean birgaitze obra bat egin ahal izateko jabeen adostasuna beharrezkoa da, beraiek baitira egingo den obra ordainduko dutenak.


Uztailaren 21eko 49/1960 Legean, Jabetza Horizontalarena, 2015eko urriaren 6an aldatua (98), ezartzen den arabera, eraikinean bere egituraren eta kanpoko egoeran edozein alterazio egin ahal izateko komunitatearen kideen ahobatezotasuna behar da nahiz eta, juntara joan edo ez.

### 3. Kapitulu

---


Hau dela eta, aukeratu den birgaitze konponbideak eraikinaren kanpoko egoeran alterazioak sortzen baditu, eraikinaren jabeen arteko adostasun beharra nahitaezkoa da, aipatutako legean ezartzen den bezala.

Hurrengo 3.10. Grafikoan, Bilboko eta EAEko etxebizitzaren edukitze erregimenaren datuak ikus daitezke. Bi kasuetan edukitze erregimenaren arabera, etxebizitza jabetzan izatea da. Bilbon 2011 urtean jabetzan zeuden etxebizitzaren %34a oraindik ordaintzeaz zeuden, hau da, hipotekatuta zeuden.



**3.10. Grafikoa: Bilboko eta EAE-ko etxebizitzaren edukitze-erregimena**  
Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Euskal AEko familia etxebizitza nagusiak, lurraldeen arabera, edukitze-erregimenari jarraiki. 2011

3.11. Grafikoan, Bilbon dauden etxebizitzek duten solairu kopurua adierazten da. Eraikinen eraikigintzari dagokionez ikusten da Bilbo hiri bat dela non, etxebizitza altuen bolumena askoz handiago dela familia bakarreko etxebizitzekin alderatuta. Hiri honetan eraikitako eraikinen %73ek 4tik 9rako solairu dituzte. Hortaz, Bilbon kokatutako eraikinen ia gehienak etxebizitza-blokeak dira. Eraikuntzako tipologia mota hauetan fatxada eraikinaren inguratzailerean elementu oso garrantzitsua da izan ere, eraikinak kanpoaldearekin edo beste eraikinekin duen kontaktuzko azalaren portzentajea oso handia da.




**3.11. Grafikoa: Bilbon etxebizitzetara zuzendutako eraikinen banaketa sestraren gaineko solairu kopuruaren arabera**

**Iturria: Propioa, INE-en datuak erabiliz. "Edificios destinados principal o exclusivamente a viviendas y nº de inmuebles por municipios, nº de plantas sobre rasante y año de construcción". 2011**

2015 urtean lurralde-eremuetatik EAE-ko familiaren etxebizitzaren gaineko EUSTAT-aren datuen arabera (6), EAE osoan dauden etxebizitzetako batezbesteko antzinatea 42 urtekoa da eta Bilbon kokatutako etxebizitzaren batezbesteko antzinatea 50 urtekoa da. Hortaz, Bilbon dauden eraikinen batezbesteko antzinate tasa, EAE-an dauden etxebizitzena baino zertxobait altuagoa da.


Gainera, EAE-an kokatuta dauden etxebizitzaren azalera erabilgarria 86,9 m<sup>2</sup>-koa da eta Bilbo hirian 82,1 m<sup>2</sup>-koa da azalera erabilgarria. Hurrengo 3.12. Grafikoan, EAE-ko lurraldeetan kokatutako etxebizitzaren azalera erabilgarria zein den ikus daiteke.



**3.12. Grafikoa: Etxebizitzaren azalera erabilgarria m<sup>2</sup>tan lurralde eremuaren arabera**

**Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Euskal AEko etxebizitza familiarrak, lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarriek jarraiki. 2015**

Hurrengo 3.13. Grafikoan ikus daiteke, EAE-an kokatutako eta salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren batezbesteko prezioa 2.800 eurokoa izan zela 2016ko hirugarren hiruhilabetekoan, etxebizitzaren m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria kontuan izanda.



**3.13. Grafikoa: Euskal AEn salgai dauden etxebizitzaren m<sup>2</sup> erabilgarriaren batez besteko prezioa, 2016 urteko hirugarren hiruhilekoan eta lurralde historikoari jarraiki (eurotan)  
Iturria: Propioa, EUSTAT-en datuak erabiliz. Etxebizitzaren prezioa eta beharra. 2016**

Etxebizitzaren azalera erabilgarria m<sup>2</sup>-tan adierazita eta batezbesteko prezioa m<sup>2</sup>-ko datuak garrantzitsuak izango dira birgaitze metodologia egokiena aukeratzeko orduan. Izan ere, birgaitze jarduera etxebizitzaren barrutik egiten bada espazio galerak ekar ditzake etxebizitzak daukan azalera erabilgarrian m<sup>2</sup>-ko.

### 3.3. Eraikuntza tipologia

Eraikinen fatxadek aurreko atalean komentatutako eraikuntza garaietan zehar eboluzionatu dute.

EAE-aren kasuan, eraikinen ingurutzaleek neurri handi batean, bere jatorria dute herri-arkitekturan, hau da, baserrietan, dorretzetan eta euskal herriko jauregietan (99). Baserrien itxitura batez ere argamasaz eta egurrezko emokadura zuen harri-harlangaitz-hormetakoak ziren, leku bakoitzeko materialen eta kanpoko giroaren arabera. Eraikuntza tipologia honen adibide bat Bilboko ensantsean (100) ikus daiteke eta alde zaharreko eraikinetan, harri-hormazkoak eta barneko egitura egurrezkoa duten harlanduzkoa fatxadak dira.

XIX. Mendearen amaieran frantziarren eraginez hormigoi armatua eraikinetan erabiltzen hasi ziren. Bilbon hormigoi armatuarekin eraiki zen lehen eraikin publikoa “La fábrica de Ceres” izan zen 1899 eta 1900 urteetan zehar (101). Eraikin hau oraindik zutik dago eta etxebizitzetako eraikin bihurtu da.

Hormigoi armatuaren erabilera fatxaden eraikitzean aldaketak ekarri zituen izan ere, honela ingurutzaleak ez ditu forjatuak eta estalkia eutsi behar. Hau dela eta, fatxadak jada ez du egitura funtzioa bete behar eraikinetan beraz, orri bakarreko eta material pisutsuko fatxadak eraikitzeak barnean aire-ganbera duten orri bikoitzeko fatxadak eraikitzean pasatzen da. Orri bikoitzeko fatxadak transformazio garrantzitsu bat izan zen eta desarrollismo garaian (1960-1980) burutu zen, parte handi batean fatxada eraikinaren sostengu-funtziotik askatu zelako. Fatxada eratzen duten bi orriak banatzen dituen aire-ganberak fatxadaren erresistentzia termikoa hobetzen du, orri bakarreko fatxadekin alderatuta. Hasiera baten aire-ganbera eraiki



zen barrualdean ur-iragazteak ekiditeko baino hasieran estankoa zenez, honek kondentsazioak sortzen zituen.

Hala ere, eraikinetan isolamendu termikoa ez da erabiltzen hirurogei urteen amaieratara arte, petrolioaren munduko krisiaren ondorioz Eraikingintzako Oinarrizko Araua, CT-79, indarrean sartu zenean. Hau dela eta, arau hau indarrean sartuz geroztik eraikinen aire-ganberan isolamendu termikoa sartzen hasi zen.

EAE-an existitzen diren eraikinen eraikuntza tipologia ezartzeko Eusko Jaurlaritzak 2014ko uztailan eratu zuen birgaitze energetikoko katalogoa (102) erabiliko da erreferentzi bezala. Izan ere, katalogo honetan dauden itxiturak EAE-an kokatutako eraikin errealeko erreproduzioak dira.

Aipatutako katalogoan EAE-an dauden itxituren eraikuntza tipologiak fitxa tekniko desberdinetan adierazten dira. Tipologiak sailkatzeko orduan orri kopurua, aire-ganbera mota eta estaldura mota kontuan hartu da. Fitxa teknikoetan agertzen diren itxiduren ezaugarri teknikoak Eusko Jaurlaritzak daukan Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategian egindako saiakuntzan lortutako datuen bidez eratu dira.

Jarraian, eraikuntza tipologiaren azterketa bat egingo da.

### **3.3.1. Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxada existentek. 1,5 oindun adreilu huts bikoitza.**

Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxada, Bilboko Otxarkoaga auzoan kokatutako eraikin batean. Eraikina desarrollismo garaian eraiki zen (1960-1980).

Fatxada hau 1,5 oindun adreilu huts bikoitzeko orri bakar batez osatuta dago gainera, kanpoko estaldura zementuzko morteroz eginda dago eta barneko estaldura zarpiatuta eta luzituta dago.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 14 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,24 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 2,43 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,11 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.3. Irudia: Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxadaren eraikuntza-sekzioa (1,5 oindun adreilu huts bikoitza). Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa**



**3.4. Irudia: Otxarkoaga auzoan kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina**

#### **3.3.2. Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxada existentek. 1,5 oindun adreilu zulatua.**

Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxada, Bilboko Solokoetxe auzoan kokatutako eraikin batean. Eraikina 1936 urtea baino lehen eraiki zen.

Fatxada hau 1,5 oindun adreilu zulatuko orri bakar batez osatuta dago gainera, kanpoko estaldura zementuzko morteroz eginda dago eta barneko estaldura zarpiatuta eta luzituta dago.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 43 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,49 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 1,52 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,47 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.5. Irudia: Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxadaren eraikuntza-sekzioa (1,5 oindun adreilu zulatua). Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa**



**3.6. Irudia: Solokoetxe auzoan kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina**

### **3.3.3. Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxada existentek. Hormigoi-blokea.**

Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxada. Eraikina 1980-2006 garaikoa da, NBE\_CT\_79 araua indarrean sartu zeneko garaikoa.

Fatxada hau hormigoi-blokeko orri bakar batez osatuta dago. Zementuzko morteroko emokadura dauka kanpoan eta barneko estaldura zarpiatuta eta luzituta dago.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 18 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,25 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 2,39 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,19 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.7. Irudia:** Bi aldeetan estaldutako orri bakarreko fatxadaren eraikuntza-sekzioa (Hormigoi-blokea). Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa



**3.8. Irudia:** Rekalde (Bilbo) auzoan kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina


### **3.3.4. Kanpoko estaldura bistakoa, aire-ganbera estankoa eta barneko estaldura duten bi orritako fatxada existentek.**

Kanpoko estaldura bistakoa, aire-ganbera estankoa eta barneko estaldura duten bi orritako fatxadak. Eraikina Bilboko J. Gayarre etorbidean kokatuta dago. Eraikina desarrollista garaian (1960-1980) eraiki zen.

Eraikinak 5 cm-ko aireztatu gabeko bitarteko ganbera duen bi orritako fatxada du. Barneko orria 9 cm-ko adreilu huts bikoitzeko trenkada bat da eta barnetik zarpiatuta eta luzituta dago. Kanpoko orria bistako adreilu zulatuzkoa da.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 31 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,56 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 1,36 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,20 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.9. Irudia: Kanpoko estaldura bistakoa, aire-ganbera estankoa eta barneko estaldura duten bi orritako fatxadaren eraikuntza-sekzioa. Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa**



**3.10. Irudia: J. Gayarren kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina**


### **3.3.5. Bi aldeetan estaldura eta aire-ganbera estankoa duten bi orritako fatxada existentekak.**

Bi aldeetan estaldura eta aire-ganbera estankoa duen bi orritako fatxada duen eraikina Bilboko Otxarkoaga auzoan kokatuta dago. Eraikina desarrollista garaian (1960-1980) eraiki zen

Eraikinak 5 cm-ko aireztatu gabeko bitarteko aire-ganbera duen bi orritako fatxada du. Barneko orria adreilu huts bakuneko trenkada bat da eta barnetik zementuzko edo karezko morteroz zapituta dago eta luzituta. Kanpoko orria adreilu huts bikoitzarekin estalduta dago eta fatxadak kanpotik zementuzko morterozko emokadura du.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 23 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,54 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 1,42 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,14 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.11. Irudia: Bi aldeetan estaldura eta aire-ganbera estankoa duten bi orritako fatxadaren eraikuntza-sekzioa. Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa**



**3.12. Irudia: Otxarkoaga auzoan kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina**


#### **3.3.6. Bi aldeetan estaldura eta aire-ganbera estankoa duen bi orritako fatxada existentek.**

Bi aldeetan estaldura eta aire-ganbera estankoa duen bi orritako fatxada duen eraikina Bilboko Belostikale kalean kokatuta dago. Eraikina desarrollista garaian (1960-1980) eraiki zen

Eraikina 5 cm-ko aireztatu gabeko bitarteko aire-ganbera duen bi orritako fatxada batez osatuta dago. Barneko orria adreilu huts bakuneko trenkada bat da eta barnetik zementuzko edo karezko morteroz zapituta dago eta luzituta. Kanpoko orria adreilu huts hirukoitzarekin estalduta dago eta fatxadak kanpotik zementuzko morterozko emokadura du.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 26 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,58 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 1,33 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,169349 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.13. Irudia: Bi aldeetan estaldura eta aire-ganbera estankoa duen bi orritako fatxadaren eraikuntza-sekzioa. Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa**



**3.14. Irudia: Belostikale kalean kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina**

### **3.3.7. Bistako estaldura eta aireztatutako aire-ganbera duen bi orritako fatxada existentekak.**

Bistako estaldura eta aireztatutako aire-ganbera duen bi orritako fatxada. Eraikina desarrollista garaian (1960-1980) eraiki zen.


Eraikinak 5 cm-ko arinki aireztatutako bitarteko aire-ganbera duen bi orritako fatxada bat du. Barneko orria 7,5 cm-ko adreilu huts bikoitzeko trenkada bat da eta barnetik zapiuta eta luzituta dago. Kanpoko orria bistako adreilu trinkozkoa da.

Fatxadaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Itxituraren lodiera: 24,5 cm
- Erresistentzia termikoa: 0,58 m<sup>2</sup>K/W
- Transmitantzia termikoa: 1,34 W/m<sup>2</sup>K
- Gaitasun termikoa: 0,19 MJ/m<sup>2</sup>K



**3.15. Irudia: Bistako estaldura eta aireztatutako aire-ganbera duen bi orritako fatxadaren eraikuntza-sekzioa. Eusko Jaurlaritzako birgaitze energetikoko katalogoa**



**3.16. Irudia: Bilbon kokatuta eta eraikuntza tipologia horri dagokion eraikina**

#### 3.4. Zona klimatikoa

Eraikinen kokapenari dagokionez, Doktorego Tesi EAE-an kokatutako eraikinen portaera aztertzen du. Zona horretan EKT-aren Oinarrizko Dokumentuak (OD) eraikinetan energia aurrezteko oinarrizko baldintzak betetzeko erregelak eta prozedurak ezartzen ditu (94). EKT-aren Oinarrizko Dokumentuaren energia aurrezteko sekzioetan (EKT-OD-HE) eraikinen energia kontsumoaren mugaketaren inguruan bete beharreko oinarrizko betebeharrak ezartzen dira, eraikina kokatzen den lekuaren zona klimatikoaren arabera. Ezarritako betebeharrak eraikitako eraikin berriek eta existitzen eta esku-hartu diren eraikinek bete behar dituzte.

OD-aren HE sekzioen barruan eraikinak kokatuta dauden lekuen zona klimatikoa ezartzen da, lekuaren neguko eta udako gogortasun klimatikoaren arabera. Hortaz, kontuan hartzen dira eraikinen kokalekuen erregistro klimatikoak: temperatura lehorra (%), hezetasun erlatiboa (%) eta plano horizontalaren gaineko urteroko eguzki erradiazio globalaren eguneko batezbesteko ( $W/m^2$ ).

Temperatura lehorreko eta hezetasun erlatiboko erregistro klimatikoak eraikinen kokalekua zonabanzatzeko erabiltzen dira. Horrela, OD-aren HE1 (energia-eskaera mugatzea) sekzioaren arabera, kanpoko eskaera komun batzuk definitzen dira eraikinen eskari energetikoaren kalkulurako. Neguko gogortasuna kontuan hartuta zona klimatikoa letra baten bidez (A-E) definitzen da eta udako gogortasun klimatikoaren arabera zenbaki baten bidez (1-4) definitzen da eraikinaren kokalekuaren zona klimatikoa.


Halaber, OD-aren sekzio bereko B eranskinean (OD-HE1-ko B eranskinean) dauden tabulatutako balioen bidez, eraikinaren energia eskaeraren kalkulua burutzeko eraikina kokatzen den herriaren zona klimatikoa ezartzen da, bere erreferentzi klimatikoaz gain. Eraikina kokatzen den herriaren Autonomia Erkidegoak onartutako dokumentuak ere erabil daitezke. Eranskinetan agertzen diren taulak osatzeko lekuaren temperatura lehorra (%) eta



hezetasun erlatiboa (%) erabili dira kontuan hartuta herriaren probintziako hiriburuaren eta honen altitudea itsas mailarekiko. Hortaz, taula hauekin herriaren zona klimatikoa lor daiteke bere probintziako hiriburuaren eta honen altitudea itsas mailarekiko kontuan izanda.

Zonas climáticas Península Ibérica																		
Capital	Z.C.	Altitud	A4	A3	A2	A1	B4	B3	B2	B1	C4	C3	C2	C1	D3	D2	D1	E1
Albacete	D3	677										h < 450			h > 950			h ≥ 950
Alicante/Alacant	B4	7					h < 250					h < 700						h ≥ 700
Almería	A4	0	h < 100				h < 250	h < 400				h < 800						h ≥ 800
Ávila	E1	1054																h ≥ 850
Badajoz	C4	168									h < 400	h < 450			h > 450			
Barcelona	C2	1										h < 250			h < 450	h < 750		h ≥ 750
Bilbao/Bilbo	C1	214											h < 250					h ≥ 250
Burgos	E1	861																h < 600
Cáceres	C4	385									h < 600				h < 1050			h ≥ 1050
Cádiz	A3	0	h < 150					h < 450				h < 600	h < 850			h > 850		
Castellón/Castello	B3	18						h < 50				h < 500			h < 600	h < 1000		h ≥ 1000
Ceuta	B3	0						h < 50										
Ciudad Real	D3	690									h < 450	h < 500						h ≥ 500
Córdoba	B4	113					h < 150				h < 550				h > 550			
Coruña, La/ A Coruña	C1	0												h < 200				h ≥ 200
Cuenca	D2	975													h < 800	h < 1050		h ≥ 1050
Gerona/Girona	D2	143										h < 100			h < 600			h ≥ 600
Granada	C3	754	h < 50				h < 350				h < 600	h < 800			h < 1300			h ≥ 1300
Guadalajara	D3	708										h < 950			h < 1000			h ≥ 1000
Huelva	A4	50	h < 50				h < 150	h < 350				h < 800			h > 800			
Huesca	D2	432										h < 200			h < 400	h < 700		h ≥ 700
Jaén	C4	436					h < 350				h < 750				h < 1250			h ≥ 1250
J León	E1	346													h < 100			h > 100
Lérida/Lleida	D3	131													h < 600			h > 600
Logroño	D2	379											h < 200		h < 600	h < 700		h > 700
Lugo	D1	412													h < 500	h < 700		h ≥ 700
Madrid	D3	589										h < 500			h < 950	h < 1000		h ≥ 1000
Málaga	A3	0						h < 300							h < 700			h > 700
Melilla	A3	130																
Murcia	B3	25						h < 100				h < 550			h > 550			
Orense/Ourense	D2	327										h < 150	h < 300		h < 800			h > 800
Oviedo	D1	214												h < 50			h < 550	h > 550
Palencia	D1	722															h < 800	h > 800
Palma de Mallorca	B3	1						h < 250				h > 250						
Pamplona/Iruña	D1	456											h < 100		h < 300	h < 600		h > 600
Pontevedra	C1	77												h < 350				h > 350
Salamanca	D2	770													h < 800			h > 800
San Sebastián/Donostia	D1	5															h < 400	h > 400
Santander	C1	1													h < 150			h > 150
Segovia	D2	1013														h < 1000		h > 1000
Sevilla	B4	9					h < 200					h > 200						
Soria	E1	964														h < 750	h < 800	h > 800
Tarragona	B3	1						h < 50				h < 500			h > 500			
Teruel	D2	995										h < 450	h < 500		h < 1000			h > 1000
Toledo	C4	445													h < 500			h > 500
Valencia/Valencia	B3	8						h < 50				h < 500			h < 950			h > 950
Valladolid	D2	704													h < 800			h > 800
Vitoria/Gasteiz	D1	512														h < 500		h > 500
Zamora	D2	617														h < 800		h > 800
Zaragoza	D3	207										h < 200			h < 650			h > 650

3.17. Irdia: Penintsula Iberiarreko zona klimatikoak  
Iturria: OD-HE1. B eranskina



3.18. Irdia: Zona klimatikoen banaketa

Iturria: “Nuevo código técnico de Edificación DB-HE. Guía de los principales cambios”. ROCKWOLL

### 3. Kapituluia

Kontuan izanda 3.17. Irudia, Bilboko zona klimatikoa C1 dela ezar daiteke, OD-HE1-aren arabera.

EKT-ren OD-HE1-ean eraikina kokatzen den herriaren zona klimatikoa kontuan izanda, erreferentziako eraikin bat ezartzen da. Erreferentziako eraikin honekin birgaitutako eraikinaren eskaera energetikoa zehaztu daiteke zeren, HE1 sekzioaren arabera eskaera hau erreferentziako eraikinak duenak baino txikoagoa izan behar baita. Eraikinarekin konparatuko den erreferentziako erakinaren ingurutzailaren transmitantzia termikoa sekzio bereko D eranskinean ezartzen da, zona klimatikoaren arabera. Hurrengo taulan, Euskadin dauden zona klimatiko desberdinek bete behar dituzten transmitantzia termikoko balioak ikus daitezke.

EAE-ko probintzietako hiriburuak	Zona klimatikoa	Fatxada-hormen eta lursailarekin kontaktuan dauden itxituren transmitantzia termikoko balio minimoak ( $U_{Mlim}$ )
Bilbo	C1	0,73 W/m <sup>2</sup> K
Donostia	D1	0,66 W/m <sup>2</sup> K
Gasteiz	D1	0,66 W/m <sup>2</sup> K

3.5. Taula: Fatxada-hormen transmitantzia minimoa EAE-ko probintzia hiriburuetan 2013 urteko OD-HE1-aren arabera

Halaber, sekzio horretako D eranskinean transmitantzia termikoko balio orientagarriak ezartzen dira. Balio hauek ez dute bete beharrezko izaera eta erabilgarriak dira konponbidearen kostu optimoa lortzeko, kontuan izanda kostu globala eta energia kontsumoa.


EAE-ko probintzietako hiriburuak	Zona klimatikoa	Fatxada-hormen eta lursailarekin kontaktuan dauden itxituren transmitantzia termikoko balio orientagarriak ( $U_M$ )
Bilbao	C1	0,29 W/ m <sup>2</sup> K
Donostia	D1	0,27 W/ m <sup>2</sup> K
Gasteiz	D1	0,27 W/ m <sup>2</sup> K

3.6. Taula: Fatxada-hormen transmitantzia balio orientagarriak EAE-ko probintzia hiriburuetan 2013 urteko OD-HE1-aren arabera

Bestalde, plano horizontalaren gaineko urteroko eguzki erradiazio globalaren eguneko batezbeste (W/m<sup>2</sup>) balioen arabera zonabanatzeko, oinarrizko dokumentuen HE4 (ur beroaren gutxieneko eguzki-ekarpen) eta HE5 (energia elektrikoaren gutxiengo energia fotovoltaikoaren ekarpena) sekzioak hartzen dira erreferentzi bezala (OD-HE4 eta OD-HE5).


Zona climática	MJ/m <sup>2</sup>	kWh/m <sup>2</sup>
I	H < 13,7	H < 3,8
II	13,7 ≤ H < 15,1	3,8 ≤ H < 4,2
III	15,1 ≤ H < 16,6	4,2 ≤ H < 4,6
IV	16,6 ≤ H < 18,0	4,6 ≤ H < 5,0
V	H ≥ 18,0	H ≥ 5,0

3.19. Irudia: Urteko eguzki erradiazio globalaren eguneko batezbeste balioak  
Iturria: OD-HE4




3.20: Zona klimatikoien banaketa mapa  
Iturria: IDEA (Instituto para la diversificación y ahorro de la energía)


Probintziako hiriburuaren urteroko eguzki erradiazio globalaren eguneko batezbesteko datuak “Atlas de Radiación Solar en España utilizando datos del SAF (Climate Satellite Application Facilities) de Clima de EUMETSAT (Organización Europea para la Explotación de Satélites)” (94) dokumentuan batzen dira.



3.21. Irudia: Batezbesteko irradiazio globala kWh/m<sup>2</sup> egun. (1983-2005)  
Iturria: “Atlas de Radiación Solar en España”. Espainiako Meteorologiako Estatu Agentziak. 2012




**3.22. Irudia: Eguneko batezbesteko irradiazio globala. (1983-2005)**  
 Iturria: "Atlas de Radiación Solar en España". Espainiako Meteorologiako Estatu Agentziak. 2012.




**3.23. Irudia: Urteko batezbesteko eguzki erradiazio globala Bilbon. (1983-2005)**  
 Iturria: "Atlas de Radiación Solar en España". Espainiako Meteorologiako Estatu Agentziak. 2012.

3.21. Irudian eta 3.22. Irudian Espainiako penintsulan eguneko batezbesteko irradiazio globalaren banaketa ikus daiteke. EAE-ko zonan irradiazioa penintsulako gainerako herrialdeetan baino txikiagoa da. Bilbon, konkretuki, 3,54 KWh/m<sup>2</sup> eguneko batezbesteko irradiazio globala izan zen 1983 eta 2005 urteetan zehar. Hortaz, OD-aren HE4 sekzioaren arabera Bilbo eta EAE I zona klimatikoan kokatuta daude.

1981-2010 urteetan zehar Bilboko datu klimatikoak ezartzeko Espainiako Meteorologiako Estatu Agentziak (AEMET) Bilboko aireportuan kokatzen den estazio meteorologikoa (altitua: 42 cm, Latitudea: 43º 17' 53" N, longitudea: 2º 54' 23" O) erabiltzen du erreferentzi bezala. (Ikusi 3.14. Grafikoa eta 3.15. Grafikoa).



**3.14. Grafikoa: Temperatura (°C) eta hezetasun erlatiboaren (%) banaketa Bilbon**  
 Iturria: Propioa, AEMET-en datuak erabiliz. "Valores climáticos normales, Aeropuerto de Bilbao". 1981-2010



**3.15. Grafikoa: Batezbesteko prezipitazioaren banaketa Bilbon**  
 Iturria: Propioa, AEMET-en datuak erabiliz. "Valores climáticos normales, Aeropuerto de Bilbao". 1981-2010

Azkenik, esan beharra dago 3.17. Irudian adierazita duden probintziako<sup>8</sup> hiriburuen arabera, EAE neguko hiru zona klimatiko desberdinetan banatzen dela (C, D eta E). Hala ere, zona honetan dagoen klima leuna da Espainiako beste zona klimatikoekin dituzten baldintza klimatikoekin alderatuta. Izan ere, EAE-an hezetasunaren balio erlatiboak %65-76 tartean daude eta temperatura 8 eta 22°C tartean.

<sup>8</sup> EAE hiru probintzietan banatzen da. Hortaz, hiru probintzia hiriburu daude: Bilbo, Donostia eta Gasteiz.



## **4. Kapituluua: FATXADEN BIRGAIITZE ENERGETIKORAKO METODOAK**





bero honek neguan, gehien bat, barneko berotze-sistemetan dauka bere jatorria eta udan, gehien bat, kanpoko eguzki erradiazioan. Hortaz, eraikinaren barnean konfort egoera bat mantentzeko funtsezkoa da neguan berogailuetatik datorren beroa azkar galtzea ekiditea eta udan erradiazioetatik metatzen den beroa murriztea.

Sistema hauen bidez, eraikinaren barneko konfort baldintzak hobetzen dira eta azken honek negutegi-efektuko gas-emisioen murrizketan laguntzen du, ingurumena babestuz. Gas hauen murrizketa, batez ere CO<sub>2</sub> gasak, sistema hauek erabiltzean eraikinaren inertzi termikoa hobetzen delako ematen da. Izan ere, sistema hauek neguan berotze-sistemen erabilera eta udan hozte-sistemen erabilera murrizten laguntzen dute.

Halaber, kanpoko isolamendu termikoen sistemek, sistema zuzenki sortuta eta jarrita badago, eraikinean dauden zubi-termiko ia guztiak errazki ebaztea baimentzen dute. Izan ere, eraikinaren kanpoaldea estaltzen eta isolatzen da etenik gabe, eraikinaren inguratzailearen geometriara moldatuz. Fatxadaren kanpotik isolatzen denean gainazaleko eta interstizialeko kondentsazioen agerpena ekiditen da, fatxadaren hormaren ia parte gehiena partzialki bero dagoelako izan ere, isolatzailearekin babestuta dago. Honela, euskarriko barne gainazalak barruko giroaren ihintz puntua baino gehiagoko tenperatura izango du eta horrela, kondentsazioak ekiditen dira.

Ondoren, fatxadaren kanpoko isolamendu termikoen sistemen abantaila garrantzitsuenak laburtzen dira (103):

- Birgaitze lanek irauten duten bitartean etxebizitza uztea ez da beharrezkoa esku-hartzea kanpotik egiten baita.
- Etxebizitzaren barrutik ez da espaziorik galtzen esku-hartzea kanpotik egiten baita.
- Zubi-termiko guztiak zuzentzen direnez, etxebizitzako barruko konfort termikoa hobetzen da. Honela, horma "hotzak" eta gainazaleko kondentsazioen eratzearen arriskua ekiditen dira.
- Etxebizitzaren barruko konfort akustikoa hobetzen da.
- Berotze eta hozte sistemetan aurrezte energetiko handiagoa lortzen da. Konponbidea eraikinaren inguratzailean zehar jarraia denez zubi termikoak zuzentzen dira, aurretik komentatu den bezala.
- Jatorrizko fatxadaren estetika hobetzen da. Honela, eraikina errebalorizatzea eta honen eta kokatzen den ingurunearen itxura estetikoa gaztetzea lortzen da.

Kanpoko isolamendu sistema hauek desabantaila batzuk dituzte (103):


- Esku-hartzearen kostu totala barneko isolamendu eta aire-ganberaren barruan isolamendu sistemekin konparatuta askoz handiagoa da. Baina berotze eta hozte sistemetan lortzen den aurrezte energetikoa handiago denez kostu totala erraz amortizatu daiteke azken bi sistema hauekin alderatuz.

- Kasu ia gehienetan, aldamioren erabilera beharrezkoa da esku-hartzea eraikinaren kanpotik egiten baita. Honek eragozpenak sortzen ditu maizterrentzat eta oinezkoentzat.
- Esku-hartzea burutzeko jabeen arteko adostasuna beharrezkoa da.
- Ondare arkitektoniko bezala katalogatutako eraikinetan sistema mota hauek ezin dira erabili, eraikinaren fatxada babestuta baitago.

#### 4.2.1. Kanpoko isolamendu termikoen sistemak (SATE)

SATE sistemetan esku-hartzea edo interbentzioa fatxadaren kanpotik egiten da eta sistema hau eraikinaren inguratzailea termikoki isolatzeko erabiltzen da. Sistema integral bat da, hau da, osagai bakoitza multzo baten zati bat da. Hortaz, osagai guztiek baterako eran sortuta eta entseatuta egon behar dute. Sistema huen erresistentzia termikoa  $1 \text{ m}^2\text{K/w}$  balioa edo gehiagokoa izan behar da, ETAG 004 gidan eta UNE-EN 13499 eta UNE-EN13500 (104, 105) arauetan adierazten den bezala.

Hormara edo paretara mekanikoki edo itsasgarriarekin finkatutako panel isolatzaile batean datza sistema. Isolatzaile panela isolatzailean ezartzen den estaldura baten bidez babestuta egon behar da. Estaldura morterozko kapa bat edo gehiagotan datza non, beira-zuntzeko maia bat jartzen ohi den. Estalduraren akabera morterozkoa izan daiteke edo adreilu akrilikoko, buztinezko zeramikako edo harri plakazkoa estaldurakoa.



4.3. Irudia: SATE sistemaren eskema bat. (ANFAPA)

Isolatzailea jatorrizko fatxadara finkatzen denez, batzuetan beharrezkoa izaten da isolatzailea finkatu baino lehen euskarria aurretik tratatzea. Horretarako, finkatu aurretiko akzioak egin behar dira euskarrian. Erabiliko den finkapen mota euskarriaren lautasunaren eta bertikaltasunaren menpe egongo da.



4.4. Irudia: Isolatzailea euskarrira finkatuta. (Weber)



4.5. Irudia: Isolatzailea euskarrira itsatsita.(IDAE)

SATE sistemetako isolatzaile edo isolamendu plaka ohikoenak, EPS (Poliestireno hedatua), XPS (poliestireno estruitua), zuntz mineral (MW), kortxoa (ICB) eta egurrezko zuntzezko (WF) taulak dira. Hurrengo 4.6. Irudian, isolatzaile plaka eta taula ohikoenak ikus daitezke.



EPS



XPS



Zuntz minerala (MW)



Kortxoa (ICB)




Egurrezko zuntza (WF)

4.6. Irudia: SATE sistemetan erabiltako isolatzaile motak

Isolamendu plaka hauen gainean akabera kapa bat jartzen da sistema kanpotik babesteko. Akabera kapa edo estaldura kanpotik ikusten dena denez, honek birgaitu ondoren eraikinaren estetika zehaztuko du. Estaldura morterozko kapa bat edo gehiagoz osatzen da edo plakazko estaldurak erabil daitezke.

Estalduran morteroa erabiltzen bada kolore eta testura desberdinak lor daitezke (Ikusi 4.7. Irudia). Hau konponbiderik merkeena da, plakazko estaldurarekin alderatuta.



4.7. Irudia: Mortero estalduraren bidez lortutako gamak eta testura mota desberdinak. (IDAE)


Adreilu akrilikoko, buztinezko zeramikako edo harri plakazkoa estaldurak erabiltzen badira estaldura osatzeko, eraikina kokatzen den ingurunera egokitzeko gradua handitzen da kontuan hartzen baita fatxadaren jatorrizko estetika edo itxura. Honela, jatorrizko fatxadaren kanpoko estaldura bistako adreiluzkoa bada, kanpoko estetika edo itxura mantendu daiteke bistako adreilua imitatzen duen plakazko estaldura bat erabiliz, hurrengo 4.8. Irudian ikus daitekeen bezala.



4.8. Irudia: Bistako adreilua imitatzen duen plakazko estaldura. (IDAE)


### 4.2.2. Fatxada aireztatua

Isolamendu sistema hauetan esku-hartzea eraikinaren itxuraren kanpotik izaten da eta eraikin berriak eta birgaitu beharreko eraikinak termikoki isolatzeko erabiltzen da. Fatxada aireztatuetan aire-zirkulazioa baimentzeko ganbera bat eratzen da.




4.9. Irudia: Fatxada aireztatu baten eskema. (IPUR)

Sistema hauetan isolatzailea mekanikoki finkatzen da eraikinaren euskarrira. Ondoren isolatzailearen gainean azpiegitura bat finkatzen da. Azpiegitura honetan kanpo akaberako elementuak instalatzen dira honela, isolatzaile eta estalduraren artean aire-ganbera bat sortzen da.



4.10. Irudia: Fatxada aireztatu baten osagaiak. (IPUR).



4.11. Irudia: Fatxada aireztatu baten sekzio horizontalaren eskema. (AIPEX).

Aire-ganberak aireztapen natural bat eratzen du, isolamendua lehor mantenduz. Honela, bero eta hozte-sistemen energi kontsumoan aurreztea lortzen da. Gainera, sortzen den aire-ganberagatik hozte-sistemetan lortzen den energia kontsumoaren aurreztea, SATE sistemetan lortzen dena baino handiagoa da baino, fatxada aireztatuen inbertsioko kostua azken sistema hauetan baino askoz handiagoa da. Halaber, fatxada aireztatuen instalazioa SATE sistemena baino askoz konplexuagoa da izan ere, SATE sistemak sistema integratuak dira eta ez da behar inolako bilbadurarik kanpoko akabera instalatzeko.

Fatxada aireztatuetan erabiltzen diren isolatzaile ohikoenak SATE sistemetan erabiltzen diren ia isolatzaile berak dira.

SATE sistemetan gertatzen den bezala, kanpoko estaldurak edo akaberak eraikinaren bukaerako estetika edo itxura zehaztuko du. Baina SATE sistemetan ez bezala, fatxada aireztatuetan kanpoko estaldura eratzeko aukera zabalagoa da. Izan ere, estaldura azpiegituraren gain instalatzen denez, material desberdinez fabrikatutako plakak erabiltzeko aukera dago. Aldiz, SATE sistemetan ez da aukera hori ematen, estaldura isolatzailearen gain instalatzen baita.

Fatxada aireztatuetan erabiltzen diren estaldura motak sistemaren prezio finala zehaztuko du eta baita ingurunera egokitzeko gradua ere. Estalduran erabiltzen diren plakak ondorengokoak izan daitezke: mortero akrilikoa, metala, HPL plaka finkoak, igeltsu ijeztatua, zeramika, marmol aglomeratua, harri naturala edo artifiziala, etab. Hurrengo 4.13. Irudian, 4.14. Irudian eta 4.15. Irudian estaldurarako erabiltzen diren plaken adibide batzuk ikus daitezke.



4.12. Irudia: Presio altuko plaka ijestu trinkoen bidez sortutako estaldura (HPL). (Trespa).



4.13. Irudia: Estruitutako plaka zeramikoen bidez sortutako estaldura. (Tempio).




4.14. Irudia: Harri naturalaren bidez sortutako estaldura. (Levantina).

### 4.3. Barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak


Sistema hauek etxebizitza termikoki isolatzeko erabiltzen dira. Honela, eraikinaren efizientzia termikoa eta barneko konfort termikoa eta akustikoa hobetzen da.

Sistema hauetan isolatzailea etxebizitzako barneko paretetan instalatzen da eta ondoren igeltsu ijeltuko plaken (PYL, placas de yeso laminado) bitartez estaltzen da, kasu ia gehienetan. Azkenik barneko akabera eratzeko pintura kapa bat aplikatzen da.

Etxebizitza barnetik termikoki isolatzeko sistema ohikoenak trasdosatu zuzeneko sistemak eta trasdosatu autosostengagarriko sistemak dira. Trasdosoatu zuzeneko sisteman isolatzaileak eta igeltsu ijeltuko plakak etxebizitzaren barneko hormetan zuzenean instalatzen den multzo bat osatzen dute. Trasdosoatu autosostengagarriko sistemetan aldiz, sostengu-egitura baten gainean finkatzen dira igeltsu ijeltuko plakak eta isolatzailea, plaka hauen eta etxebizitzaren barneko hormen artean instalatzen da (Ikusi 4.15. Irudia).



Trasdosoatu zuzeneko barne sistema.



Trasdosoatu autosostengagarriko barne sistema.


4.15. Irudia: Trasdosoatu bidezko barne sistemak. (Pladur)

Trasdosatu zuzeneko sistemen instalazioa, trasdosatu autosostengagarriko sistemekin alderatuta, askoz errazagoa da ez baita, esperientziarik behar sistema hauek egikaritzeko orduan (Ikusi 4.16. Irudia). Isolatzaileak eta igeltsu ijeltatu plakak osatzen duten multzoa zuzenean itsasten da etxebizitzaren barneko hormara. Gainera, sistema hauek trasdosatu autosostengagarriak baino merkeagoak dira.



4.16. Irudia: Trasdosatu zuzeneko sistemen instalazioa. (Isover)

Trasdosatu autosostengagarriko sistemak edozein euskarrian instalatu daitezke trasdosatu zuzeneko sistemak ez bezala. Trasdosatu autosostengagarriko sistemetan sostengu-egiturak ematen dio egonkortasun sistemari. Izan ere, sostengu-egitura hau barneko zein kanpoko forjatura finkatzen da. Halaber, sistema hauek kableatuaren ezkutatzea ahalbidetzen dute (Ikusi 4.17. Irudia).



4.17. Irudia: Kableatuaren ezkutatzea trasdosatu autosostengagarri sistemen bidez. (Pladur)

Bi sistemetan erabiltzen diren isolatzaile ohikoena poliuiretano hedatua (EPS), zuntz minerala (MW), poliuiretano estruitua (XPS) eta poliuiretano (PUR) proiektatuta edo xafalak dira. Erabiltzen den estaldura ohikoena igeltsu ijeltzuko plakak dira nahiez eta, batzuetan igeltsu "in situ" erabiltzen den. Azkenik, igeltsu ijeltzuen edo igeltsuaren gainean pintura kapa bat aplikatzen da, lehen komentatu den bezala.

Barneko isolamendu termikoen sistemek ondorengo abantailak dituzte (106):

- Edozein fatxadetan instalatu daiteke. Fatxadaren kanpoaldea ez da aldatzen hortaz, babestuta dauden eraikinen fatxadetan erabil daiteke sistema hau.
- Obraren egikaritzea ez da konplexua etxebizitzaren barnetik egiten baita. Hortaz, grabitate-istripuak egoteko arriskua baxua da. Gainera bakarrik behar da halako esperientzia edo ia inolakoa, erabiltzen den sistemaren arabera.

- Aldamioen erabilera ez da beharrezkoa, esku-hartzea etxebizitzaren barnetik egiten baita.
- Etxebizitzako barruko konfort akustikoa hobetzen da.
- Eraikinaren egituraren eta kanpoko fatxadaren aldaketarik ematen ez denez, ez da behar eraikinaren auzotar komunitatearen adostasuna esku-hartzea burutzeko.

Sistema huen desabantailak ondorengoak dira (106):


- Etxebizitzaren barruan espazio erabilgarria galtzen da, isolatzailea etxebizitzaren barneko hormetan instalatzen baita. Galtzen den espazio erabilgarria birgaitzean erabili den isolatzailearen lodieraren menpe dago.
- Obra etxebizitzaren barnean egiten da beraz, etxebizitza uztea era total edo partzialean beharrezkoa da, obra irauten duen bitartean. Gainera, etxebizitzako hormetara heltzeko oztopatzen duten altzariak mugitzea beharrezkoa da.
- Konponbide ez jarraia denez, isolamendua ez dago era jarrai batean jarrita itxituraren gainean, ez dira zubi-termikoak ekiditen. Hau dela eta, SATE eta fatxada aireztatuetan lortzen den aurrezte energetikoa eta konfort termikoa baino txikiagoa da.
- Nahiz eta konponbide merke bat izan, obraren amortizazio denbora kanpoko isolamendu termikoen sistema baino askoz handiagoa da. Izan ere, sistema hauekin Berogailu eta hotz-sistemen fakturan lortzen den aurrezpena gutxiago da.
- Ez da jatorrizko fatxadaren estetika edo itxura hobetzen, kanpoko fatxada aldatzen ez delako.
- Berogailu sistema eta sistema elektrikoaren birkonexioa.

Isolamendu sistema honen desabantailak kontuan izanda, sistema hau eraikinaren kanpoko itxura aldatu ezin denean, esku-hartzearekin lortzen den konfort termikoa eta energiaren aurrezte galtzen den espazio erabilgarriarekin konpentsatzen denean, bestelako lanak egingo direnean etxebizitzaren barnean edo erabilera ez iraunkorreko etxebizitzetan erabiltzea gomendatzen da.


#### **4.4. Aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak**

Aire-ganberaren barnetik isolatzeko sistema hauetan material isolatzaile bat injektatzen edo insuflatzen da eraikinaren aire-ganberaren barnean, honen efizientzia energetikoa hobetzeko helburuarekin. Injekzio prozesua isolatzaile aparra aire-ganberan injektatzean datza eta insuflazio prozesuan isolatzaile pikortatua injektatzen da. Eraikinak aire-ganbera bat bada eta hau eskuragarria bada, bi prozesuen esku-hartzea etxebizitzaren barnetik edo eraikinaren kanpotik egin daiteke.





**4.18. Irudia: Etxebizitzako barnealdetik Poliuretanoaren injekzioa fatxadaren aire-ganberan. (IPUR)**



**4.19. Irudia: Fatxadaren aire-ganberan insuflazioa. (Ecogreenhome)**

Isolamendu sistema hau kanpotik egiten diren isolamendu termikoen sistemak ezin direnean, erabili fatxada babestua dagoelako edo eraikinaren jabeen artean adostasun batera heldu ez denean erabiltzea gomendatzen da. Gainera, bakarrik gomendatzen da erabiltzea sistema hau etxebizitzaren barneko espazio erabilgarria galdu nahi ez denean, barnetik egindako isolamendu termikoen sistemen ondorioz. Hortaz, beste birgaitze konponbideak baztertu direnean aire-ganberan isolatzailea injektatzea edo insuflatzea burutzea baloratu daiteke.

Sistema honek arreta berezi bat behar du, bere egokitasunaren balorazioagatik eta bere egikaritzeagatik. Izan ere, bere egikaritzean zehar kontrol desberdinak egin behar dira. Egikaritzean zehar bete behar diren kontrol posibleak hauek dira (107):

- ✓ Aztertu eta konpondu beharrezkoa bada, barneko eta kanpoko hormak pitzadurak ekiditeko, junturretan akatsak edo hezetasunak izan ere, isolatzailearen injekzio prozesuan zehar erresistentzia murriztu dezakete.
- ✓ Existitzen den aire-ganberaren jarraipenaren egiaztapena eta honek injekzio prozesuan behar den lodiera minimoa duen egiaztatzea.
- ✓ Aire-ganberan kableatuak dauden begiratzea.

Hau dela eta, sistema hau orain arte ikusi diren sistemetatik doitasun eta espezializazio gehien behar duena da (107).

Sistema honen abantailak ondorengoak dira (107):

- Ez da kanpoko fatxada aldatzen hortaz, ez da jabeen arteko adostasunik behar.
- Isolatzailea aire-ganbararen barrutik injektatu edo insuflatzen denez, ez da espazio erabilgarririk galtzen etxebizitzaren barnetik.
- Esku-hartzea eraikinaren kanpotik egiten bada, ez da beharrezkoa etxebizitza uztea ez eta altzariak mugitzea hormetara heltzeko.
- Aipatutako sistema termikoetatik merkeena da.
- Ez dira ia hondakinik sortzen eta bakarrik beharrezkoa da isolatzeko materiala.

Sistemak hurrengo desabantailak ditu (107):

- Ez da bermatzen Itxituraren iragazgaitasuna.
- Konponbide ez jarraia denez, ez dira zubi-termikoak ekiditen, barnetik egindako isolamendu termikoen sistemetan gertatzen den bezala. Halaber, isolatzailearen lodiera aire-ganberaren lodieraren menpe dago. Hortaz, lortutako aurrezte energetikoa eta barneko konfort termikoa konponbide jarraietan lortzen dena baino askoz txikiagoa izango da. Izan ere, SATE eta fatxada aireztatuetan konponbide jarraiak izateaz gain isolatzailearen lodiera alda daiteke beharren arabera. Aire-ganberaren lodieraren arabera lortzen den aurrezte energetikoa barnetik egindako sistema termikoen sistemekin lortzen dena baino txikiagoa izan daiteke.
- Esku-hartzea eraikinaren kanpotik denean, aldamioren erabilera beharrezkoa da.
- Ez da jatorrizko fatxadaren estetika edo itxura hobetzen.
- Eroankortasun termikoaren eta hezetasunaren inguruan ezagutzak dituen lanesku kualifikatua behar da, instalazio zuzen bat burutzeko.
- Obraren amortizazio denbora altua da izan ere, nahiz eta konponbiderik merkeenatariko bat izan, berogailu eta hozte-sistemen fakturretan aurreztea lortzen den baxua da.
- Esku-hartzea barnetik denean, etxebizitza egonaldi labur batez utzi beharko da eta etxebizitzaren hormetara heltzeko altzariak mugitu beharko dira.

Sistema honen injekzio prozesuan erabiltzen den isolatzaile ohikoena poliuretano aparra (PUR) da. Insufrazio prozesuan aldiz, erabiltzen dituen isolatzaile ohikoek zuntz mineraleko noduluak (beira-zuntza edo harri-zuntza), EPS-a aleetan, zelulosa eta kortxoa dira.



Poliuretano-aparra  
(PUR)



Zuntz mineraleko  
noduluak



Zelulosa




Kortxoa

**4.20. Irudia: Aire-ganbera isolatzeko erabiltzen diren isolatzaile motak**

#### 4.5. Isolatzaile termikoak


Planteatu diren eraikuntzako konponbide guztietan funtsezko elementuetako bat isolatzaile termikoa da izan ere, hauek dituzten ezaugarri termikoek, lodiera txikietan, hotz edo bero galerak murrizten laguntzen dute. Hortaz, zalantzarik gabe isolatzaileen ezaugarri garrantzitsuenetako bat beraien eroankortasun termikoa baxua dela da. Ezaugarri horretaz aparte, isolatzaile bat aukeratzeko orduan beste irizpide batzuk izango dira kontuan: hezetasunaren aurkako portaera edo suaren aurkako erreakzioa, beste batzuen artean. Nahiz eta egoera konkretu batzuetan portaera hobea duten isolatzaileak existitu, ez da existitzen errekerimendu guztiak era zorrotzean betetzen dituen isolatzailearik. Oro har, irizpide batzuk haien artean baliogabetzen dira, konpresiorako erresistentzia altua eta zarataren aurkako isolamendu akustiko ona edo hedapenarekiko erresistentzia baxua eta hezetasunaren aurkako erresistentzia (108) adibidez.

Isolatzaile termikoek transmitantzia termikoa ( $U$ ) murrizten dute eraikinaren itxituren gainazalean zehar, eroankortasun termikoko ( $\lambda$ ) balio oso txikiak izanik. Hurrengo 4.1. Grafikoan eraikuntzan erabiltzen diren zenbait materialen eroankortasun termikoko balio maximoak eta minimoak ikus daitezke. Isolatzaileen eroankortasun termikoa beste materialena baino askoz txikiagoa da (109).




4.1. Grafikoa: Eraikuntzako zenbait materialen eroankortasun termikoa  
Iturria: Propioa, AIPEX-en datuen bidez

Hurrengo 4.2. Grafikoan, merkatuan erabiltzen diren isolatzaileen eroankortasun termikoen balio maximo eta minimoak adierazita daude. Grafiko horretan ikus daitezke isolatzaileen eroankortasun termikoko balio minimoa 0,02 eta 0,05 W/mK balioen artean dagoela. Hortaz, honek adierazi nahi du isolatzaile batekin edo beste batekin portaera termiko berdina izateko isolatzailearen plakaren lodiera aldatu behar dela.



**4.2. Grafikoa: Zenbait isolatzaileen eroankortasun termikoa**  
Iturria: Propioa, "Insulating Materials"(108) datuen bidez


Halaber, zelulazko apar organikoak osatutako isolatzailek beraien egituraren barruan aire edo beste eroankortasun baxuko gasak gordetzen dituzte. Hortaz, isolatzaile mota hauetan bero-transferentzia konbekzio, kondukzio eta erradiazio bidez izan daitekeela kontuan hartu behar da. Aparra osatzen duten zelulen tamaina minimoa denez, konbekzioa ez da antzematen. Zenbat eta plastikozko materia gutxiago izan aparrean, orduan eta txikiagoa izango da kondukzioz ematen den beroa baina, erradiazioa handituko da xurgatuko duen materia txikitzen bada. Baina kontrako kasua gerta daiteke hau da, zenbat eta materia gehiago, orduan eta kondukzio gehiago eta erradiazio gutxiago. Mota honetako isolatzaileentzako konponbidea eroankortasun minimo bat zehaztea da, hurrengo 4.3. Grafikoan ikus daitekeen bezala. Grafiko honetan eroankortasun termikoaren balioa adierazita dago dentsitatearen arabera. Dentsitate baxua  $25 \text{ Kg/m}^3$  balioak baino txikiagoak izango da eta dentsitate altua  $50 \text{ Kg/m}^3$  baliotik aurrera.



**4.3. Grafikoa: λ-ren balioak dentsitatearen funtziopean (isolatzaile apar organikoak)**  
Iturria: Propioa, AIPEx-en datuen bidez

Isolatzailen ezaugarri termikoez gain, hezetasunaren aurrean daukaten portaera ere kontuan hartu behar da. Portaera hau zehazteko saiakuntza desberdinak egin daitezke hala nola, UNE EN 12088 (lurrun hedapena bidezko xurgapena), UNE EN 12091 (izotz-urtze zikloetan xurgapena) edo UNE EN 12086 (lurrun hedapenarekiko erresistentzia). Saiakuntza guzti hauetan ondorioztatu da lortutako emaitzak produktuaren prestazioen iraupena eta isolatzaileetan ur xurgapenak dakarren zahartze azkarra zehazteko erabili daitezkeela, isolatzailearen baldintza errealak kuantifikatzeko baino (109).

Lurrun hedapenarekiko erresistentzia ( $\mu$ ) isolatzaile batek bere ezaugarri termikoak galdu gabe eta kondentsazio interstizialak agertu arte xurga dezakeen hezetasun kantitatea adierazten du. Hurrengo 4.4. Grafikoan, zenbait isolatzaile termikoen lurrun hedapenarekiko erresistentziaren balioak ikus daitezke. Grafikoari erreparatuz, zuntz minerala beste isolatzaileekin alderatuz lurrun hedapenarekiko erresistentzia baxuen duen isolatzailea da. Hortaz, zuntz mineralaren portaera hezetasunaren aurrean bestea baino txarragoa izango da.



4.4. Grafikoa: Zenbait isolatzaile termikoen lurrun hedapenarekiko erresistentzia  
Iturria: Propioa, "Insulating Materials"(108) datuen bidez

Isolatzailak aukeratzeko orduan, isolatzaileek suarekiko duten erreakzio kontuan hartu beharreko beste faktore bat da. Erreakzio hau isolatzaile bakoitzak daukan Euroklasearen bidez zehazten da. Euroklaseak eraikuntzako produktuak eta elementuak sailkatzen ditu UNE-EN 13501-1 (110) arauan zehazten diren saiakuntzetatik lortutako suaren aurkako portaerako emaitzen funtziopean. Arau horren arabera, hormetarako eta sabaietarako Euroklasearen sailkapena hurrengo da:

#### 4. Kapitulu

Euroklasea		Isolatzaile mota
A1	Erregaitza. Ez du suan ekarpenik.	Isolatzaile inorganikoak
A2	Erregaitza. Ez du suan ekarpenik.	
B	Erregaia. Suan daukan ekarpena oso mugatua da.	Isolatzaile organikoak
C	Erregaia. Suan daukan ekarpena mugatua da..	
D	Erregaia. Suan daukan ekarpena ertaina da.	
E	Erregaia. Suan daukan ekarpena altua da.	
F	Sailkatu gabe. Portaera ez zehaztuta.	

4.1. Taula: Hormetarako eta sabaietarako Euroklasea UNE-EN13501-1 araua eta isolatzaile moten arabera

Euroklasearen bidez kearen opakutasuna eta tanten/partikulen erortzea ere zehaztu daiteke.

Kearen opakutasunaren adierazlea	
Euroklase	
s1	Ke-kantitate txikia sortzen da.
s2	Ke-kantitate ertaina sortzen da
s3	Ke-kantitate altua sortzen da
Tanten/partikulen erortzearen adierazlea	
Euroklase	
d0	Ez dira sortzen tantak/partikulak.
d1	Tanta/partikula ez sukoi erorketa
d2	Tanta/partikula sukoi erorketa.

4.2. Taula: Hormetarako eta sabaietarako Euroklaseko osagarriak UNE-EN13501-1 auraren arabera

Isolatzaileak haien jatorriaren arabera sailkatu daitezke. Gainera, UNE arauen bidez eraikuntzan isolamendu termikorako erabiltzen diren isolatzaile desberdinek bete behar dituzten zehaztasunak zehazten dira (ikusi 4.3. Taula). Arau hauetan produktuaren ezaugarriak deskribatzen dira eta saiakuntza metodoak, adostasuna ebaluazioko metodoak, markaketa metodoak eta etiketatze metodoak zehazten dira.

Isolatzaile motak		UNE araua	
Inorganikoa	Sintetikoa	Zuntz minerala (MW)	UNE EN 13162: 2013
		Beira zelularra (CG)	UNE EN 13167: 2013
	Naturala	Perlita hedatua (EPB)	UNE EN 13169:2013
Organikoa	Sintetikoa	Poliestireno hedatua (EPS)	UNE EN 13163: 2013
		Poliestireno estructuretua (XPS)	UNE EN 13164: 2014
		Poliuretanozko apar zurruna (PUR)	UNE EN 13165: 2013
		Apar fenolika (PF).	UNE EN 13166: 2013
	Naturala	Kortxo (ICB)	UNE EN 13170: 2013
		Egurrezko zuntza (WF)	UNE EN 13171: 2013
		Egur-ilea (WW)	UNE EN 13168: 2013

4.3. Taula: Isolatzaileen UNE arauak eta sailkapena beraien jatorria kontua izanda

Kontuan hartuta kapitulu honetan komentatu diren birgaitze sistemetan ikusi diren isolatzaile desberdinak, jarraian hauetako bakoitza laburki deskribatuko da.

#### 4.5.1. Zuntz minerala (MW)

Zuntz minerala material inorganikoa eta sintetikoa da izan ere, bere fabrikazioan erabiltzen diren zuntzak lortzeko mineral inorganikoak urtzen dira. Zuntz hauek norabide desberdinetan lotzen dira elkarrekin egitura malgu eta ireki bat sortuz. Egitura horrek bere barnean geldirik dagoen airea dauka.



4.21. Irudia: Zuntz mineraleko isolatzaileak. (Kovertec)

Material honek kalitate termiko altua eskaintzen du, bere barneko egiturak airea geldirik mantentzen baitu. Ezaugarri akustiko onak ditu, egituraren malgutasunaren ondorioz eta suaren aurka daukan portaera oso ona da, jatorri inorganikoko materiala delako. Baina lurrun hedapenarekiko duen erresistentzia oso baxua da, porositate irekia duen material bat delako eta hortaz, bere barnean ur likidua gorde dezake (111).

Zuntz minerala fabrikatzerako orduan, erabiltzen den mineral organikoa kontuan izanda bi zuntz mineral mota existitzen dira: Harri-zuntza eta beira-zuntza. Harri-zuntzaren lehengaia harri basaltikoa da eta beira-zuntzean aldiz, silize-harea eta beira birziklatua.




4.22. Irudia: Harri-zuntza. (Rockwool)




4.23. Irudia: Beira-zuntza. (Isover)

Harri-zuntzaren eta beira-zuntzaren fabrikazio prozesuak ia berdinak dira, salbu fabrikazio prozesuan erabiltzen diren lehengaiak desberdinak direla, hurrengo 4.24. Irudian eta 4.25. Irudian konprobatu daitekeen bezala.

#### 4. Kapituluua



4.24. Irudia: Harri-zuntzaren fabrikazio prozesua. (AFELMA).



4.25. Irudia: Beira-zuntzaren fabrikazio prozesua. (AFELMA).

Ikuspuntu ekologikotik, zuntz mineralaren abantaila bat lehengai eskuratzeko dagoen erraztasuna da, eta beste bat lehengaiaren garraiorako dagoen distantzia motza dela. 1 m<sup>3</sup>-ko lehengai kantitatearekin gutxi gorabehera 100 m<sup>3</sup>-ko harri-zuntza fabrikatu daiteke (108). Halaber, zuntz minerala kasik berriztagarria da edo berrerabili daiteke. Zuntz mineralaren fabrikazioan sortutako hondakinak berrerabili daitezke fabrikazio prozesuan edo adreilu edo buztinezko teilak fabrikatzeko behar diren gehigarri bezala erabili daitezke (108).

Hurrengo 4.4. Taulan, zuntz mineralaren ezaugarri nagusienak ikus daitezke:

Mota	Dentsitatea (Kg/m <sup>3</sup> )	Eroankortasun termikoa (W/mK)	Euroklasea	Lurrun hedapenarekiko erresistentzia (μ)
Harri-zuntza	15-150	0,035-0,045	A1, A2	1-2
Beira-zuntza	20-200	0,035-0,045	A1	1-2

4.4. Taula: Harri-zuntzaren eta beira-zuntzaren ezaugarri nagusienak (108)

Aurretik komentatu den bezala, zuntz mineralak eraikinen birgaitzean erabilera desberdinak ditu. Isolatzaile hau kanpotik egindako isolamendu termikoen sistemetan erabili daiteke bai SATE sistemetan eta bai fatxada aireztatuetan, ere erabili daiteke barnetik egindako isolamendu termikoen sistemetan eta aire-ganberan insuflatutako sistemetan. (Ikusi 4.5. Taula).


Aplikazioak	Formatua
SATE sistemak	Panela
Fatxada aireztatutako sistemak	Panela
Barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak	Erroiua/panela
Aire-ganberan insuflatutako	Soltean (noduluak)

4.5. Taula: Zuntz mineralaren aplikazioak eta formatuak



#### 4.5.2. Poliestireno hedatua (EPS)

Poliestireno hedatua (EPS) material organiko eta sintetikoa da eta hedagarria den poliestireno erabiliz fabrikatzen da. Lehengai hau aleetan dagoen material bat da eta bere barnean hedatzen den agente bat du.




4.26. Irudia: Poliestireno zabaldua (EPS)

EPS-a era honetan definitzen da: material plastiko zelularra eta zurruna non, aurretik hedatuta dagoen poliestireno hedagagarrri, edo bere kopolimero bat, perlen moldekatzetik fabrikatua eta bere barnean airez beteta dagoen egitura zelular itxia bat daukan (111).

Material arina da eta ezaugarri termiko onak ditu, bere egitura zelularra delako. Baina material organiko bat denez, suaren aurkako erreakzioa ez da ona.


Hurrengo 4.27. Irudian, EPS-aren fabrikazio prozesua zein den ikus daiteke. Fabrikazio prozesua hiru etapetan egiten da: aurretiko hedapena, tarteko geldialdia eta egonkortzea eta azkenengo etapan hedapena eta bukaerako moldekatzea.



4.27. Irudia: EPS-aren transformazioaren eskema. (ANAPE)

#### 4. Kapituluia

EPS-a %100ena birziklatu daiteken material bat da eta bere aplikazioaren arabera erraz berreskuratu daiteke. Material honek sortzen dituen hondakinekin aprobetxamendu energetikoa lortu daiteke.



4.28. Irudia: EPS-aren birziklatze prozesuaren eskema. (AIMSA)

Ondoren EPS-aren ezaugarri nagusienak, hurrengo 4.6. Taulan laburtuak ikus daitezke.

Mota	Dentsitatea (Kg/m <sup>3</sup> )	Eroankortasun termikoa (W/mK)	Euroklasea	Lurrun hedapenarekiko erresistentzia (μ)
EPS	15-30	0,032-0,040	E	20-100

4.6. Taula: EPS-aren ezaugarri nagusienak (108)


Eraikinen birgaitzearen inguruan material isolatzaile honek dituen aplikazioak oparoak dira, hurrengo 4.7. Taulan ikus daitezkeen bezala.

Aplikazioak	Formatua
SATE sistemak	Panela
Fatxada aireztatutako sistemak	Panela
Barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak	Panela
Aire-ganberan insuflatutako	Soltean

4.7. Taula: EPS-aren aplikazioak eta formatuak


### 4.5.3. Poliestireno estructuretua (XPS)

Poliestireno estructuretua jatorri organiko eta sintetikoaren duen aparturaren bat da. Material hau termo-plastikoa da eta bere barneko egitura zelularra eta itxia da (Ikusi 4.29. Irudia). Bere egitura itxia denez, ezaugarri termiko onak dituen material bat da. Material honek ezaugarri mekanikoak ere onak ditu, bere egituraren duen zurruntasun altuagatik. Lurraren hedapenarekiko duen erresistentzia ere ona da. Baina jatorri organikoaren duen material bat denez, ez du suaren aurkako erreakzio ona.



4.29. Irudia: XPS xafla eta egitura zelularra. (Aipex)

XPS-aren fabrikazio prozesua lau etapetan banatzen da, hurrengo 4.30. Irudian ikus daitezkeen bezala.



4.30. Irudia: XPS-aren fabrikazio prozesua. (URSA).

Ikuspuntu ekologikotik, hedapen agente bezala CO<sub>2</sub>-a bakarrik erabiltzea gomendatzen da HFC-aren (hidrofluorokarburuak) ordez izan ere, XPS-a fabrikatzeko behar den CO<sub>2</sub> kantitatea ia gehienetan, sei hilabeteetan berogailu eskarian aurrezten den CO<sub>2</sub>-aren baliokidea da (108). Halaber, XPS-a %100an berrerabilgarria da. Gainera, material honen errekuntzaren bidez hondakinen errausketa plantetan energia sortu daiteke.

Komentatu diren ezaugarriez gain, XPS material isolatzailearen ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

Mota	Dentsitatea (Kg/m <sup>3</sup> )	Eroankortasun termikoa (W/mK)	Euroklasea	Lurrun hedapenarekiko erresistentzia (μ)
XPS	25-45	0,030-0,040	E	80-200

4.8. Taula: XPS-aren ezaugarri nagusienak (108)

Hurrengo 4.9. Taulan, eraikinen birgaitzeen inguruan material honek dituen aplikazioak ikus daitezke.

Aplikazioak	Formatua
SATE sistemak	Panela
Fatxada aireztatutako sistemak	Panela
Barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak	Panela

4.9. Taula: EPS-aren aplikazioak eta formatuak

#### 4.5.4. Poliuretano proiektatuta (PUR)

Poliuretanoa jatorri organikoa eta sintetikoa duen material bata da eta material plastiko batez osatua dago. Aire burbuila baten bidez eratzen denez, material porotsua da. Poliuretano apar zurruna (PUR) bi osagaien erreakzioaren bidez fabrikatzen da (Ikusi 4.31. Irudia). Apar zurrun honek ezaugarri termiko, akustiko eta ezaugarri iragazgaitza onak ditu.



4.31. Irudia: Poliuretanoaren prozesua. (ATEPA)

Poliuretanoaren fabrikazio prozesuaren arabera, hiru produktu existitzen dira (108):


- Poliuretano proiektatuta. "In situ" aplikatzen da proiektatuz.
- Poliuretano injektatuta. "In situ" aplikatzen da injektatuz.
- Poliuretano zurrunekeo panela. Espumazio kontrolatu prozesu baten bidez fabrikatzen da.



4.32. Irudia: Poliuretano proiektatuta. (ATEPA)



4.33. Irudia: Poliuretano injektatuta. (ATEPA)



4.34. Irudia: Poliuretano zurruneko panela. (IPUR)

Hondatuta ez dauden poliuretano panelak berrerabili daitezke, gainera produktu berriak eratzeko birziklatu daiteke. Poliuretano proiektatuta edo injektatuta kasuetan aparra kentzea lan neketsua eta garestia da hau dela eta, kasu hauetan aukerarik onena erraustea da energia sortzeko (108).

Poliuretanoaren apar zurrunak (PUR) ondorengo ezaugarriak ditu:

Mota	Dentsitatea (Kg/m <sup>3</sup> )	Eroankortasun termikoa (W/mK)	Euroklasea	Lurrun hedapenarekiko erresistentzia (μ)
Panela (PUR)	30-100	0,024-0,030	C, s3-d0	30-200
Proiektatuta/injektatuta (PUR)	35-65	0,030	C, s3-d0	60-110

4.10. Taula: Poliuretanoaren apar zurrunaren ezaugarri nagusienak (108)

Apar zurrun (PUR) honek eraikinen birgaitzean aplikazio desberdinak ditu, hurrengo 4.11. Taulan ikus daitekeen bezala.

Aplikazioak	Formatua
SATE sistemak	Proiektatuta/Panela
Fatxada aireztatutako sistemak	Proiektatuta/Panela
Barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak	Proiektatuta/Panela
Aire-ganberan insuflatutako	Injektatuta

4.11. Taula: PUR-aren aplikazioak eta formatuak

#### 4.5.5. Kortxoa (ICB)

Kortxoa jatorri organiko eta naturala duen material bat da. Material honen lehengai artelatzen azala da, baliabide natural eta berriztagarria delarik.



4.35. Irudia: Artelatzaren azala. (Aísla en verde)

Kortxoaren (ICB, insulation cork board) egitura zelularra eta porotsua denez, isolatzaile akustiko eta termiko ona da. Baina bere jatorria organikoa denez, ez du portaera ona suaren aurrean.

Kortxoak eraikinen birgaitzeen metodoetan duen aplikazioa kontuan hartuta, bi formatu izan ditzake, bata panela eta bestea alea.



4.36. Irudia: Kortxo panela eta kortxo aleak. (BCK)

Material biodegradagarria da eta %100ean birziklagarria. Tratamendurik gabeko kortxoak kortxo aleak edo panel berri bat eratzeko erabil daitezke.

Kortxoaren (ICB) ezaugarri nagusienak hurrengo 4.12. Taulan ikus daitezke.

Mota	Dentsitatea (Kg/m <sup>3</sup> )	Eroankortasun termikoa (W/mK)	Euroklasea	Lurrun hedapenarekiko erresistentzia (μ)
Panela	100-220	0,045-0,060	E	5-10
Alea	60-76			2-8

4.12. Taula: Kortxoaren (ICB) ezaugarriak (108)

Hurrengo 4.13. Taulan, fatxaden birgaitze metodoetan kortxoak dituen aplikazioak ikus daitezke.



#### 4. Kapitula

Hurrengo 4.14. Taulan, egurrezko zuntzaren ezaugarri nagusienak zeintzuk diren adierazten dira.

Mota	Dentsitatea (Kg/m <sup>3</sup> )	Eroankortasun termikoa (W/mK)	Euroklasea	Lurrin hedapenarekiko erresistentzia (μ)
Taula	40-270	0,040-0,090	E	5-10
Insuflatzeko	30-60			1-2

4.14. Taula: Egurrezko zuntzaren (WF) ezaugarriak (108)

Fatxaden birgaitze sistemetan egurrezko zuntz isolatzaileak aplikazio desberdinak ditu eta aplikazioaren arabera formatu desberdinetan fabrikatuko da, hurrengo ikus daitezkeen bezala.

Aplikazioak	Formatua
SATE sistemak	Taula
Fatxada aireztatutako sistemak	Taula
Barnetik egindako isolamendu termikoen sistemak	Taula
Aire-ganberan insuflatutako	Aleak

4.15. Taula: Egurrezko zuntzaren aplikazioak eta formatuak

#### 4.5.7. Beste material batzuk

Merkatuan eraikinen birgaitzean erabili daitezkeen eta aurretik ikusi ez diren beste material isolatzaile termiko batzuk existitzen dira baina, material hauek ez daude UNE arau baten bidez arautuak.

Hurrengo 4.16. Taulan<sup>9</sup>, araututa ez dauden baina eraikuntzan isolatzaile termiko bezala erabili daitezkeen materialen laburpen bat ikus daitezke.

Isolatzailea	Dentsitatea [Kg/m <sup>3</sup> ]	Eroankortasun termikoa λ [w/mK]	Aplikazioa	Beste ezaugarri batzuk
Zelulosa zuntzak	30-80	0.04-0.045	Aire-ganberan insuflatuta.	Material organiko naturala. Euroklasea: E Hezetasunaren aurka babestu behar da. Azido eta alkalinoei ez da erresistentea. Lehengaia garraiatzeko ibilbide laburrak.

<sup>9</sup> Taula hau eratzeko "Insulating materials. Principles, materials, applications"(108) liburuan dauden datu teknikoak erabili dira.



Aerogel	60-80	0.017-0.021	Kanpotik isolatzeko.	Material inorganiko sintetikoa. Isolatzaile akustiko bikaina. Denbora luzeetan zehar ezaugarriak egonkor mantentzen dira. Material garestia.
Kotoia	20-60	0.040	Kanpotik isolatzeko.	Material organiko naturala. Isolatzaile akustiko ona. Ez da lizunarekiko erresistentea.
Apar-harria	150-230	0.060-0.080	Kanpotik isolatzeko.	Material inorganiko naturala. Euroklasea: A1 Ez da aritzen isolatzaile tekniko bezala paper adierazgarrian.
Beira-aparra	150-230	0.07-0.093	Aire-ganberaren barnean.	Material inorganiko sintetikoa. Euroklasea: A1 Birziklatutako materiala eta berriro erabil daitekeena. Ekoizpeneko energia-kontsumo altua da baina konpentsatzen du garraioan dauden aurrezkiekin.
Buztin hedatua	260-500	0.085-0.1	Barnetik isolatzeko.	Material inorganiko naturala. Euroklasea: A1 Hezetasun kantitate handia xurga dezake.
Lihoa	20-80	0.037-0.045	Barnetik isolatzeko.	Material organiko naturala. Euroklasea: B-C Ez dauka substantzia arriskutsurik eta birziklagarria da konpostajearen edo zuzeneko berrerabilpenaren bitartez.
Kalamua	20-68	0.04-0.05	Barnetik isolatzeko.	Material organiko naturala. Euroklasea: E Egonkortasun dimentsionala eta filtroaren malgutasuna eta erresilientzia hobetzeko poliesterreko zuntzak gehitu ohi dira. Isolatzaile akustiko ona. Lizunarekiko erresistentzia saiakuntza bidez frogatua.

#### 4. Kapituluia

Kaltzio silikatoaren aparra	115-300	0.045-0.065	Barnetik eta kanpotik isolatzeko.	Material inorganiko sintetikoa. Euroklasea: A1,A2 Plaketan hornitzen da eta hezetasuna xurgatzen du. Gainera, lizunaren hazkundera eragozten du. Ekoizpenak energia-kantitate nahiko altua eskatzen du. Materiala berrerabiltzea erraza da.
Koko-zuntza	70-120	0.04-0.05	Barnetik, kanpotik eta aire-ganberaren barnetik isolatzeko.	Material organiko naturala. Isolatzaile akustiko ona. Lehengai berriztagarri honen onura ekologikoak, distantzia luzeekin kontrajartzen dira Asiako Hego-Ekialdetik garraiatu behar baita.
Melanina-aparra (MF)	8-11	0.035	Barnetik isolatzeko.	Material organiko sintetikoa. Soinua moteltzeko ahalmen handia.
Fenol-aparra (PF)	40	0.022-0.04	Barnetik, kanpotik eta aire-ganberaren barnetik isolatzeko.	Material organiko sintetikoa. Euroklasea: C Produktu kimikoen, intsektuen edo karraskarien aurkako erresistentzia ona. Sandwich motatako elementuetan erabilia.
Poliester-zuntzak	15-20	0.035-0.045	Aire-ganberaren barnean.	Material organiko sintetikoa. Gutxitan isolatzaile termiko bezala erabilia. Ez da toxikoa eta ez du alergia-eragiten. Produktu kimikoen, intsektuen edo karraskarien aurkako erresistentzia ona. Ikatzak baino berotze-ahalmen handiagoa du hortaz, errausteko egokia da.
Ardi-artilea	25-30	0.04-0.06	Barnetik eta kanpotik isolatzeko.	Material organiko naturala. Euroklasea: E Produktu natural honen onura ekologikoak kontrajartzen dira, ekoizpenean erabilitako garbiketa-agenteetako kantitate handiarekin.
Kanabera	120-225	0.055-0.09	Kanpotik isolatzeko.	Material organiko naturala. Ekoizpenerako behar den energia baxua da. Konposta edo berrerabil daiteke.

Buztin-adreilu isolatzailea	500-750	0.08-0.14	Kanpotik isolatzeko.	Material inorganiko naturala. Euroklasea: A1 Betegarri-material bezala hedatutako perlita erabiltzen da.
Bernikulita esfoliatua (EV) eta mika hedatua	70-160	0.046-0.07	Barnetik, kanpotik eta aire-ganberaren barnetik isolatzeko.	Material inorganiko sintetikoak. Euroklasea: A1 Isolatzaile akustiko ona. Ez dira material ustel bat, azido eta alkalinoei erresistenteak dira. Ez dute osasunerako arriskurik sortzen.

4.16. Taula: Beste material isolatzaile batzuk

## 4.6. Eraikuntzako konponbide nobedosoenak

Ondoren, eraikinaren isolamendu termikoa hobetzeko eraikuntza konponbide batzuk aurkeztuko dira. Konponbide hauek ohiko eta erabilera orokorreko konponbideetatik bereizten dira. Eraikuntzako konponbide berritzaile hauetako batzuk praktikara eraman dira eta kasu ia gehienetan, ikerketa eta analisi arrazoi dira. Halaber, material nobedoso batzuk zehaztuko dira non, dituzten ezaugarri termiko altuengatik eraikinen birgaitzean edo obra berrietan isolatzaile termiko bezala erabil daitezkeela.

### 4.6.1. Landare-fatxadak


Landare-fatxada edo fatxada berdea landare-estaldura bat duen fatxada aireztatu bat da. Eraikinaren inguratzaileko erabiltzen den landarediak isolamendu organiko eraginkorra bat bezala jokatzeko du, konfort termikoa hobetuz. Gainera, gainberotzearen kontra babesten du inguratzailea, hozte-sistemen eskarian aurrezteko lortuz (112). Fatxada aireztatu bat denez, fatxada hauen abantaila berak ditu baina desberdintasun batekin, landare-fatxaden bitartez airearen kalitatea hobentzen dela. Hobekuntza hau lortzen da fotosintesi-prozesuaren ondorio bezala eta airean dauden substantzia kutsatzaile batzuk bere sustraietan finkatzeko ahalmenengatik (113).

Espanian oso ohiko ez den praktika bat da, bakarrik jasagarritasun-irizpideen azpian diseinatutako eraikin berezietan erabiltzen delarik. Gasteizko Europa Biltzar Jauregiaren kasuan bezala (ikus 4.39. Irudia). Eraikin hau 1988 urtean eraiki zen eta hiri horretako udalak birgaitu zuen 2010/31 EU Zuzentarau Europarrarekin betetzeko. Zuzentarau honek 2019 urterako udal-eraikin guztiak "Energia-kontsumo ia nuluko eraikinak" izan behar dutela zehazten du.



4.39. Irudia: Gasteizko Europa Biltzar Jauregiko landare-fatxada. (Gasteizko udala)

Sistema 200 mm-ko lodiera duen egurrezko zuntz isolatzailea eta landare-estaldura duen fatxada aireztatu bat da (ikusi 4.40. Irudia). Honela, eraikinaren eraginkortasun energetikoa eta akustikoa hobetu da. Transmitantzia termikoa  $0,45 \text{ W/m}^2\text{C}$ -tik  $0,13 \text{ W/m}^2\text{C}$ -ra murriztu da. Honek fatxadaren inguratzailetik galtzen den bero kantitatearen heren bat baino gehiagoko jaistea ekarri du eta bero eta hozte sistemen eskaeran %60ko aurreztea (114).



4.40. Irudia: Lorategi bertikaleko sistemaren eraikuntza-sekzioa. (Urbanarbolismo)

### 4.6.2. Aldamiorik gabe eta metalezko lamen bidezko fatxada aireztatu

Eraikuntzako sistema hau lan bertikalak egiten dituen ASAKEN enpresak eta BAT arkitektura estudioak garatu dute. Eraikuntzako konponbide hau 2014 urtean Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako berrikuntza-proiektuaren eremuan garatu da.

Sistema hau fatxada aireztatu bat da. Baina kasu honetan, errezel-hormetan erabilitako antzeko perfil bertikalen luzetarako arteketan aluminiozko lamak sartzeko dira, sartze hau pertsiana eran egiten delarik. Lama hauek isolatzaile bat izan dezakete bere barnean, isolamendu multzoa hobetuz. Duten geometriaren ondorioz, haien artean lotuta daude horrela lotuta eta biribilduta eraman daitezke obra burutzen ari den lekura. Sistema honetako lamak perfilen arteketatik sartzeko dira eraikinaren estalkiaren zona hurbil batean jartzen den trakzio sistema bat erabiliz. Trakzio sistema honek minutu gutxitan itxitura jarraituaren zatiak igotzen ditu lurretik teilatu-hegalera (ikusi 4.41. Irudia).



4.41. Irudia: Eraikuntzako konponbidearen eskema eta adibide bat. (ASAKEN)

Eraikuntzako konponbide honen bidez, fatxada mota honetako egikaritze denbora eta eraikinaren erabiltzaileei edo maizterrei sortutako eragozpenak era nabarmenean murriztu daitezke. Izan ere, sistema honetan beti eraikinaren kanpotik eta kanpotik aldamiarik jarri gabe lan egiten da. Aldamioak eraikinaren kanpotik jartzeak, ez jartzek baino segurtasun-gabezia handiagoa sortzen du eraikineko erabiltzaileentzat, eragozpen handiagoak eta bere muntaketan eta desmuntatzean zarata gehiago sortzen du.


#### 4.6.3. Hutseko isolamendu panela (VIP, Vacuum Insulation Panel)

Hutseko isolamendu panelak (VIP) gasei hermetikoa den karkasa bat eta nukleo zurruna bat, nondik airea kanporatu den panelaren barnean hutsa sortuz, dauka. Panelak barnera airea sar ez dadin mintz-hormez, oso porotsua den barne panel zurrun batez, eta hutsa sortzeko eta handitzeko produktu kimiko (aerogel) batez osatuta daude.



4.42. Irudia: Hutseko isolamendu panela (VIP) (108)

Panel hauek izugarri efikazak diren elementu prefabrikatuak dira hau dela eta, isolatzaile termikoak bezala erabiltzen dira. Ikaragarri baxua den eroankortasun termikoa  $0,002-0,008 \text{ W/mK}$  dute, ohiko isolatzaileak baino 5 edo 10 aldiz txikiagoa. Baina eroankortasun termikoko balio hauek urteak pasatu ahala handituz doaz, panelean ezin baita hutsa iraunkorki mantendu. Honen ondorioz, teorikoki 25 urte pasa ondoren eroankortasun termikoaren gutxi gorabeherako balioak  $0,008-0,014 \text{ W/mK}$  izatera pasa daitezke (108). Hala ere, balio hauek ohiko isolatzaileenak baino askoz txikiago izaten jarraitzen dute.




**4.43. Irudia: Ohiko eta VIP isolatzaileek duten lodieraren arteko konparaketa**

Material honen prezioa altua da baina, ohiko isolatzaileak baino lodiera askoz txikiagoa dutenez, isolatzailearen kapa lodietarako beharrezkoa den espaziorik ez dagoenen erabiltzeko aproposak dira (108).

#### **4.6.4. Fase-aldaketa duten materialak (PCM, Phase Change Materials)**


Fase-aldaketa duten materialak (PCM) bero sor eran termikoki biltegitzeko duten ahalmenagatik bereizten dira. Honek, eraikinaren termikoki biltegitzeko duen ahalmenaren handitzea dakar, panelaren bolumena edo pisua ia aldatu gabe. Azken honen ondorioz, eraikuntza arinak lor daitezke. Halaber, eraikinen birgaitzean erabil daitezke nahi den edo zehaztu den konfort termikoa eta kontsumo energetikoaren murrizketa lortzeko.

Hiru taldeetan sailkatu daitezke fase-aldaketaren egoeraren arabera: Solido-solido, solido-likido eta likido-gasa. Energia termikoa biltegitzeko solido-likido PCM-ko fase-aldaketakoak dira egokienak (115). Tenperatura jaistean PCM-a egoera likidotik egoera solidora pasatzen da ingurura energia bueltatuz eta tenperatura igotzean energia xurgatzen du pasatzean egoera solidotik likidora, bere bolumena aldatu gabe. Material hauek parafina bezalako material organikoz, metala bezalako material inorganikoz edo material eutektikoez osa daitezke.



4.44. Irudia: Igeltsu ijertuko panela PCM mikro kapsulatuarekin. (BASF)

Fusio-tenperatura eta fase aldaketako entalpia kontuan hartuta, PCM desberdinak existitzen dira, hurrengo 4.45. Irudian adierazten den bezala. Fusio-tenperaturaren ikuspuntutik, eraikuntzan aplikatzeko PCM material onenak parafina, azido koipetsuak, gatz hidratatuak eta eutektiko nahasketak dira (115).




4.45. Irudia: Existitzen diren PCM desberdinen fusio-tenperatura eta entalpia (115)

Nahastutako parafina batek 23°C-tan aldatzen du fasez eta fase aldaketako bero sorra 188KJ/kg-koa da, adreilu trinkoko horma batean biltegitratutakoa baino sei aldiz eraginkorragoa izanik. Gainera, adreilu trinkoko horman biltegitratzen den bero sentikorra tenperatura aldakorrean deskargatzen da (116).

#### 4.6.5. Nanozelula-aparrak

Apar isolatzaile baten ezaugarri termikoak osatzen duten zelulen tamainarekin erlazionatuta daude. Honen egitura zelularra zenbat eta txikiago eta meheago izan, orduan eta zelulen arteko konbektzio bidezko bero transferentzia txikiagoa izango da. Hau dela eta, eskala nanometrikoa duten zelula-aparrak garatzen ari dira.



**4.46. Irudia: Poliestireno-apar (ezkerra) eta Poliestireno-apar nanozelularra (eskuma) (117)**

Nanozelula-aparraren (nanocellular foams) eroankortasun termikoa %50 baino gehiagoan hobetu daiteke ohiko isolatzaileekin alderatuz. Hortaz, ohiko isolatzaileek dute eroankortasun termikoko balioetara heltzeko apar hauen lodiera ohiko isolatzaileen lodieraren erdia baino gutxiago izan beharko zen, ohiko lodierekin konparatuta (108).

Material hau garapenean dago baino, merkatutik bultzatutako eskaera dela eta lehengo nanozelular-aparrak hurbileko etorkizunean merkatura daitezela espero da. Izan ere, aerogeekin edo VIP materialekin konparatuta apar hauek aukera merkeago bat da (117).



## **5. Kapituluua: METODOLOGIAREN EZARPENA**

### 5.1. Sarrera

3. Kapitulan komentatu den bezala, EAE-ko etxebizitza parkea zaharra da. Etxebizitza kopuru handi bat energetikoki pobreak dira. Izan ere, etxebizitza hauek ez dute inolako isolamendurik edo zenbait isolamendua dute, baina etxebizitzek ez dute efizientzia energetikoaren inguruan EKT-an ezartzen diren exijentzia minimoak betetzen. Efizientzia energetikoaren inguruko exijentziak aldatuz joan dira geroz eta zorrotzagoak diren Europako Zuzentarauekin betetzeko. Hortaz, gaur egungo exijentziak betetzeko eta kontsumo energetiko ia nuluko eraikinen inguruko etorkizuneko Zuzentarauekin betetzeko, beharrezkoa izango da Euskadiko etxebizitza parkea energetikoki hobetzea.

Kontuan hartuta azken urteetan birgaitze lizentzietan eman den hazkundera, obra berrien lizentziekin alderatuta Euskadiko etxebizitza parkea hobetzen hasi dela esan daiteke. Etxebizitzaren hobekuntza energetikoa izan dadin, birgaitze energetikoko konponbide ugari existitzen dira. Gainera, birgaitze energetiko batean erabiltzeko dauden isolatzaile mota kopurua handia da, 4. Kapitulan ikusi den bezala.

Etxebizitza parkea hobetzearen beharrak, birgaitze lizentzien gorakada eta merkatuan dauden birgaitze energetikoko konponbide kopuru ugariak, metodo multi-irizpide bat erabiltzeko beharra sortzen dute. Horretarako, MIVES metodologia erabiliko da. 2. Kapitulan komentatu den bezala, multi-irizpide metodo honen bidez, dauden birgaitze energetikoko konponbideen jasagarritasuna ebaluatzen da, jasagarritasunaren aspektuak kontuan hartuta esaterako, ingurumen aspektua, aspektu ekonomikoa eta soziala konponbidearen bitzita ziklo osoan zehar. Horrela, birgaitze energetikoko konponbiderik jasagarriena zein den aukeratu ahalko da.


### 5.2. Erabiliko den metologiaren deskribapena

#### 5.2.1. MIVES metologia

Erabiliko den metodologia MIVES (Modelo Integrado de valor de Edificios Sostenibles). Metodologia hau erabaki-hartze multi-irizpidea metodologia bat da eta balio indize baten bidez ebaluatu dezake definitutako arazo orokor bat erabaki dezaketen alternatiba. Balio analisi honen bitartez, aldagai desberdinak unitate berera transformatzen dira eta bere garrantzi erlatiboa ponderatzen da. Alternatiba bakoitzaren balio indizea lortzeko irizpide desberdinen balioztapenak ponderatuki gehitzen dira.

Alternatiba desberdinak ebaluatzeko lehenik eta behin, ebaluazio modeloa definitu behar da. Ebaluazio modelo hau errekerimenduen zuhaitza definitzean, zuhaitzaren osagai bakoitzeko pisua esleitzean eta zuhaitzeko adierazleen funtzio balioa zehaztean datza. Modelo hau alternatiba eratu baino lehen zehazten da. Hortaz, erabakia hartzea hasieran egiten da, kontutan hartuko diren aspektuak eta hauen balioztapenak definitzen diren momentuan. Ondorioz, erabakia hartzean subjektibitate puntu bat ekiditen da, alternatiben baliospeenean eragin gabe egiten baita.

Hurrengo 5.1. Irudian MIVES metodologiak erabiltzen duen algoritmoa ikus daiteke.



5.1. Irudia: MIVES metodologiaren algoritmoa

### 5.2.2. MIVES metodologiaren faseak

MIVES metodologiaren faseak hurrengoak dira (41):


#### 1) Erabakiaren mugaketa

Lehengo fase honetan nork hartuko duen erabakia definitzen da, sistemaren mugak finkatzen dira eta mugaldeko baldintzak ezartzen dira.

Erabakia hartzean ikuspuntu desberdineko agente desberdinek parte hartzen dute. Dauden alternatiba guztietatik alternatiba onena aukeratzea, erabakia hartzen duenaren menpe dago, kontuan hartuta hasieratik argi definituta dauden bere interesak.

Fase honetan sistemaren mugak edo ebaluazioaren garrantziak finkatu behar dira ere, erabakia hartzea identifikatzeko. Horretarako, hiru ardatzetan egituratzen da: bizitza zikloa, errekerimenduak eta osagaiak, 5.2. Irudian ikus daitekeen bezala. Ardatz hauek ebaluatuko den sistemaren arabera alda daitezke.





5.3. Irudia: Erabakitze-zuhaitz orokorra

Erabakitze-zuhaitzaren parametroak era egokian hautatzea oso garrantzitsua da; errekerimenduak, irizpideak eta adierazleak. Horretarako, alternatiben aspektu garrantzitsuenak definitu behar dira, pisuz edo bakoitzak duen garrantziaz gain.


Adierazleen ezaugarri nagusienak honakoak izan behar dira: kuantifikagarriak, erlatiboak, zehatzak, diskriminatzaileak, trazagarriak, osagarriak eta adierazgarriak (41).

### 3) Balio-funtzioen definizioa

Fase honetan balio-funtzioak definituko dira, unitate desberdinak dituzten adierazleak haien artean konparatu ahal izateko. Horrela, aldagai desberdinak haien artean konparatu daitezke eta adierazle bakoitzaren balioztapen desberdinen haztatutako batuketa bat egin daiteke.

Balio-funtzio desberdinak definitzen dira adierazle bakoitzarentzat bat, 0 eta 1 arteko balorazioak lortuz. Horretarako, balio-funtzioaren joera definitzen da, asetze puntu maximoak eta minimoak zehazten dira, balio-funtzioaren forma definitzen da eta azkenik, balio-funtzioa matematikoki definitzen da.

Balio-funtzioen formak  $S$  formakoak, linealak, ahurrak edo ganbilak izan daitezke, hurrengo 5.4. Irudian ikus daitezkeen bezala.



**5.4. Irudia: Balio-funtzioen forma desberdinak**

Funtzio ganbilek adierazlearen erantzun minimorako balioaren gorakada handia adierazten dute. Funtzio mota hau, oso zehaztuta dagoen arau bat existitzen denean erabili behar da (118).

Funtzio ahurrek aldiz, adierazlearen erantzun altuetan balioaren gorakada handia adierazten dute. Era honetan, alternatibak asetze maximoko puntuaren inguruan egon daitezten lortzen da. Funtzio mota hauek adierazle ekonomikoetan edo ingurumen adierazleetan erabiltzen da.

Funtzio linealek balio gorakada konstante bat adierazten dute, erantzunaren eremu osoan zehar. Konfort termiko edo akustikoaren hobekuntza adierazteko erabili daiteke funtzio mota hau.

“S” formako funtzioetan balio maximoaren gorakada-erantzuna eremuaren erdiko partean lortzen da eta maximo eta minimo balioen inguruan balioa txikiagoa da.

Funtzio hauek bost parametroen bidez definitzen dira:  $K_i$ ,  $C_i$ ,  $X_{max}$ ,  $X_{min}$  y  $P_i$ . Hurrengo ekuazioaren (funtzio hazkorrentzako ekuazioa) [5. 1] bidez adierazlearen balioa zehazten da,  $V_{ind}$ .

$$V_{ind} = B \left[ 1 - e^{-K_i \left( \frac{|X - X_{min}|}{C_i} \right)^{P_i}} \right] \quad [5. 1]$$

Non:

$X_{min}$ : Zero balioa hartzen du ordenatu-ardatzean.

X: Ebaluatutako adierazlearen abzisa-ardatza

$P_i$ : Forma faktorea. Kurbaren forma definitzen du eta era hurbilean koordinatuen inflexio puntuan kurbaren malda zehazten du ( $C_i$ ,  $K_i$ )

- $P_i < 1 \rightarrow$  Kurbadura ahurra
- $P_i > 1 \rightarrow$  Kurbadura ganbila edo “S” formakoa
- $P_i = 1 \rightarrow$  Lineala

$C_i$ : Inflexio puntuaren abzisaren balio hurbildua definitzen du.

$K_i$ : Inflexio puntuaren ordenatu-ardatzean balio hurbildua definitzen du

B: funtzioaren balioa 0 eta 1 artean mantentzeko faktorea. Hurrengo ekuazioaren bidez definitzen da [5. 2]:

$$B = \left[ 1 - e^{-K_i \left( \frac{|X_{\max} - X_{\min}|}{C_i} \right)^{P_i}} \right]^{-1} \quad [5. 2]$$

Non  $X_{\max}$ : 1 balioa hartzen du ordenatu-ardatzean.

Funtzio beherakorrak ere erabili daitezke balio-funtzio definitzeko. Kasu honetan, hazkorrekin alderatuta balio maximoa  $X_{\min}$ -an ematen da.

Erabiltzailearen asetze puntu maximoak eta minimoak zehazteko hurrengoa erabili daiteke:

- Indarrean dagoen araudia erabili. Asetze puntu maximoa eta minimoa definitzeko indarrean dagoen arauak exijitzen dituen balioak erabili daitezke. Izan ere, adierazle batzuk arauen menpean daude.
- Adierazleak arauen menpe ez daudenean, asetze puntu maximoa eta minimoa definitzeko dauden baldintzak edo beharrak kontuan har daitezke gehien bat, adierazle ekonomikoetan edo denbora adierazleetan.
- Puntu balioak zehazteko erabakia hartzen duenak esperientzia edo gaitasun teknikoa ez duen kasuetan, alternatiba desberdinak haien artean konpara daitezke. Honela, alternatiba desagokiena asetze puntu minimokoa izango da eta egokiena aldiz, asetze puntu maximoa.

#### 4) Pisuen esleipena

Eta honetan aspektu bakoitzaren garrantzi erlatiboa esleitzen da, kontuan hartuta aspektuak daukan garrantzia adar berdinean dauden aspektuekiko. Honela, irizpide berdinari dagokion adierazle guztien pisu erlatiboa kalkulatu da. Irizpideekin gauza bera egiten da, errekerimendu berdineko irizpide guztien pisua kalkulatu da.

Errekerimenduen, irizpideen eta adierazleen pisuak zehazteko zuzenean egin daitezke elementu gutxi daudenean edo AHP (Analytical Hierarchy Process- Proceso Analítico Jerárquico) metodologia erabiliz egin daitezke (119).

AHP erabiliz gero, erabaki-matrize bat eraiki behar da, pisu bektorea kalkulatu behar da eta matrizearen trinkotasuna ebaluatu behar da.

AHP metodologiaren erabaki-matrizearen elementuak kalkulatzeko elementu guztiak bikoteka konparatzen dira. Horretarako, Saaty-k erabiltzen duen eskala erabiltzen da (119). Konparaketan bitarteko egoerak eta kontrako egoerak onartzen dira hurrengo 5.1. Irudian ikus daitezkeen bezala

Garrantzia erlatiboa	Esanahia (i j-rekiko)	Matrizearen elementua	
		$a_{ij}$	$a_{ji}$
1/9	Erabat edo oso gutxiago nahiago	1/9	9
1/7	Askoz garrantzia edo nahiago gutxiago	1/7	7
1/5	Garrantzia edo nahiago gutxiago	1/5	5
1/3	Garrantzia edo nahiago arinki gutxiago	1/3	3
1	Garrantzia berdina	1	1
3	Garrantzia edo nahiago arinki gehiago	3	1/3
5	Garrantzia edo nahiago gehiago	5	1/5
7	Askoz garrantzia edo nahiago gehiago	7	1/7
9	Erabat edo oso nahiago	9	1/9

5.1. Taula: Pare erkaketa bidez erabakitze-matrizearen kalkulatzeko

Erabakitze-matrizea hortaz,  $n \times n$  matrize karratu bat izango da,  $n$  adierazle edo irizpideen kopurua izanik. Matrize hau beti izango da karratua, bere elementuak kalkulatzeko pare erkaketa bidez egin baita, komentatu den bezala.

$$\begin{bmatrix} 1 & a_{12} & \dots & a_{1n} \\ a_{21} = 1/a_{12} & 1 & \dots & a_{2n} \\ \dots & \dots & \dots & \dots \\ a_{n1} = 1/a_{1n} & a_{n2} = 1/a_{2n} & \dots & 1 \end{bmatrix}$$

5.5. Irudia: "A" erabakitze-matrizea

Pisu bektorea "A" erabakitze-matrizearen elementuak [5. 3] ekuazioaren bidez normalizatzu kalkulatu da. Horrela "B" matrizea lortzen da. "B" matrizeko elementu bakoitza dagokion "A" matrizearen elementua zati kokatzen den zutabearen elementuen batuketara izango da.

$$b_{ij} = \frac{a_{ij}}{\sum_{i=1}^n a_{ij}} \quad [5. 3]$$

Behin "B" matrizea lortuta, [5. 4] ekuazioaren bidez pisu bektorea kalkulatu da. "B" matrizearen osagaiak definituta daudenez, pisu bektorea kalkulatu daiteke. Bektorearen elementu bakoitza, "B" matrizearen zutabe bakoitzaren batuketari zatitzean errekerimenduen, irizpideen edo adierazleen kopurua lortzen den emaitzarekin osatzen da. Pisu bektoreko elementu bakoitza ebaluatu den errekerimenduaren, irizpidearen edo adierazlearen pisuari dagokio, "A" matrizearen kokapen-ordenaren arabera.

$$w_i = \frac{\sum_{j=1}^n b_{ij}}{n} \quad [5. 4]$$

Azkenik, matrizearen trinkotasuna aztertu behar da. Horrela neurtzen da nola ebaluatzen duen ebaluatzaileak "A" matrizea, erreferentzien proportzionaltasuna kontuan hartuta. Adibidez, "A" irizpideak "B" baino garrantzi bikoitza badu eta "B"-k "C" baino garrantzi bikoitza badu orduan "A" "C" baino lau aldiz garrantzitsuagoa izango da. "A" eta "C"-ren arteko konparaketak lautik asko urruntzen bada, egindako judizioak oso sendoak ez direla adierazten du.



Trinkotasuna ebaluatzeko, Saaty-k trinkotasun erlazioaren (C.R., consistency ratio) bidez ebaluatzea proposatzen du, ondorengo ekuazioaren bidez [5. 5]:

$$C.R. = \frac{C.I.}{R.I.} \leq 0,1 \quad [5. 5]$$

Non:

C.R. = Trinkotasun erlazioa (Consistency ratio)

C.I. = Trinkotasun indizea (Consistency index)

R.I. = Trinkotasun indizea aleatorioa (Random index)

Baldin C.R. > 0,1, ebaluatzaileak "A" matrizeko pare erkaketan esleitutako balioak ikuskatu beharko ditu

Trinkotasun indizea (C.I.) hurrengo ekuazioaren [5. 6] bidez kalkulatzen da:

$$C.I. = \frac{\lambda_{m\acute{a}x} - n}{n - 1} \quad [5. 6]$$

Non  $\lambda_{m\acute{a}x}$  konparaketa matrizearen auto-balio maximoa den. Egindako juizio guztien trinkotasun neurri bat da. Hortaz, bektore hau  $a_{ij}$  matrizearen zutabeak batuz eta biderkatuz lehenetsun bektorearen osagaiari  $w_i$ , hurrengo ekuazioa [5. 7] erabiliz lortzen da:

$$\lambda_{m\acute{a}x} = \sum_{j=1}^n \left( \sum_{i=1}^n a_{ij} \right) * w_j \quad [5. 7]$$

Trinkotasun indizea aleatorioa (R.I.), aleatorioki lortutako erabakitze-matrizearen trinkotasun indize (C.I.) guztien neurria da. Matrizearen tamaina eta hurrengo taulan agertzen diren balioen menpe dago bakarrik.

Matrizearen tamaina (n)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Trinkotasun indizea aleatorioa (R.I.)	0,00	0,00	0,58	0,90	1,12	1,24	1,32	1,41	1,45	1,49

5.2. Taula: Trinkotasun indizea aleatorioa (R.I.)


Matrizea  $n \leq 2$  bada, trinkotasuna aztertzea ez da beharrekoa, C.I. beti zero izango baita. Izan ere, bi elementu konparatzean beste hirugarren batekin ez da proportzionaltasuna mantentzen eta hortaz, trinkotasunik eza agertzen da. Baina bi elementu bakarrik existitzen badira, konparatzean ez da beharrekoa proportzionaltasuna aztertzea.

## 5) Alternatiben definizioa

Fase honetan, planteatutako erabaki-hartze arazoaren alternatiba egingarri desberdinak definitzen dira. Kasu batzuetan, alternatibak finkatzen dira erabakia hartzearen hasierako momentuan. Beharrekoa den informazioa lortu behar da ondoren balorazio prozesuan sartu ahal izateko.

6) Alternatiben balioespena

Planteatu den alternatiba bakoitzeko balio-indizea bat lortzen da. Baina lehenago adierazleak, irizpideak eta errekerimenduak baloratu beharko dira aurreko fasean. Zuzenean balioetsi diren elementu bakarrak adierazleak dira. Hurrengo 5.6 .Irudian alternatiba desberdinak baloratzeko era adierazten da.



5.6. Irudia: Alternatiben balio-indizea

Adierazleen balioespena balio-funtzioaren eta aztertutako adierazleko alternatiba bakoitzaren kuantifikazioaren bidez lortzen da. Alternatibaren kuantifikazioa balio-funtzioaren abzisaren puntua da, zeinen ordenatua adierazlearen balorazioa da alternatiba horretarako.

Irizpideak baloratzeko hurrengo ekuazioa erabiltzen da [5. 8]. Baloratuko den Irizpideari dagokion adierazleen balioztapena erabiltzen da eta azken hau adierazle bakoitzari dagokion pisuarekin biderkatzen da.

$$V_{irizpidea} = \sum_{i=1}^n V_{ind} \times P_{eso\ adierazlea} \quad [5. 8]$$

Bestetik, errekerimenduak baloratzeko irizpideekin egin den antzera egiten da

$$V_{errekerimendua} = \sum_{i=1}^n V_{irizpidea} \times P_{eso\ irizpidea} \quad [5. 9]$$

Alternatiben balio-indizea errekerimenduen balorazioak haien pisuekin biderkatuz lortzen da.

$$V_{Alternatiba} = \sum_{i=1}^n V_{errekerimendua} \times P_{eso\ errekerimendua} \quad [5. 10]$$

## **7) Sentsibilitate analisia burutzea**

Azkenik, hasierako faseetan definitutako errekerimenduen, irizpideen edo adierazleen pisuak aldatuz, alternatiba bakoitzaren balio-indizearen aldaketa aztertzen da. Honela, planteatutako metodologiaren baliagarritasuna, egonkortasuna eta sendotasuna frogatu daiteke. Fase hau burutzea ez da derrigorrezkoa MIVES metodologian.

Behin MIVES metodologiaren faseak ezarri diren, jarraian birgaitze energetikoko konponbiderik jasagarriena zehazteko erabaki-hartze metodoa zehazteari ekingo zaio.

### **5.3. Erabaki-hartze zuhaitzaren definizioa**


Aztertuko diren aspektuak hau da, errekerimenduak, irizpideak eta adierazleak erabaki-hartze zuhaitzean definitzen dira. Hurrengo 5.3. Taulan birgaitze energetikoko konponbiderik jasagarriena zehazteko erabaki-hartze zuhaitza definitzen da.

ERREKERIMENDUAK	IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK
<b>Ekonomikoa (E)</b>	<b>Kostuak (E1)</b>	Materialaren kostua (E1.1)
		Instalazioaren kostua (E1.2)
		Mantenuko urteroko kostua (E1.3)
	<b>Inbertsioaren errentagarritasuna (E2)</b>	Errentagarritasuna (E2.1)
<b>Ingurumena (I)</b>	<b>Erabilitako materialak (I1)</b>	Birziklagarritasuna (I1.1)
		Sortutako hondakinak (I1.2)
		Ingurumen-inpaktua (I1.3)
	<b>Emisioak (I2)</b>	CO <sub>2</sub> -aren aurreztea (I2.1)
<b>Funtzionala (F)</b>	<b>Eraikuntzako konponbideak (F1)</b>	Egikaritzearen konplexutasuna (F1.1)
	<b>Segurtasuna (F2)</b>	Suaren aurkako erreakzioa (F2.1)
		Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea (F2.2)
	<b>Kondentsazioak (F3)</b>	Kondentsazioen aurkako isolatzailearen portaera (F3.1)
<b>Soziala (S)</b>	<b>Sortutako eragozpenak (S1)</b>	Etxebizitza uzteko beharra (S1.1)
		Instalazioaren ondoren espazio galera (S1.2)
		Aldamioen beharra (S1.3)
	<b>Jabeentzako desegokitasuna (S2)</b>	Jabeen arteko adostasunaren beharra (S2.1)
	<b>Konfort eta osasuna (S3)</b>	Barruko konfort termikoa (S3.1)
		Barruko konfort termikoa (S3.2)
		Barruko konfort akustikoa (S3.3)
	<b>Ondare arkitektonikoa (S4)</b>	Ondare arkitektonikoa (S4.1)
	<b>Estetikoa (S5)</b>	Ingurunera egokitzeko gradua (S5.1)
		Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa (S5.2)

5.3. Taula: Erabaki-hartze zuhaitza

## 5.4. Errekerimenduen eta haien irizpideen definizioa

Existitzen diren birgaitze konponbide desberdinen jasagarritasuna ebaluatzeko orduan, errekerimenduak dira ezaugarririk garrantzitsuenak. Konponbidearen jasagarritasuna errekerimendu ekonomikoaren, funtzionalarekin, sozialarekin eta ingurumen errekerimenduaren bidez neurtuko da. (Ikusi 5.7. Irudia).



5.7. Irudia: Konponbidearen jasagarritasuna neurtzeko errekerimenduak.

Errekerimendu bakoitza bat edo hainbat irizpideetan banatzen da. Irizpide bakoitza planteatu diren alternatiba desberdinak konparatzeko erabiltzen da. Halaber, irizpideak ebaluatzeko eta konparatu ahal izateko, irizpide bakoitza bat edo hainbat adierazleetan banatzen dira. Irizpideak ez dira neurgarriak diren parametroak baino hauek neurgarriak diren parametroak multzokatzen dituzte, hau da, adierazleak multzokatzen dituzte. Hortaz, adierazleak irizpide desberdinen parametro kuantifikagarriak dira eta horrela, alternatiba desberdinak konparatu daitezke jasagarritasunaren ikuspuntutik.

### 5.4.1. Errekerimendu ekonomikoa

Alternatiba guztietatik jasagarriena den alternatiba zein den erabakitze orduan, kostu ekonomikoa kontuan hartu beharko da. Izan ere, birgaitze energetikoan hasierako gastuak handiak dira eta gainera, eraikinaren bizitza-zikloan zehar dauden mantenu gastuak ere kontuan hartu behar dira. Kostu hauek jabeek ordaintze dituzte eta kontuan hartuta EAE-ko

etxebizitzaren %90a jabetzan daudela, errekerimendu ekonomikoak garrantzi handia izango du erabakia hartzerako orduan.

Halaber, kontuan hartu behar da hasierako kostuak errentagarri bihurtzeko, fatxadaren birgaitze energetikoaren ondorioz energia aurrezten delako.

Alternatiba desberdinak konparatuko dira haien artean kontuan hartuta eraikinaren bizitza-zikloko fase guztietan sortzen den kostua eta lortzen den errentagarritasuna aurrezten den energiaren ondorioz

Errekerimendu honen barruan hurrengo irizpideak zehaztu dira: kostuak eta inbertsioaren errentagarritasuna.

- **Kostuak:** Birgaitze proiektua burutzeko beharrezkoak diren gastu-multzoa. Gastu hauen barruan hasierako gastuak eta lehenengo 10 urteetako mantenuko urteroko gastuak kontuan hartu beharko dira.
- **Inbertsioaren errentagarritasuna:** Egindako inbertsioa urte jakin batzuetan zehar errentagarri egin daiteke, kontuan hartuta aukeratu den konponbidearekin aurrezten den energia. Hortaz, irizpide honek egindako inbertsioaren itzulera ebaluatzen du.

### 5.4.2. Ingurumen errekerimendua

Kontuan hartuko den beste errekerimendu bat ingurumen errekerimendua izango da. Errekerimendu honekin alternatiba desberdinak konparatuko dira haien artean kontuan hartuta sortu den ingurumen-inpaktua eraikinaren bizitza-ziklo osoan zehar. Era honetan, fatxaden birgaitzean bizitza-zikloko fase guztietan zehar sortzen den ingurumen-inpaktua gutxitu daiteke.

Fatxada bat birgaitzerako orduan materialak gehitzen dira hortaz, material berri horiek sortzen duten ingurumen-inpaktua kontuan hartu beharko da. Birziklagarriak diren materialak erabiltzea edo birziklatutako material bat jatorri bezala izatea ingurumen-inpaktua gutxitzea dakar.

Halaber, eraikin bat energetikoki birgaitzean energia aurrezten da eta hortaz, atmosferara isurtzen diren CO<sub>2</sub> emisioak murrizten dira.

Errekerimendu honen barnean ondorengo irizpideak definitu dira:

- **Erabilitako materialak:** Erabilitako materialek sortzen duten ingurumen-inpaktua neurtzen da. Horretarako, isolatzaileen eta estaldurarako erabiliko diren materialen birziklagarritasuna kontuan hartuko da. Materialak birziklagarriak diren edo ez kontuan hartuko da eta baita ere, birziklatu den material bat erabili den edo ez haien fabrikazioan. Gainera, alternatibek ingurumenean sortzen duten inpaktua neurtzeko egikaritzean sortu diren hondakinak kontuan hartuko dira. Isolatzailearen erauzetan eta fabrikazioan zehar sortzen den ingurumen-inpaktua ere ebaluatuko da.
- **Emisioak:** Eraikina birgaitu ondoren lortu den aurrezte energetikoaren ondorioz, bizitza-ziklo osoan zehar isuri ez diren CO<sub>2</sub> emisioak kontuan hartuz, ingurumenean sortzen den inpaktua ebaluatuko da.

### 5.4.3. Errekerimendu funtzionala

Errekerimendu honekin alternatiba desberdinek duten funtzionaltasuna kontuan hartuta konparatu nahi dira alternatibak. Horretarako, egikaritze prozesuan zehar alternatiben instalazioaren konplexutasuna kontuan hartuko da.

Material eta egitura berriak gehitzen zaizkionez birgaituko den eraikinari, birgaitze prozesu honek eraikinaren bizitza-ziklo osoan zehar eraikinak duen egonkortasunean eta/edo suaren aurkako duen segurtasunean aldaketak ekar ditzake.

Errekerimendu honen barruan ondorengo irizpideak definitu dira:

- **Eraikuntzako konponbideak:** Alternatiben funtzionaltasuna planteatutako birgaitzearen bideragarritasuna kontuan hartuz kuantifikatzen da. Horretarako, alternatiba bakoitzaren konplexutasuna bere gauzatze ikuspuntutik ebaluatzen da.
- **Segurtasuna:** segurtasunaren ikuspuntutik neurtzen da funtzionaltasuna, kontuan hartuta gehitutako material berriek duten eragina eraikinak daukan suaren aurkako erreakzioan. Gainera, esku-hartzea burutzeko, jatorrizko fatxadako euskarriaren egoera egokia ez izatea gerta daiteke edo birgaitze obrak egiteko aurretik euskarria egokitu behar izatea gerta daiteke. Hortaz, eraikinaren segurtasuna kontuan hartzeko eraikinean esku-hartu baino lehen jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea aintzat hartuko da.
- **Kondentsazioak:** alternatiba desberdinen funtzionaltasuna zehazteko kondentsazioak agertzeko arriskua kontuan hartuko da alternatibak ebaluatzeko orduan.

### 5.4.4. Errekerimendu soziala

Jasangarritasunaren errekerimendu soziala, birgaituko den eraikina kokatzen den ingurunearekin eta eraikinean bizi direnekin erlazionatuta dago. Hortaz, alternatiba desberdinak konparatu nahi dira kontuan hartuta alternatibak sortzen duen inpaktua eraikina kokatzen den ingurunean eta eraikinean bizi diren pertsonetan.

Ez da ahaztu behar eraikina, kasu ia gehienetan, egikaritze prozesu osoan zehar eta bere bizitza-ziklo osoan zehar beteta egongo dela. Beraz, egikaritze prozesuan zehar eraikinaren ingurunean dauden pertsonen eta maizterrei sortutako eragozpenak murriztu behar dira. Gainera, birgaitze prozesuak etxebizitzetako maizterrei eragozpenak sor ditzake esaterako, egikaritze prozesu batzuk bukatu ondoren etxebizitzaren barruan sortzen diren espazio galerak. Hortaz, honek ekartzen dituen inpaktu soziala murrizteko, alternatiba desberdinek etxebizitza barruan sortzen duten espazio galera murriztu beharko da.

Halaber, alternatiba desberdinek sortzen duten inpaktu estetikoa minimoa izan behar da, eraikinaren bizitza-ziklo osoan zehar eraikinaren ikuste-itxuran aldaketa desiraezinak ez sortzeko maizterrei. Ahaztu gabe, babestuta dauden eraikinetan ezin dela haien kanpoko itxura aldatu.

Errekerimendu honen barruan ondorengo irizpideak daude:

- **Sortutako eragozpenak:** Alternatiba desberdinek sortzen duten inpaktu soziala neurtzeko maizterrei eta eraikinaren inguruneari sortutako eragozpenak kontuan hartuko dira. Horretarako, kontuan hartuko da egikaritze prozesuaren iraupena,

etxebizitza uzteko beharra edo ez birgaitzearen egikaritze prozesuan zehar eta aldamioen beharra dela eta inguruneari eta oinezkoiei sortutako eragozpenak.

- **Jabeentzako desegokitasunak:** birgaitzearen egikaritze prozesuan zehar etxebizitzetako jabeek sortutako desegokitasunak neurtzen dira.
- **Konfort eta osasuna:** Alternatiba desberdinek birgaitzearen bizitza-ziklo osoan zehar konfortean eta osasunean sortutako hobekuntzek maizterrengan sortzen duten onurak neurtzen da.
- **Ondare arkitektonikoa:** babestuta dauden eraikinetan ezin da fatxada aldatu beraz, esku-hartzea eraikinaren kanpotik egiten ez duten alternatibak aukeratu beharko dira.
- **Estetikoa:** kanpotik egindako birgaitze baten begi-inpaktua kuantifikatzeko eta murrizteko, eraikinaren ingurunean birgaitzeak daukan egokitzeko gradua kontuan hartzen da. Halaber, birgaitzearen ondorioz jatorrizko fatxadan sortutako hobekuntza estetikoa era kontuan hartuko da.

### 5.5. Adierazleen definizioa

Adierazleak erabaki-hartze zehatzaren aspektu zehatzak dira, zuzenean ebaluatuko baitira. Hauek kuantifikatuko diren ezaugarri ukigaiak dira.

Adierazle bakoitzaren balioa zehatzeko balio-funtzioa erabiltzen da horrela, neurtzeko unitate desberdinak dituzten adierazgarrien balorazioak konparatuko dira.

Jarrain, errekerimendu zehatzaren adierazleak definitzen dira eta hauetako bakoitzak kalkulatzeko balio-funtzioak ere.

#### 5.5.1. Errekerimendu ekonomikoaren adierazleak

Errekerimendu ekonomikoa kontuan hartuta, alternatiba desberdinen jasagarritasuna konparatzeko hurrengo adierazleak zehatzu dira:

##### 5.5.1.1. Materialaren kostua

- Definizioa

Adierazle honek birgaitzean gehitu den materialaren kostu ekonomikoa, €/m<sup>2</sup>, neurtzen du.

- Balioztatzeko era

“CYPE ingenieros<sup>10</sup>”-eko eraikuntzako prezio-basea aintzat hartuta, adierazle honek zehatzten du zein alternatiba den garestiena eta zein merkeena kontuan hartuta erabili den materialaren kostua €/m<sup>2</sup>-tan neurtuta.

---

<sup>10</sup> “CYPE ingenieros, S.A.”-k sortutako prezio sorgailua, merkatura egokitzen diren prezioak erabiltzen dituen programa informatiko bat da. Fabrikatzaile-produktuak eta produktu generikoak ditu.




Asetze maximoko balioa: erabilitako materialen kostua kontuan hartuta, preziorik merkeena.  
 $X_{\min} = 5,22 \text{ €/m}^2$ .

Asetze minimoko balioa: erabilitako materialen kostua kontuan hartuta, preziorik garestiena.  
 $X_{\max} = 472,2 \text{ €/m}^2$ .

- Balio-funtzioa

Proposatzen den balio-funtzioa beherakorra da izan ere, zenbat eta prezioa txikiagoa izan, orduan eta jabeen asetzea handiagoa izango da. Kurbaduraren forma ahurra izatea proposatzen da, asetze maximoko baliotik urrutzten den heinean balioaren maila nabarmen txikitzen baita, hurrengo 5.1. Grafikoan ikus daitekeen bezala.



5.1. Grafikoa: Materialaren kostua

Adierazle mota honi adierazle kuantitatiboa deitzen zaio, zenbakizko balioen bidez jakinarazten baitu aldagaiaren portaera egoera emandako une batean (118).

### 5.5.1.2. Instalazioaren kostua

- Definizioa

Adierazle honen bidez alternatiba desberdinen instalazioen kostua, €/m<sup>2</sup>-tan, kuantifikatzen da.

- Balioztatzeko era


Prezio sorgailua erabiliz lortutako instalazio kostua, €/m<sup>2</sup>-tan neurtuta, kontuan hartuta, adierazle honek zein alternatiba den garestien eta zein merkeen zehazten du.

Asetze maximoko balioa: Instalazio kosturik merkeena.  $X_{\min} = 6,84 \text{ €/m}^2$ .

Asetze minimoko balioa: Instalazio kosturik garestiena.  $X_{\max} = 56,40 \text{ €/m}^2$ .

- Balio-funtzioa

Proposatutako balio-funtzioa beherakorra da, zenbat eta merkeago, orduan eta handiagoa izango baita asetzea. Kurbaduraren forma aurreko adierazlean planteatu denaren antzekoa da, hau da, forma ahurra, asetze maximoko baliotik urruntzen den heinean balioaren maila nabarmen txikitzen baita. (ikusi 5.2. Grafikoa).



5.2. Grafikoa: Instalazioaren kostuak

### 5.5.1.3. Mantenuko urteroko kostua

- Definizioa

Kanpotik zein barnetik egindako esku-hartzeetan eraikinaren bizitza-zikloko fase guztietan zehar dagoen mantenuko urteroko kostua neurtzen da.

Mantenuko urteroko kostua zehazteko alternatiba bakoitzaren iraunkortasuna kontuan hartu beharko da, bai kanpotik egindako esku-hartzetan bai barnetik egindakoetan. Izan ere, zenbat eta iraunkorragoa izan alternatiba, orduan eta mantenuko urteroko kostua txikiagoak izango dira. Mantenuko urteroko kostuak aurreko adierazleetan erabili den prezio sorgailuaren bidez lortzen da.

Halaber, kanpotik egindako esku-hartzeetan fatxadaren estaldura hobetzen da. Baina kanpotik aldatzean fatxadaren estaldura, bandalismoa sufritzeko aukerak edo posibilitateak handitzen dira, fatxadaren begi-estetika maskalduz eta beraz, mantenuko urteroko kostuak handituz. Hortaz, kanpoko estalduran erabiltzen diren material desberdinetatik bandalismoaren aurka mantenu errazena duenak, bandalismoaren ondoriozko mantenuko urteroko kostuak txikitzea lortuko du. Gainera, bandalismoagatik gerta daitezkeen kalteak ebaluatzeke eraikineko fatxadaren irisgarritasuna edo eskuragarritasuna kontuan hartu beharko da. Irisgarria den fatxada batek bandalismoa sufritzeko aukera gehiago ditu, irisgarria ez den batekin alderatuta.

Hau dela eta, adierazle hau definitzeko kontuan hartu beharko da alternatiba bakoitzak duen iraunkortasuna. Horretarako, alternatiba bakoitzak duen mantenuko urteroko kostua eta esku-hartzea kanpotik den kasuetan mantenu estetikoaren kostua ere aintzat hartuko da.

- Balioztatzeko era

Adierazle honek alternatiba garestiena edo merkeena zein den zehaztuko du, kontuan hartuta iraunkortasuna eta bandalismoagatik sortutako gastuak.


Hortaz, adierazle hau hiru parametro desberdinetan banatzen da:

**1) Iraunkortasuna:** Lehenengo 10 urteetan alternatiba bakoitzak duen mantenuko urteroko gastua aurreko adierazleetan erabilitako prezio sorgailua erabiliz kalkulatu da. Horrela, alternatiba bakoitzaren asetze balioa lortuko da.

Asetze maximoko balioa: Mantenuko urteroko preziorik merkeena.  $X_{\min} = 1,86$  € lehenengo 10 urteetan.

Asetze minimoko balioa: Mantenuko urteroko preziorik garestiena.  $X_{\max} = 107,23$  € lehenengo 10 urteetan.

Parametro honen balio-funtzioa beherakorra izango da, zenbat eta gutxiago kostatu orduan eta asetze handiagoa lortzen baita. Kurbaduraren forma ahurra izango da, asetze maximoko baliotik urruntzen den heinean balioaren maila nabarmen txikitzen baita. (Ikusi 5.3. Grafikoa).



**2) Bandalismoa sufritzeko posibilitatea:** Eraikinaren fatxadaren irisgarritasuna kontuan hartuko da, oinezko-igarotze zonaren arabera.

Asetze maximoko balioa: Bandalismo ekintzak burutzeko irisgarritasun txikiena edo nulua duen fatxadaren bidez definitzen da.


Asetze minimoko balioa: Bandalismo ekintzak burutzeko irisgarritasun handiena duen fatxadaren bidez definitzen da.

Parametro honen balio-funtzioak dikotomikoa izatera izango du, erantzun ebaluatzailea dena edo ezer baita (bai edo ez). Hortaz, hurrengo balio-funtzio tabulatuaren bidez definituko da parametro hau. (Ikusi 5.4. Taula).

Bandalismoa sufritzeko posibilitatea		
X	Fatxadara iristea zaila da	Fatxadara iristea erreza da
Y	1	0

5.4. Taula: Bandalismoa sufritzeko posibilitatea

Parametro honen balio-funtzioaren forma eskaloit funtzioaren formakoa izango da, asetze balioa 1 edo 0 bakarrik izan baitaiteke, hurrengo 5.4. Grafikoan ikus daitekeen bezala.



5.4. Grafikoa: Bandalismoa sufritzeko posibilitatea

**3) Bandalismoaren aurkako mantenua:** Bandalismo ekintzen ondorioz fatxadaren kanpoko estetika mantentzeko erraztasuna edo zailtasuna kontuan hartuko da, alternatiba bakoitzak fatxadaren kanpoko estaldurarako erabiltzen duen material motaren arabera. Izan ere, estalduran erabili den materiala kanpotik garbitzen erreza bada, fatxadaren estetika mantentzeko gutxiago gastatu beharko da, garbitzen erreza ez den beste estaldurako material batekin alderatuta.

Asetze maximoko balioa: Bandalismoen ekintza posibleen aurka fatxadaren estetika mantentzeko mantenu gutxi behar duen materiala.


Asetze minimoko balioa: Bandalismoen ekintza posibleen aurka fatxadaren estetika mantentzeko mantenu gehien behar duen materiala.

Aurreko parametroan bezala, parametro hau eskaloit funtzio bat izango da eta hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da (ikusi 5.5. Taula).

Bandalismoaren aurkako mantenu estetikoa		
X	Fatxadaren estetika mantentzea erreza	Fatxadaren estetika mantentzea zaila
Y	1	0

5.5. Taula: Bandalismoaren aurkako mantenu estetikoa

Balio-funtzioa hurrengo 5.5. Grafikoaren bidez adierazten da:



5.5. Grafikoa: Bandalismoaren aurkako mantenu estetikoa

Ikusitako hiru parametroak kontuan hartuta, mantenuko urteroko kostuaren adierazlea zehazten da. Adierazlea ez dago baldintzatua modu berdinean hiru parametroengatik. Hortaz, Parametro bakoitzak adierazlean daukan eragina zehazteko adituen talde bati galdetu zaio. Adituen talde honen arabera, adierazlearen %56a alternatiba bakoitzak duen iraunkortasunagatik baldintzatua dago, hau da, alternatiba bakoitzak duen mantenuko urteroko kostuagatik. Izan ere, parametro honek alternatiba bakoitzaren iraunkortasuna zehazten du, urtero mantenuko ordaindu beharreko urteroko kostuarekin definitzen delarik. Hortaz, adierazlearen %44a fatxadaren mantenu estetikoagatik baldintzatua dago. Fatxadaren mantenu estetikoa bi parametroen bidez definitzen da: bandalismoa sufritzeko posibilitatea eta bandalismoaren aurkako mantenu estetikoa.

Barnetik egindako esku-hartzeetan, hau da, barnetik egindako isolamendu sistemetan eta aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemetan, ez da bandalismoa kontuan hartuko, eraikinaren fatxada aldatzen ez delako. Eraikinak bandalismoa sufritzeko posibilitatea ez da handitzen eraikinaren gaur egongo egoerarekin alderatuta. Hau dela eta, bi kasu hauetan mantenu estetikoaren balioa 1 izango da.

Ikusitako hiru parametroak kontuan hartuta, adierazlea era honetan definituta geratuko da:

$$V_{ind} = 0,56 * Y_{mantenuko\ kostua} + 0,22 * Y_{irisgarritasuna} + 0,22 * Y_{estetika} \quad [5.11]$$

Non:

- $Y_{\text{mantenuko kostua}} = \text{Alternatiba bakoitzaren asetze balioa, kontuan hartuta mantenuko urteroko kostuak.}$
- $Y_{\text{irigarritasuna}} = \text{Alternatiba bakoitzaren asetze balioa, kontuan hartuta fatxadaren irigarritasuna.}$
- $Y_{\text{estetika}} = \text{Alternatiba bakoitzaren asetze balioa, kontuan hartuta bandalismoaren aurkako fatxadaren mantenu estetikoak.}$

Adierazlearen balio 0 eta 1 balioen artean egon beharko da.

Asetze maximoko balioa: [5. 11] ekuazioa erabiliz lortutako balio maximoak definituko du. Mantenuko urteroko kostu baxuen duen, bandalismoa sufritzeko posibilitate gutxien duen eta kanpoko estaldura, ikuspuntu estetikoak, erraz mantentzen duen alternatibak definituko du balio hau.

Asetze minimoko balioa: [5. 11] ekuazioa erabiliz lortutako balio minimok definituko du. Mantenuko urteroko kostu altuen duen, bandalismoa sufritzeko posibilitate handia duen eta kanpoko estaldura, ikuspuntu estetikoak, mantentzeko mantenu zaila duen alternatibak definituko du balio hau.

### 5.5.1.4. Errentagarritasuna

- Definizioa

Adierazle honekin alternatiba baten inbertsioaren itzultza neurtzen da, beste alternatiba batekin alderatua. Inbertsioaren itzulera urteetan neurtuta egongo da. Horretarako, eraikina birgaitu ondoren lortutako aurrezte energetikoa eta inbertsioaren kostu totala kontuan hartuko da.

Inbertsioaren itzulera egindako inbertsioa amortizatzeko behar den denbora, urteetan adierazita, izango da.

Inbertsioaren itzulera kalkulatzeko lehenago kalkulatu behar da: alternatiba bakoitzaren inbertsio kostua (€), alternatiba bakoitzarekin urtero aurrezten den energia (KWh/urte) eta energiaren batezbesteko prezioa (€/KWh), hurrengo [5. 12] ekuazioan ikus daitekeen bezala.

$$\text{Payback (urte)} = \frac{\text{Kostu}_{\text{inbertsioa}} (\text{€})}{\text{Aurrezte}_{\text{energetikoa}} \left( \frac{\text{KWh}}{\text{año}} \right) \times \text{Prezioa}_{\text{energia}} \left( \frac{\text{€}}{\text{KWh}} \right)} \quad [5. 12]$$

Energiaren batezbesteko prezioa prezio-datua erabiliz zehazten da eta alternatiba guztientzat balio berdina izango da. Energiaren prezioa urtero gehikuntzak sufritzen ditu hau dela eta, prezioaren estimazio bat egingo da kontuan hartzeko gehikuntzak.

- Balioztatzeko era

[5. 12] ekuazioa kontuan hartuta, gerta daiteke bi alternatiba desberdinek payback balio berdina lortzea. Adibidez, alternatiba baten inbertsio kostuak altuak direnean eta aurreztutako energia ere altua denean alternatiba honek lortuko duen payback balioa, inbertsio kostuak baxuak eta aurreztutako energia baxua duen alternatiba batek lortuko duen balioaren berdina izan daiteke.


Hau dela eta, adierazle hau baloratzeko hurrengo hiru parametro hauek kontuan hartuko dira:

**1) Inbertsioaren kostua:** Inbertsioaren kostu totala kalkulatzeko beste adierazleetan erabilitako prezio sorgailua erabiliko da. Parametro honen bitartez alternatiba garestiena edo merkeena zein den zehazten da, kontuan izanda haien kostu totala, €/m<sup>2</sup>-tan neurtuta.

Asetze maximoko balioa: Balio hau lortu den preziorik merkeena izango da, alternatiba bakoitzaren kostu totalaren arabera.  $X_{\min} = 14,1 \text{ €/m}^2$ .

Asetze minimoko balioa: Balio hau lortu den preziorik garestiena izango da, alternatiba bakoitzaren kostu totalaren arabera.  $X_{\max} = 527,24 \text{ €/m}^2$ .

Parametro honen balio-funtzioa beherakorra izango da, zenbat eta merkeago, orduan eta asetze handiagoa lortzen baita. Proposatzen den kurbaduraren forma ahurra izango da, asetze maximoko baliotik urruntzen den heinean balioaren maila nabarmen txikitzen baita. (Ikusi 5.6. Grafikoa).



5.6. Grafikoa: Inbertsioaren kostua

**2) Lortutako aurrezte energetikoa:** Alternatiba baten bizitza-ziklo osoan zehar lortzen den aurrezte energetikoa zehazten da, beste alternatibekin alderatuta.

Alternatiba batekin eraikinaren fatxadan egindako hobekuntza energetikoen ondorioz, etxebizitzan energia aurreztuko da. Hortaz, egindako hobekuntza energetikoekin berogailuaren eta hozte-sistemen kontsumoan aurrezte lortuko da.

3. Kapituluuan komentatu den bezala, Euskadiko etxebizitzetan ez da ia hozte-sistematik erabiltzen hortaz, ez da kontuan hartuko hozte-sistemen kontsumo energetikoa.


Esandakoari arreta jarriz, fatxadan egindako hobekuntza energetikoekin berogailuan energia aurreztea lortuko da. Hortaz, erregaien kontsumoa edo kontsumo elektrikoa, etxebizitzan erabiltzen den berogailu sistemaren arabera, murrizten da eta lehengaien kontsumoa ekiditen da. Halaber, eraikina birgaitu ondoren, maizterren urteko faktura elektrikoak edo gasaren faktura murrizten da.

Alternatiba bakoitzarekin aurrezten den energia-eskaera kalkulatzeko, CEX v2.3<sup>11</sup> programa informatikoa erabiliko da. Programa honen bidez, oraindik birgaitu gabeko eraikinarekin alderatuta, alternatiba bakoitzarekin lortzen den aurrezte energetikoa kalkula daiteke.

Asetze maximoko balioa: Lortzen den aurrezte energetiko handiena, jatorrizko eraikinarekin alderatuta.  $X_{\max} = \%55$

Asetze minimoko balioa: Lortzen den aurrezte energetiko txikiena, jatorrizko eraikinarekin alderatuta.  $X_{\min} = \%6$

Parametro honen balio-funtzioa goranzkoa izango da izan ere, zenbat eta aurrezte energetiko handiagoa izan, orduan eta eraikinaren berogailuaren urteroko kostua txikiagoa izango da eta hortaz, asetzea handiagoa izango da. Bestetik, balio-funtzioaren forma ganbila izatea proposatzen da zeren, asetze balio minimotik urruntzen den heinean balioaren maila nabarmenki handitzen baita (Ikusi 5.7 . Grafikoa). Honela, etxebizitzetan edo eraikinetan aurrezte energetikoa sustatzen da. Energetikoki aurrezten den heinena balioa positiboki handitzen da.



5.7. Grafikoa: lortutako aurrezte energetikoa

<sup>11</sup> Espainiako Energia, Turismoa eta Agenda Digitalaren ministerioak, IDAE-ren bidez, eta sustapen ministerioak bultzatutako programa da. Progama hau eraikinen ziurtagiri energetikoa lortzeko erabiltzen da.




**3) Payback:** Alternatiba batek duen inbertsioaren itzulera bere bizitza-ziklo osoan zehar, urteetan kalkulatu eta beste alternatibekin alderatuta.

Aurretik komentatu den bezala, parametro hau [5. 12] ekuazioren bidez kalkulatzen da.

Asetze maximoko balioa: Payback-a kalkulatzean lortu den urte kopuru minimoena.  $X_{\min} = 5$  urte.

Asetze minimoko balioa: Payback-a kalkulatzean lortu den urte kopuru maximoena.  $X_{\max} = 30$  urte.

Payback parametroa baloratzeko balio-funtzio beherakor bat proposatzen da izan ere, zenbat eta txikiagoa izan inbertsioa itzultzeko denbora orduan eta asetze handiagoa lortzen da. Kurbaduraren forma ahurra izatea proposatzen da, asetze balio maximitik urruntzea penalizatzen baita (Ikusi 5.8 . Grafikoa). Honela, aurrezte energetikoaren hobekuntza sustatzen da.



5.8. Grafikoa: Payback

Adierazlea hau kontuan hartuta definitu diren hiru parametro hauek zehazten da. Parametro bakoitzak pisua bat izango du adierazlearen barruan, parametro guztiek era berdinean ez baitute adierazlea baldintzatzen. Parametro bakoitzak duen pisua zehazteko adituen talde bati kontsultatu zaio, aurreko adierazlean egin den bezala. Hortaz, kontsulta honen bidez zehaztu da alternatibak lortutako aurrezte energetikoak %41eko pisua duela adierazlearen barruan eta %32ko pisua payback parametroak. Bestalde, gelditzen den %27a inbertsioaren kostu totalaren parametroaren pisuari dagokio. Izan ere, birgaitze energetiko batean lortzen den eskariaren aurrezte energetikoa eta beraz, inbertsioaren itzulera garrantzitsuagoa da birgaitzea burutzeko behar den inbertsio totala baino.

Hau dela eta, adierazlea hurrengo eran definituko da:

$$V_{ind} = 0,27 * Y_{inbertsioa} + 0,41 * Y_{aurrezte\ energetikoa} + 0,32 * Y_{payback} \quad [5. 13]$$

Non:

- $Y_{\text{inbertsioa}}$  = Alternatiba bakoitzak duen asetze balioa, inbertsioaren kostua aintzat hartuta.
- $Y_{\text{aurrezte energetikoa}}$  = Alternatiba bakoitzak duen asetze balioa, birgaitzearen ondorioz lortzen den aurrezte energetikoa aintzat hartuta.
- $Y_{\text{payback}}$  = Alternatiba bakoitzak duen asetze balioa, inbertsioaren itzulera kontuan hartuta.

Adierazlearen balio 0 eta 1 artean egon beharko da.

Asetze maximoko balioa: [5. 13] ekuazioa erabiliz lortutako balio maximoak definituko du. Alternatibaren inbertsio kosturik merkeenak, alternatibarekin lortu den aurrezte energetiko maximoak eta payback balio txikienak definituko dute balio hau.

Asetze minimoko balioa: [5. 13] ekuazioa erabiliz lortutako balio minimoak definituko du. Alternatibaren inbertsio kosturik garestienak, alternatibarekin lortu den aurrezte energetiko minimoak eta payback balio handienak definituko dute balio hau.

### 5.5.2. Ingurumen errekerimenduaren adierazleak

Ingurumen errekerimendua kontuan hartuta alternatiba desberdinen jasangarritasuna konparatzeko hurrengo adierazleak zehaztu dira:

#### 5.5.2.1. Birziklagarritasuna

- Definizioa

Adierazle honek birgaitze sistemetan erabilitako materialen birziklagarritasuna neurtzen du. Horretarako, material birziklagarrien erabilera kontuan hartuko da, ingurumenean sortzen den inpaktua murrizteko asmoz izan ere, material hauek berrerabiliak edo birmoldatuak izan daitezke. Gainera, eduki birziklagarria duten, hau da, materiala fabrikatzean birziklatu den material bat erabiltzen duten materialen erabilera ere kontua hartuko da. Horrela, material berrien erauzketan ingurumenean sortzen den inpaktua murrizten da.

Kontsideratuko diren materialak, bai isolatzailea bai, estalduran erabilitako materialak izango dira.

- Balioztatzeko era

Alde batetik, konparatuko da material isolatzaile birziklagarria erabiltzen duen alternatiba, birziklagarria ez den isolatzailea erabiltzen duen beste alternatibarekin. Eta bestetik, alternatibak konparatuko dira kontuan izanda erabiltzen duten isolatzaileak eduki birziklagarria duen edo ez. Gerta daiteke material batek eduki birziklagarria izatea eta gainera birziklagarria ere izatea.

Planteatu den berdina estalduran erabiltzen diren materialekin egingo da izan ere, isolamenduan erabiltzen diren material isolatzaileak eta estalduran erabiltzen diren materialak ez dira berdinak.

Hortaz, adierazle hau ebaluatzerako orduan, kontuan hartuko da material isolatzaileen eta estaldurarako erabiltzen diren materialen birziklatzea eta materialen edukiera edo jatorria.

Merkatuan ezaugarri termiko eta akustiko desberdinak dituzten material isolatzaile desberdinak existitzen dira. Baina material hauek ingurumenean sortzen duten inpaktua zein den ebaluatzeko hauen birziklagarritasuna kontuan hartuko da. Horretarako, bi parametro aintzat hartuko dira. Parametro hauek ebaluatuko dute materiala birziklagarria den edo ez eta eduki birziklagarria duten edo ez.

**1) Isolatzaile birziklagarria:** parametro hau ebaluatzeko erabiliko den isolatzailearen birziklatzearen inguruko informazioa behar da.

Asetze maximoko balioa: Isolatzaile birziklagarria erabiltzen duen alternatiba.


Asetze minimoko balioa: Isolatzaile ez birziklagarria erabiltzen duen alternatiba.

Parametro honen balio-funtzioa, hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, ikusi 5.6. Taula

Isolatzaile birziklagarria		
X	Ez	Bai
Y	0	1

5.6. Taula: Isolatzaile birziklagarria

Proposatzen den balio-funtzioaren forma eskaloit funtzioa izango da, asetze balioa 1 edo 0 izan daitekeelako bakarrik eta 5.9. Grafikoaren bidez adierazten da.



5.9. Grafikoa: Isolatzaile birziklagarria

**2) Birziklatutako edukia duen isolatzailea:** birziklatutako edukia duen isolatzailearen erabilera ebaluatuko da. Konparatuko da birziklatutako edukia duen isolatzailea erabiltzen duen alternatibak erabiltzen ez duenarekin.

Asetze maximoko balioa: birziklatutako edukia duen isolatzailea erabiltzen duen alternatibaren bidez definituko da balio hau.


Asetze minimoko balioa: birziklatutako edukia ez duen isolatzailea erabiltzen duen alternatibaren bidez definituko da balio hau.

Parametro honen balio-funtzioa, hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, ikusi 5.7. Taula.

Birziklatutako edukia duen isolatzailea		
X	Ez	Bai
Y	0	1

5.7. Taula: Birziklatutako edukia duen isolatzailea

Proposatzen den funtzioaren forma eskaloi funtzioa izango da, aurreko parametroan bezala eta hurrengo 5.10. Grafikoaren bidez adierazten da.



5.10. Grafikoa: Birziklatutako edukia duen isolatzailea

Kontuan hartuta isolatzaileez gain estaldurarako beste material batzuk erabiltzen direla alternatibetan jarraian, isolatzaileekin planteatu den gauza bera planteatuko da baino kasu honetan estaldurarako materialentzat. Hortaz, aurretik ezarritako bi parametroak erabiliko dira estaldurarako erabiltzen den materialaren birziklagarritasuna neurtzeko. Izan ere, isolatzaileekin gertatzen den bezala birziklagarriak eta birziklatutako edukia duten materialak existitzen dira.

**3) Isolatzailea ez den material birziklagarria:** Materiala birziklagarria den edo ez ebaluatzeko material isolatzaileekin erabili den planteamendu berdina erabiliko da.

Parametro hau baloratzeko, estaldurarako erabiltzen den material birziklagarria erabiltzen duen alternatiba konparatuko da, birziklagarria ez den materiala erabiltzen duen beste batekin.

Asetze maximoko balioa: estaldurarako erabiltzen den material birziklagarria erabiltzen duen alternatiba.


Asetze minimoko balioa: estaldurarako erabiltzen den material ez birziklagarria erabiltzen duen alternatiba

Parametro honen balio-funtzio hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, ikusi 5.8. Taula.

Isolatzailerik ez den material birziklagarria		
X	Ez	Bai
Y	0	1

5.8. Taula: Isolatzailerik ez den material birziklagarria

Balio-funtzioaren forma eskaloitako funtzio izango da ere, hurrengo 5.11. Grafikoa adierazten den bezala.



5.11. Grafikoa: Isolatzailerik ez den material birziklagarria

**4) Birziklatutako edukia duen isolatzailerik ez den materiala:** birziklatutako edukia duen material ez isolatzailerik ez den materialaren erabilera neurtuko da. Konparatuko da birziklatutako edukia duen material ez isolatzailerik ez den materiala erabiltzen duen alternatiba, birziklatutako edukia ez duen material ez isolatzailerik ez den materiala erabiltzen duen alternatibarekin.

Asetze maximoko balioa: birziklatutako edukia duen material ez isolatzailerik ez den materialaren bidez definituko da balio hau.


Asetze minimoko balioa: birziklatutako edukia ez duen material ez isolatzailerik ez den materialaren bidez definituko da balio hau.

Aurreko kasuetan bezala, parametro honen balio-funtzioa, hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, ikusi 5.9. Taula.

Birziklatutako edukia duen isolatzailea ez den materiala		
X	Ez	Bai
Y	0	1

5.9. Taula: Birziklatutako edukia duen isolatzailea ez den material

Funtzioaren forma ere eskaloi funtzioa izango da eta hurrengo 5.12. Grafikoaren bidez adierazita dago.



5.12. Grafikoa: Birziklatutako edukia duen isolatzailea ez den materiala

Isolatzailea ez den materialen kasuan, existitzen diren esku-hartze desberdinak kontuan hartu beharko dira, hauetan erabiltzen den estaldura edo akabera desberdina baita.

Aire-ganbera injektatzean edo insuflatzean ez da inolako materialerik erabiltzen estaldurarako bai esku-hartzea barnetik denean bai kanpotik denean. Hortaz, kasu honetan, definitu diren azken bi parametro hauen asetze balioa maximoa izango da, hau da, 1-eko balioa.

Barnetik egindako isolamendu sistemetan estaldurarako erabiltzen den materiala igeltsua da, 4. Kapitulan ikusi den bezala. Igeltsuzko plaka hauek igeltsuz osatuta daude eta hau mineral naturala eta igeltsu birziklatua nahastuz lortzen da. Halaber, material hau ez da birziklagarria, material honen birziklatzea European nahiko berria baita.

Esku-hartzea kanpotik egiten den sistemetan, orokorrean, bi material mota erabiltzen dira estaldurarako bata morteroa eta bestea plakazko estaldura. Hortaz, material hauek birziklagarriak diren edo birziklatutako edukia duten ebaluatu beharko da.

Kasu honetan, definitutako lau parametroak kontuan hartuta zehaztuko da adierazlea. Aurreko adierazleetan bezala, oraingoan ere adituen talde bat erabiliko da parametro bakoitzak adierazlearen barruan duen pisua zehazteko. Adituen arabera, birziklagarria parametroak eta birziklatutako edukia parametroak %43ko eta %57ko pisua dute, hurrenez hurren. Hortaz, bi

parametro hauek ez dute era berean baldintzatzen adierazlea. Dauden alternatiba guztiak aintzat hartuz, esan daiteke, erabiltzen den isolatzailearen lodiera minimoa 40 mm-koa dela, gutxi gorabehera, eta akaberarako erabiltzen den materialaren lodiera maximoa 15 mm-koa da, gutxi gorabehera. Hortaz, birgaitze sistemetan erabiltzen den isolatzailearen bolumena edo kantitatea handiagoa da, estaldurarako erabiltzen den materialarena baino. Horregatik, isolatzailearen materialek eta estaldurarako erabiltzen diren materialek ez dute era berdinean baldintzatuko adierazlea. Isolatzaileak, gehitzen den material kantitate handiena izanik, duen pisua edo garrantzia adierazlearen barruan handiagoa izango da, estaldurarako erabiltzen den materialak duena baino. Bi material hauek duten pisua zehazteko adituei kontsultatu zaie.

Ondorioz, adierazlea hurrengo ekuazioaren bidez definituko da:

$$V_{ind} = 0,58 * (0,43 * Y_{isol\ birz} + 0,57 * Y_{isol\ eduk}) + 0,42 * (0,43 * Y_{ez\ isol\ birz} + 0,57 * Y_{ez\ isol\ eduk}) \quad [5. 14]$$

Non:

- $Y_{isol\ birz}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balio kontuan hartuta material isolatzailea birziklagarria den edo ez.
- $Y_{isol\ eduk}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balio kontuan hartuta material isolatzailea birziklatutako edukia duen edo ez.
- $Y_{ez\ isol\ birz}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balio kontuan hartuta material ez isolatzailea birziklagarria den edo ez.
- $Y_{ez\ isol\ eduk}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balio kontuan hartuta material ez isolatzailea birziklatutako edukia duen edo ez.

Adierazlearen balio 0 eta 1 artean egon behar du.

Asetze maximoko balioa: [5. 14] ekuazioa erabiliz lortutako balio maximoak definituko du.

Asetze minimoko balioa: [5. 14] ekuazioa erabiliz lortutako balio minimoak definituko du.

### 5.5.2.2. Sortutako hondakinak

- Definizioa

Hondakinak eraikinaren bizitza-ziklo osoan zehar sortu daitezke, hau da, egikaritze prozesuan zehar, erabileran edo eraispenean zehar sortu daitezke hondakinak. Kasu honetan, birgaitzearen egikaritze prozesuan sortzen diren hondakinak aztertuko dira. Horrela, egikaritze prozesuan sortutako hondakinak ingurumenean inpaktu gutxien eragiten duen alternatiba ebaluatu daiteke, beste alternatiba batekin alderatuta.

Egikaritze prozesuan zehar sortzen diren hondakinek ingurumenean sortzen duten inpaktua murrizteko hauen kudeaketa egoki bat egin behar da. Horretarako, birgaitze prozesuan sortzen diren hondakinen bolumena kontuan hartuko da izan ere, zen bat eta bolumen edo kantitate handiagoa sortu, orduan eta konplikatuagoa izango da huen kudeaketa.

- Balioztatzeko era


Alternatiba batek beste batekin alderatuta sortzen dituen hondakinak baloratzeko, aurretik komentatu den prezio sorgailua erabiliko da. Programa honen bidez, alternatibaren egikaritzean zehar sortzen den hondakin bolumena edo kantitatea zehaztu daiteke.

Asetze maximoko balioa: Egikaritzean zehar hondakin bolumen txikiena sortzen duen alternatibaren bidez definitzen da.  $X_{\min} = 0,106$  kg.

Asetze minimoko balioa: Egikaritzean zehar hondakin bolumen handiena sortzen duen alternatibaren bidez definitzen da.  $X_{\max} = 4,142$  kg.

- Balio-funtzioa

Adierazle honentzat proposatzen den balio-funtzioa funtzio beherakor bat da izan ere, zenbat eta sortzen den hondakin bolumena handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da asetzaren balio. Balio-funtzio honen forma ahurra izango da zeren, balioa asetzeko balio maximoetik urruntzen doan heinean balioaren maila nabarmenki txikitzen baita (Ikusi 5.13. Grafikoa). Horrela, hondakin gutxi sortzen duten materialen erabilera sustatzen da.



5.13. Grafikoa: sortutako hondakinak

### 5.5.2.3. Ingurumen-inpaktua

- Definizioa

Eraikinek, era batean edo bestean, inpaktu bat sortzen dute ingurumenean. Inpaktu hau sortzen da erabiliko diren materialen lehengaiak eraztean, materialak fabrikatzean, erabileran eta eraispenean, hau da, eraikinetan, era batean edo bestea, bere bizitza-ziklo osoan zehar ingurumenean kalteak sortzen dituelako. Hau batez ere, bizitza-ziklo osoan zehar kontsumitzen den energiaren eta isurtzen diren CO<sub>2</sub> emisioen ondorioz gertatzen da. Kontsumitzen den energiaren eta isurtzen diren CO<sub>2</sub> emisioen %90a materialaren erazte eta fabrikazio fasean





da. Izan ere, gaur egun produktuen ingurumen-aitorpenak (declaraciones ambientales de los productos, DAP<sup>12</sup>) hautakoak dira. Gainera, existitzen diren produktuen ingurumen-aitorpenek ez dute modelo bakar bat jarraitzen, herrialdearen arabera inpaktu batzuk edo beste batzuk aintzat hartzen baitira eta ez baitira era berdinean kalkulatu. Hau dela eta, orokorrean informazioa hori eskuratzeko estatu mailan dauden datu-baseak erabiltzen dira.

- Balioztatzeko era

Adierazle hau ebaluatzeko ITeC-k (Instituto de Tecnología de la Construcción de Cataluña) garatutako BEDEC<sup>13</sup> datu-bankua (Banco Estructurado De Datos de Elementos Constructivos) erabiliko da. Datu-banku honetan material kantitatearen arabera eta unitate neurrian kalkulatuak CO<sub>2</sub> emisioak eta kostu energetikoak eskuragarri daude.

Hortaz, adierazle hau kalkulatzeko bi parametro kontuan hartuko dira:

**1) Gehitutako energia:** BEDEC datu-bankua erabiliz alternatiba bakoitzak erabili duen isolatzailearen kostu energetikoa kalkulatu da. Kostu energetikoa kontuan hartzen da: erauzketa prozesua, jatorritik fabrikarainoko garraioa eta materialaren fabrikazio prozesua.

Asetze maximoko balioa: Materialaren erauzketa prozesuan, jatorritik fabrikarainoko garraioan eta fabrikazio prozesuan gehitu behar den energia kantitate, MJ-tan neurtuta, txikienarekin zehazten da balio hau.  $X_{\min} = 21,67$  MJ.


Asetze minimoko balioa: Materialaren erauzketa prozesuan, jatorritik fabrikarainoko garraioan eta fabrikazio prozesuan gehitu behar den energia kantitate, MJ-tan neurtuta, handienarekin zehazten da balio hau.  $X_{\max} = 2163,12$  MJ.

Parametro honen balio-funtzioa beherakorra izango da izan ere, zenbat eta energi gutxiago gehitu materiala produzitzeko, orduan eta asetze handiagoa lortzen da. Kurbaduraren forma funtzioa ahurra izango da, balioaren maila nabarmenki txikitzen baita asetze maximoko baliotik urruntzen den heinean. (Ikusi 5.14. Grafikoa). Honela, isolatzaileen fabrikazioan energi gutxi behar duten material isolatzaileen erabilera sustatzen da.

---

<sup>12</sup> Produktu baten Ingurumen-Aitorpena (Environmental Product Declaration, EPD) dokumentu bat da non, ISO arauetan oinarrituta dagoen. Bere helburua produktu batek bizitza-ziklo osoan zehar sortzen duen ingurumen-inpaktuaren informazio kuantifikatzailea eskaitzea da.

<sup>13</sup> BEDEC bankua Espainia osoan zehar aplikatzen den banku parametrikoa da. Eraikuntzako elementuen ingurumen-datuak (obren eta enbalajearen hondakinak, kostu energetikoa, CO<sub>2</sub> emisioak, lehengaiaren %, birziklatutako materialaren % eta kostu totala ) ditu.




5.14. Grafikoa: Gehitutako energia

2) **CO<sub>2</sub> emisioak:** Alternatiba bakoitzak erabilitako isolatzaileak isuritako CO<sub>2</sub> emisioak kalkulatzeko BEDEC banku-basea erabiliko da.

Asetze maximoko balioa: Isolatzaile batek isurtzen dituen CO<sub>2</sub> emisio kantitate, Kg-tan neurtuta, txikiaren bidez zehazten da.  $X_{min} = 1,32$  Kg.

Asetze minimoko balioa: Isolatzaile batek isurtzen dituen CO<sub>2</sub> emisio kantitate, Kg-tan neurtuta, handieraren bidez zehazten da.  $X_{max} = 310,85$  Kg.

Parametro honentzat proposatzen den funtzioa funtzio beherakor bat da, zenbat eta CO<sub>2</sub> emisio gehiago isuri material isolatzaileak, orduan eta txikiagoa izango baita asetze balioa. Funtzioaren forma funtzio ahurra izango da izan ere, asetze maximoko baliotik urruntzen den heinean balioaren maila nabarmenki txikitzen da (Ikusi 5.15. Grafikoa). Era honetan, CO<sub>2</sub> gutxi isurtzen duten isolatzaileen erabilera sustatzen da, aurreko parametroan bezala.

5.15. Grafikoa: Material isolatzailearen CO<sub>2</sub> emisioak

Bi parametro hauek aintzat hartuta, ingurumen-inpaktu adierazlea zehazten da. Aurreko kasuetan bezala, parametroek adierazlearen barruan duten pisua zein den jakiteko adituen taldeari galdetu zaio. Kontsultatutako adituen taldearen arabera, bi parametroek balio berdinarekin baldintzatzen dute adierazlea. Hortaz, alternatiba baten isolatzailearen fabrikazio prozesuan gehitzen den energiaren pisua %50a da, adierazlearen barruan eta isurtzen diren CO<sub>2</sub> emisioen pisua beste %50a izango, da adierazlearen barruan.

Adierazlea hurrengo eran definituta egongo da, kontuan hartuta ikusitako bi parametroak:

$$V_{ind} = 0,5 * Y_{gehitutako energia} + 0,5 * Y_{CO_2 emisioak} \quad [5. 15]$$

Non:

- $Y_{gehitutako energia}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balioa kontuan izanda, erabiltzen den isolatzailean gehitu den energia.
- $Y_{CO_2 emisioak}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balioa kontuan izanda, erabiltzen den isolatzaileak isurtzen dituen CO<sub>2</sub> emisioak.

Adierazlearen balioa 0 eta 1 artean egon beharko da.

Asetze maximoko balioa: [5. 15] ekuazioa erabiliz lortutako balio maximoak definituko du. Gehitutako energia gutxien eta isuritako CO<sub>2</sub> emisio kantitate gutxien duen material isolatzailearen bidez definitzen da.

Asetze minimoko balioa: [5. 15] ekuazioa erabiliz lortutako balio minimoak definituko du. Gehitutako energia gehien eta isuritako CO<sub>2</sub> emisio kantitate gehien duen material isolatzailearen bidez definitzen da.

#### 5.5.2.4. CO<sub>2</sub>-aren aurreztea

- Definizioa

Adierazle honen bidez ebaluatuko da jatorrizko eraikinarekin konparatuta, alternatiba batek lortzen duen CO<sub>2</sub> emisioen aurreztea, beste alternatiba batekin alderatuta.

Alternatiba bakoitzak eraikinaren fatxadan egiten dituen hobekuntza energetikoen bidez berogailuaren eta hozte-sistemetan kontsumoa murriztea lortzen da. Aurretik komentatu den bezala, bakarrik kontuan hartuko da berogailuaren kontsumoa izan ere, Euskadiko etxebizitzetan dauden hozte-sistemen kantitatea oso urria da. Berogailuan lortzen den murrizketa kuantifikatu daiteke kontuan hartuta lortzen den CO<sub>2</sub>-aren aurreztearekin. Berogailuaren kontsumoa murriztean, lehengaien kontsumoa ekiditen edo murrizten da eta era berean, CO<sub>2</sub>-aren emisioak murrizten dira (erregai-kontsumoaren eta/edo kontsumo elektrikoaren ondorioz isuritakoak, etxebizitzan erabiltzen den berogailu sistemaren arabera). Honela, ingurumenean sortzen den inpaktua murrizten da izan ere, negutegi efektuko gasen (ekosisteman eta gizakian kalteak sortzen dituzten gasak) isuriak murrizten dira.

Halaber, eraikinaren erabilera eta mantenu fasea CO<sub>2</sub> emisio kantitate handiena isurtzen diren fasea da, aurreko adierazlean komentatu den bezala. Hortaz, fase honetan isuri egiten diren emisioak murrizten badira, eraikinak ingurumenean sortzen duen inpaktua nabarmenki murriztuko da.

- Balioztatzeko era


Berogailu kontsumoaren aurreztearen ondorioz, CO<sub>2</sub>-aren aurreztea kalkulatzeko eraikinaren ziurtagiri energetikoa kalkulatzeko erabiltzen den programa informatikoa erabiliko da, CEX v2.3. Programa honek jatorrizko eraikinarekin (birgaitu gabeko eraikina) konparatuta alternatiba bakoitzak lortzen duen CO<sub>2</sub>-aren aurreztea kalkulatu du, ehunekotan adierazita.

Asetze maximoko balioa: Jatorrizko eraikinarekin alderatuta lortzen den CO<sub>2</sub>-aren aurrezte kantitate handienak zehaztuko du balio hau.  $X_{\max} = \%55$ .

Asetze minimoko balioa: Jatorrizko eraikinarekin alderatuta lortzen den CO<sub>2</sub>-aren aurrezte kantitate txikienak zehaztuko du balio hau.  $X_{\min} = \%6$ .

- Balio-funtzioa

Adierazle honentzako proposatzen den funtzioa, funtzio goranzkoa izango da izan ere, zenbat eta CO<sub>2</sub>-aren aurrezte handiagoa, orduan eta txikiagoak izango dira isuritako CO<sub>2</sub> emisioak eta beraz, asetzea handiagoa izango da. Bestetik, proposatzen den kurbaduraren forma, funtzio ganbila izango da, asetze minimoko baliotik urruntzen den heinean balioaren maila nabarmenki handitzen baita (Ikusi 5.16. Grafikoa). Honela, etxebizitzetan CO<sub>2</sub>-aren aurreztea sustatzen da. CO<sub>2</sub> emisioetan aurrezten den heinean balioa positiboki hazten da.

5.16. Grafikoa: CO<sub>2</sub>-aren aurreztea

### 5.5.3. Errekerimendu funtzionalaren adierazleak

Errekerimendu funtzionala kontuan hartuta, alternatiba desberdinen jasagarritasuna konparatzeko hurrengo adierazleak ezarri dira:

#### 5.5.3.1. Egikaritzearen konplexutasuna

- Definizioa

Alternatiba baten eraikuntzako konponbideak, beste alternatibak duenarekin alderatua, egikaritzerako orduan sor daitezkeen arriskuak eta egikaritzeak duen konplexutasuna neurtuko da adierazle honen bidez. Honela, alternatibaren edo birgaitze sistemaren egingarritasuna neurtuko da.

- Balioztatzeko era

Eraikuntzako konponbideen egikaritzeak duen konplexutasuna neurtzeko, alternatiba bakoitzean egikaritzeko orduan beharrezkoa den lan-eskua kontuan hartuko da. Egikaritze konplexua duen alternatiba bat burutzeko lan-esku gehiago, langile kualifikatuak, obran kontrol handiagoa, etab beharko da. Honek alternatibaren kostuan eragina dauka, egikaritze denbora handitzen delako eta beraz, alternatiba ez egingarri bihur daiteke.

Balorazioa hurrengo aukerak kontuan hartuta egingo da horretarako, alternatiba bakoitzaren egikaritze prozesuak aintzat hartuko dira, 4. Kapituluian ikusitakoak hain zuzen era:

- **Konplexutasun sinplea:** Alternatiba instalatzeko behar diren langileek ez dute esperientziarik behar, instalazio sinple bat baita. Hau trasdosatu zuzeneko barrutik egindako isolamendu termikoko sistemetan ematen da eta hauetan ez dago grabitateko istripuen arriskurik.

- **Konplexutasun normala:** Zenbait esperientzia duten langileen beharra. Kasu hau trasdosatu autosostengagarriko barrutik egindako isolamendu termikoko sistemetan ematen da eta hauetan ez dago grabitateko istripuen arriskurik.

- **Konplexutasun ertaina:** lan-esku trebea eta adituaren beharra. Kasu hau SATE sistemetan ematen da, esku-hartzea kanpotik egiten denez grabitateko istripuak agertzeko arriskua handitzen baita.

- **konplexua:** Arriskuen, hezetasun erregimenen teoriaren eta eroankortasun termikoaren inguruan aditua den lan-eskua behar da. Kasu hau fatxada aireztatuko sistemetan ematen da Izan ere, esku-hartzea kanpotik denez grabitateko istripuak agertzeko arriskua handitzen da eta isolatzailearen eta estalduraren instalazioa SATE sistemetan baino konplexuago da. Halaber, talde honen barruan etxebizitzetako barnetik egindako injekzio edo insuflazio sistemak daude, hezetasun erregimen inguruan eta eroankortasun termikoaren inguruan behar diren ezagutzengatik.

- **Oso konplexua:** Esku-hartze zaila, etorkizunean kaltetzeko arrisku altua delarik. Kasu hau fatxadaren kanpotik egindako injekzio edo insuflazio sistemetan ematen da, istripuak agertzeko arriskua baitago kanpotik eta altueran lan egiten delako.

Asetze maximoko balioa: Instalatzen errazena den alternatibak definitzen du.

Asetze minimoko balioa: Instalatzen konplexuena den alternatibak definitzen du.


- Balio-funtzioa

Funtzio tabulatu bat proposatzen da, goian aipatutako aukerak bakarrik existitzen direlako eta balio-funtzioa antzekoa baita aukera guztientzat. (Ikusi 5.10.Taula).

Egikaritzearen konplexutasuna					
x	Sinplea	Normala	Ertaina	Konplexua	Oso konplexua
y	1	0,7	0,5	0,2	0

5.10. Taula: Egikaritzearen konplexutasuna

Funtzio beherakor bat proposatzen da izan ere, zenbat eta alternatibaren instalazioa konplexuagoa izan, orduan eta asetze balioa txikiago izango da. Funtzioa, hurrengo 5.17. Grafikoaren bidez adierazten da.



5.17. Grafikoa: Egikaritzearen konplexutasuna

Hortaz, ebaluatzeko era kualitatiboa izango da izan ere, balio-funtzioa zehazteko momentu konkretu batean duen joera egoera kontuan hartzen da. Funtzioa prozesuan parte hartzen duten pertsonen pertzepzioen, usteen edo juizioen bidez eraikitzen da. Hauek baloratuko dute alternatiba bakoitzak duten egikaritzearen konplexutasuna kasu bakoitzean behar den lan-eskuaren arabera. Hau 5.10. Taulan adierazi da.

Mota honetako adierazleei kualitatiboa deitzen zaio, aldagai baten joera egoerari buruzko informazioa ematen baitu momentu konkretu batean. Funtzio hau prozesu konkretu baten esku-hartzean parte hartzen duten pertsonen pertzepzioekin, usteekin edo juizioekin eraikitzen da (118).

### 5.5.3.2. Suaren aurkako erreakzioa

- Definizioa

Alternatiba batek daukan suaren aurkako erreakzio neurtuko da, beste alternatiba batek duenarekin alderatuta.

Eraikinaren barruan dauden pertsonentzat beharrezkoa den segurtasuna lortzeko hauek, planifikatu eta eraiki behar dira kontuan hartuta suaren aurkako segurtasuna.

Eraikin baten fatxada birgaitzerako orduan, eraikinaren suaren aurkako segurtasuna aldatu daiteke, produktu berriak instalatzen baitira fatxadan. Hortaz, suaren aurkako segurtasuna ebaluatu behar da. Fatxadan instalatuko diren material berriek EKT-aren Sutetik Babesteko Segurtasun Oinarrizko Dokumentuetan (OD-SS) exijitzen dena bete behar dute (123). Dokumentu horretako 2. Eranskinean (suaren kanpoko hedapena) fatxadan instalatzen diren materialek bete behar dituzten exijentzia minimoak ezartzen dira. Fatxadaren kanpoko estalduraren edo aireztatutako aire-ganbereren barneko gainazalaren %10 baino gehiago betetzen duten materialek eranskin horretan ezartzen dena bete behar dute. Materialaren



Euroklasea<sup>14</sup> kontuan hartuta zehazten da materialak bete behar dituen exigentzia minimoak. (Ikusi hurrengo 5.11 . Taula)

Birgaitze mota		Isolatzailerearen betebeharrak minimoak, EKT-OD-SS-ren arabera
<b>Esku-hartzea kanpotik</b>	<b>18 m baino altuera txikiko fatxada aireztatua</b> abioarekin edo estalki eskuragarriarekin, fatxadaren hasierako 3,5 mm-entzat exijitzen dena.	<b>B-s3,d2</b>
	<b>18 m baino altuera handiko fatxada aireztatua</b> , exigentzia fatxada guztiarentzat da.	<b>B-s3,d2</b>
	<b>18 m baino altuera handiko fatxada aireztatua</b> , E30 suhesiekin 10 m-ko altuerarekiko edo hiru solairurekiko, exigentzia fatxada guztiarentzat da.	<b>C-s3,d2</b>
	<b>SATE fatxada.</b>	<b>B-s3,d2</b>
<b>Esku-hartzea barrutik</b>	Igeltsu ijaztatu plakez osatutako <b>barruko trasdosatu</b> bidezko fatxada.	<b>Exijentziarik gabe</b>
<b>Esku-hartzea aire-ganberatik</b>	Aire-ganberan <b>insuflatutako edo injektatutako</b> fatxada.	<b>Exijentziarik gabe</b>

5.11. Taula: Isolatzailereak bete beharreko exigentziak, erabilitako birgaitze sistema eta OD-SS arauaren arabera. Iturria: Propioa, Andimat-ek (asociación Nacional de Fabricantes de Materiales Aislantes) fatxaden inguruan eta isolatzailereen suaren erreakzioaren inguruan garatutako txostena erabiliz. 2016

Material isolatzailereak suaren aurkako duten portaeraren arabera Euroklaseetan sailkatu daitezke baino, portaera hau ez da bakarra izan ere, lodieraren, dentsitatearen, akabera motaren, itsasgarrien presentzia, azken erabilera-baldintza, eta abarren menpe egongo da. Azken erabilera-baldintza kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat da, kontuan hartzen direlako instalatzeko era, muntaia, juntak, etab. Hau dela eta, UNE-EN 15715 (124) arauaren bidez material isolatzailereen portaera entseatzeko da azken erabilera-baldintza desberdinak simulatzen dira. Honela, materialek suaren aurkako duten portaeraren inguruko informazioa handitzen da.

Hurrengo 5.12. Taulan birgaitze sistemetan erabilitako materialen portaera ikus daiteke, kontuan hartuta komentatutako haien azken erabilera-baldintza.

<sup>14</sup> Euroklasea eraikuntzako produktuak eta elementuak suaren aurkako duten portararen arabera sailkatzeko era bat da. Horretarako, UNE-EN 13501-1 (110) arauaren arabera egindako saiakuntzetan lortutako datuak erabiltzen dira. Euroklasearekin materialak letrekin sailkatzen dira suan duten ekarpenaren arabera, A1, A2, B, C, D, E, F letren bidez. A1 letra erregaitza eta suan ekarpenik ez duen material bati dagokio. E letra aldiz, erregaia eta suan erakarpen altua duen material bati dagokio eta F letra sailkatu gabeko eta portaera zehaztu gabeko material bati dagokio. Halaber, Euroklaseak ere zehazten du kearen opakutasuna S1, S2, S3 adierazle bidez, S1 ke kantitate gutxi sortzen duen material bat izanik eta S3 kantitate handia sortzen duen materiala. Gainera, tanten/partikulen erortzea ezartzen da d0, d1, d2 adierazle bidez, d0 tantarik/partikularik sortzen ez denean izanik, d1 tanta/partikula ez sukoiaren erorketa ematen denean eta d2 tanta/partikula sukoiaren erorketa ematen denean.

Material isolatzaileak	Euroklasea
Buztin hedatua	A1
Zuntz minerala estaldurarik gabe	A1, A2-s1d0
Zuntz minerala estaldurarekin	A1, A2-s1d0, B-s1d0, E, F
Zuntz mineraleko sandwich metalikoko panela	A2-s1d0
Poliestireno estructuretua (XPS) estaldurarik gabe	E, F
Poliestireno estructuretua (XPS) zarpiatuarekin	B-s1d0, E
Poliestireno estructuretua (XPS) igeltsu ijeztatu plakarekin	B-s1d0, E
Poliestireno hedatua (EPS) estaldurarik gabe	E, F
Poliestireno hedatua (EPS) igeltsu ijeztatu plakarekin	B-s1d0, E
Poliestireno hedatua (EPS) zarpiatuarekin	B-s1d0, E
Poliestireno proiektatua (PUR) estaldurarik gabe	C-s3d0, D-s3d0, E
Poliuretano konformatuko xaflak (PUR) estaldurarekin	B-s1d0, C-s2d0, D-s2d0, E, F
Poliuretano sandwicheko metalikoko panela (PUR)	B-s2d0, D-s3d0
Apar elastomerikoko xaflak estaldurarik gabe	B-s2d0, C-s3d0, D-s3d0, F
Egurrezko zuntz xaflak	A-s1d0, B-s1d0

#### 5.12. Taula: Material isolatzaileen Euroklasea

Iturria: Propioa Andimat-ek (asociación Nacional de Fabricantes de Materiales Aislantes) fatxadaren inguruan eta isolatzaileen suaren erreakzioaren inguruan garatutako txostena erabiliz. 2016

Hortaz, material isolatzailearen Euroklasea eta erabilitako birgaitze mota kontuan hartu beharko da. Erabilitako birgaitze sistemetan kontuan hartu beharko da isolatzailearen kokalekua, hau da, fatxadaren kanpotik instalatzen bada edo barnetik edo aire-ganberaren barruan. Halaber, birgaitze sistema bakoitzean erabilitako estaldura kontuan hartu beharko da izan ere, komentatu den bezala, isolatzaileak duen suaren aurkako portaera aldatzen da erabilitako estalduraren arabera.

- Balioztatze era

Komentatutako guztia aintzat hartuta, adierazlea ebaluatuko da kontuan hartuta birgaitze sistema, erabilitako estaldura mota eta isolatzailearen Euroklasea.

**1) Isolatzaile mota:** Erabiltzen dituen isolatzaileak erregaiak edo erregaitzak izan daitezke. Material erregaitzek ez dute suan ekarpenik eta A1 eta A2 Euroklasearen bidez sailkatzen dira. Orokorrean, jatorri inorganikoa duten material isolatzaile guztiak erregaitzak dira, zuntz minerala bezala. Material erregaiak aldiz, B-tik E-ra doan Euroklasearen bidez sailkatzen dira suaren erakarpenaren arabera. Material hauek jatorri organikoa dute esaterako, poliestireno hedatua (EPS) edo egurrezko zuntza. Hortaz, isolatzaileek duten suaren aurkako erreakzioa ebaluatze hauen Euroklaseak erabiliko dira.

Parametro honen funtzioa eskaloi funtzio baten bidez definitzen da, hurrengo funtzio tabulatuaren arabera, 5.13. Taula:


Suaren aurkako erreakzioa erabilitako materialaren arabera		
x	Material erregaitza (A1, A2)	Material erregaia (B-E)
y	0,5	0

5.13. Taula: Suaren aurkako erreakzioa erabilitako materialaren arabera

Asetze maximoko balioa: Erregaitza den isolatzaileak definitzen du, A1 edo A2 Euroklasea duen isolatzailea.

Asetze minimoko balioa: Erregaia den isolatzaileak definitzen du, B-tik E-ra Euroklasea duen isolatzailea.

Parametro honen eskaloi funtzioa hurrengo 5.18 . Grafikoaren bidez adierazten da.



5.18. Grafikoa: Suaren aurkako erreakzioa erabilitako isolatzailearen arabera

**2) Estaldurarako materiala:** Halaber, alternatiba batek, beste batekin alderatuta, duen suaren aurkako erreakzioan estaldurarako erabili den materialak eragina dauka, aipatu den bezala. Hortaz, estaldurarako erabili diren materialak erregaitzak edo erregaiak diren kontuan hartu beharko da. Adibidez, kanpoko esku-hartzetan erabiltzen diren plakazko estaldura gehienak eta barruko esku-hartzetan erabiltzen den igeltsu ijeztatu plakak erregaitzak dira. Aitzitik, egurrezko edo PVC-zkoak estaldurak erregaiak dira.

Parametro honen funtzioa aurrekoaren berdina izango da, eskaloi funtzio bat. Hurrengo 5.14. Taulan parametro honen balio-funtzioa erabilitako estaldura motaren arabera adierazten da.


Suaren aurkako erreakzioa estaldurarako erabilitako materialaren arabera		
x	Material erregaitza	Material erregaia
y	0,5	0

5.14. Taula: Suaren aurkako erreakzioa estaldurarako erabilitako materialaren arabera

Asetze maximoko balioa: Erregaitza den estaldurarako erabilitako materialak definitzen du.

Asetze minimoko balioa: Erregaia den estaldurarako erabilitako materialak definitzen du.

Proposatutako eskaloi funtzioa, hurrengo 5.19. Grafikoan irudikatuta dago.



5.19. Grafikoa: Suaren aurkako erreakzioa estaldurarako erabilitako materialaren arabera

**3) Isolatzailearen kokapena:** Isolatzailearen kokapena kontuan hartu beharko da alternatiba batek, beste batekin alderatuta, duen suaren aurkako erreakzioa ebaluatzeko.

Isolatzailea fatxadaren aire-ganberan kokatuta badago ez da estaldurarako materialerik gehitu behar. Kasu honetan, balio-funtzioa ere eskaloi funtzio bat izango da eta hurrengo 5.15. Taularen bidez adierazten da.

Suaren aurkako erreakzioa isolatzailea aire-ganberaren barruan dagoenean				
x	Isolatzaile mota		Estaldura mota	
	Material erregaitza (A1, A2)	Material erregaia (B-E)	Material erregaitza	Material erregaia
y	1	0	Ez dago estaldurarik	

5.15. Taula: Suaren aurkako erreakzioa isolatzailea aire-ganberaren barruan dagoenean

Asetze maximoko balioa: Erregaitza den isolatzaileak definitzen du, A1 edo A2 Euroklasea duen isolatzailea.

Asetze minimoko balioa: Erregaia den isolatzaileak definitzen du, B-tik E-ra Euroklasea duen isolatzailea.

SATE sistemetan edo fatxadaren barnetik instalatzen denean isolatzailea, hau erabiltzen den estaldurarekin babestuta dago. Kasu honetan, isolatzailearen suaren aurkako erreakzioa erabilitako estalduraren menpe dago hortaz, suaren aurkako erreakzioa erabilitako estaldurarako materialak zehaztuko du. Bi isolamendurako sistema hauetan edozein isolatzaile erabilgarria da suaren aurka. Kasu honetan ere, funtzioa eskaloi funtzio bat izango da eta hurrengo 5.16. Taulan definitzen da.

Suaren aurkako erreakzioa SATE eta barnetik egindako isolamendu sistemetan				
x	Isolatzaile mota		Estaldura mota	
	Material erregaitza (A1, A2)	Material erregaia (B-E)	Material erregaitza	Material erregaia
y	0,5		0,5	0

5.16. Taula: Suaren aurkako erreakzioa SATE eta barnetik egindako isolamendu sistemetan

Asetze maximoko balioa: Erregaitza den estalduran erabilitako materialak definitzen du.

Asetze minimoko balioa: Erregaia den estalduran erabilitako materialak definitzen du

Azkenik, gogoratu behar da fatxada aireztatuetan isolatzailearen eta estalduraren artean aire-ganbera bat existitzen dela hortaz, kasu hauetan isolatzailea ez dago estaldurarekin babestua. Ondorioz, isolamendu sistema hauetan isolatzailearen Euroklasea eta erabilitako estaldura mota kontuan hartu beharko da, suaren aurkako erreakzioa zehazteko. Kasu honetan funtzio ere eskaloi funtzio bat izango da, aurreko kasuetan bezala eta hurrengo 5.17. Taularen bidez adieraziko da.

Suaren aurkako erreakzioa fatxada aireztatuen kasuan				
x	Isolatzaille mota		Estaldura mota	
	Material erregaitza (A1, A2)	Material erregaia (B-E)	Material erregaitza	Material erregaia
y	0,5	0	0,5	0

5.17. Taula: Suaren aurkako erreakzioa fatxada aireztatuen kasuan

Asetze maximoko balioa: Erregaitza den isolatzaillea eta estalduran erabilitako materialak definitzen du.

Asetze minimoko balioa: Erregaia den isolatzaillea eta estalduran erabilitako materialak definitzen du

Aipaturako hiru parametro hauek aintzat hartuta, asetze maximoko eta minimoko balioa hurrengo eran definitzen dira:

Asetze maximoko balioa: balio hau definitzen da isolatzaille erregaitzaren eta estalduran erabilitako material erregaitzaren bidez. Estaldurarik ez dagoen kasuan hau da, aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemen kasuan, balioa isolatzailleari ezarritako balioaren menpe egongo da bakarrik. SATE eta barnetik egindako isolamendu sistemetan isolatzaillearen balio maximoa izango da beti.

Asetze minimoko balioa: balio hau definitzen da isolatzaille erregaiaren eta estalduran erabilitako material erregaiaren bidez. Kasu honetan, balio hau fatxada aireztatuen bidez eta aire-ganberaren barnetik egindako sistemen bidez definitzen da bakarrik.

Adierazle hau baloratzeko proposatzen dena hurrengo 5.18. Taulan adierazten da izan ere, goian aipaturako aukerak bakarrik existitzen dira eta hauen balio-funtzioa antzekoa da.

Suaren aurkako erreakzioa					
Sistema mota	Funtzioaren balioa	Isolatzaille mota		Estaldura mota	
		Erregaitza (A1, A2)	Erregaia (B-E)	Erregaitza	Erregaia
Fatxada aireztatua	y	0,5	0	0,5	0
SATE	y	0,5		0,5	0
Barnetik	y	0,5		0,5	0
Aire-ganbera	y	1	0	Ez dago	

5.18. Taula: Suaren aurkako erreakzioa

### 5.5.3.3. Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea

- Definizioa

Adierazle honen bidez eraikinaren birgaitze prozesua hasi baino lehen jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea ebaluatu nahi da.

Esku-hartzea kanpotik egiten den alternatibetan instalazioa jatorrizko fatxadako euskarrian egiten da. Alternatiba hauek fatxadaren egonkortasunean eragin dezakete beti ere, fatxadako jatorrizko euskarria egokia ez denean izan ere, birgaitze prozesuan material bolumen eta pisu gehiago gehitzen zaio euskarriari.

Hortaz, alternatiba baten erabilera beste betekin alderatzeko, energetikoki birgaituko den eraikinaren jatorrizko fatxadako euskarriaren egoera zehaztu behar da. Fatxadaren egokitzeak edo ez erabili daitekeen alternatibarik onena zehaztuko du. Fatxadako euskarria ez bada gai birgaitze prozesuan gehitzen zaion pisua jasateko, prozesua hasi baino lehen prestatu beharko da euskarria, inbertsioaren kostua handituz. Halaber, jatorrizko fatxadako euskarria ezegonkorra bada, ezin izango da egin obrarik fatxadan hortaz, esku-hartzea kanpotik egiten duten alternatibak ezin dira erabili.

- Balioztatzeko era

Adierazle hau ebaluatzeko hurrengo aukerak zehazten dira, kontuan hartuta 4. Kapituluaren komentatutako egikaritze prozesuak:

- **Ona:** Jatorrizko fatxadako euskarria egonkorra da eta ez da behar inolako aurretiko jarduketarik birgaitze prozesua egikaritzeko. Egoera honetan edozein birgaitze alternatiba instalatu daiteke eraikinaren fatxadan.

- **Erregularra:** Jatorrizko fatxadako euskarria egonkorra da baino aurretiko jarduketak behar ditu. Gainera, fatxadaren birgaitzearen egikaritzearekin hasi baino lehen konponketak egitea beharrezkoa da adibidez, fatxadan pitzadurak agertu direlako. Kasu honetan, ezingo da SATE sistema instalatu aurretik fatxadan konponketak ez badira egiten.

- **Ezegonkorra:** Jatorrizko fatxadako euskarria ezegonkorra da. Kasu honetan, esku-hartzea kanpotik egiten duten alternatibak ezin dira erabili.

Asetze maximoko balioa: zehazten da jatorrizko fatxadako euskarria ona dela definitzen denean.

Asetze minimoko balioa: zehazten da jatorrizko fatxadako euskarria ezegonkorra dela definitzen denean


- Balio-funtzioa

Adierazle honentzat proposatzen den funtzioa, funtzio tabulatu bat da, 5.19. Taula, izan ere, goian aipatutako aukerak bakarrik existitzen dira eta funtzio antzekoa da guztientzat.

Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea			
x	Ona	Erregularra	Ezegonkorra
y	1	0,4	0

5.19. Taula: Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea

Halaber, proposatzen den funtzioa, funtzio beherakorra da izan era, zenbat eta handiagoak izan fatxadako euskarriak dituen arazoak, orduan eta asetze balioa txikiagoa izango da. Funtzio hurrengo 5.20. Grafikoaren bidez irudikatuta dago



5.20. Grafikoa: Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea

#### 5.5.3.4. Kondentsazioen aurkako isolatzailearen portaera

- Definizioa

Adierazle honek alternatiba batean, beste batekin alderatuta, erabiltzen den isolatzaileak temperatuta eta hezetasun baldintza konkretuetan kondentsazioen aurrean duen portaera ebaluatzen du.

Ingurumeneko hezetasun erlatibo baxuko baldintzetan, lurrunaren transmisioa materialen poroen bitartez ematen den lurrun hedapenarekin garraiatzen da. Hezetasun erlatiboa igotzen den heinean, materialaren poroetan betetzen den ur likidoaren kopurua handitzen da. Hortaz, hezetasun erlatiboa handitzen den heinean, lurrun hedapenarekiko materialak duen erresistentzia txikitzen da (124).

Material isolatzaile batek xurgatu dezakeen hezetasun kantitatea espezifiko da material isolatzaile bakoitzarentzat, hau da, isolatzaileek duten propietate bat da. Porotsuak diren materialak egurra esaterako, narriatu gabe hezetasun kantitate handia xurgatu dezakete, zuntz mineraleko materialekin alderatuta.



Isolatzailerik duen hezetasunarekiko erresistentziak edo ur lurrunarekiko erresistentziak eraikin baten egonkortasun dimentsionalean eragiten du. Izan ere, zenbat eta hezetasunarekiko erresistentzia txikiago, orduan eta kondentsazio interstizialak eratzeko aukera gehiago. Honek nabarmenki eragin dezake eraikuntzako konponbidearen iraunkortasunean.

Halaber, EKT-aren energiaren aurrezteari buruzko bere Oinarrizko Dokumentuan (EKT-OD-HE1) kondentsazioak mugatzen dira existitzen diren eraikinetan esku-hartzen denean. Eraikinaren ingurutzailerik duen sortzen diren kondentsazio interstizialek, kasua ematen baldin bada, ezin izango dute murrizketa nabarmen bat sortu bere prestazio termikoetan edo kondentsazio interstizialak ezingo dira degradazio arrisku bat izan. Urtero lurruntzen den kantitate posiblea denbora horretan metatzen den kondentsazio maximoa izango da (18).

- Balioztatzeko era


Adierazle hau ebaluatzeko alternatiba bakoitzaren isolatzaileak duen lurrun hedapenarekiko erresistentzi kontuan hartuko da (UNE EN 12086 saiakuntza (125)). Erresistentzia hau balio adimentsional ( $\mu$ ) baten bidez definitzen da eta honek isolatzaile termiko bat erabiltzerako garaian kondentsazioen arrisku posibleak identifikatzen laguntzen du.

Asetze maximoko balioa: Alternatiba baten isolatzaileak, beste alternatiba baten isolatzailearekin alderatuta, duen lurrun hedapenarekiko erresistentzia maximoko balioarekin definitzen da.  $X_{\max} = \infty$  (Adierazle hau kalkulatzeko 8000 balioa hartuko da erreferentzia bezala).

Asetze minimoko balioa: Alternatiba baten isolatzaileak, beste alternatiba baten isolatzailearekin alderatuta, duen lurrun hedapenarekiko erresistentzia minimoko balioarekin definitzen da.  $X_{\min} = 1$ .

- Balio-funtzioa

Adierazle honentzat proposatzen den funtzioa, funtzio goranzko bat da asetze balioa handitzen baita isolatzaileak hezetasunarekiko duen erresistentzia handitzean. Balio-funtzioaren forma lineala izango da asetze balioa proportzionalki handitzen delako hezetasunarekiko erresistentzia handitzean. (Ikusi 5.21 . Grafikoa).



5.21. Grafikoa: Kondentsazioen aurkako isolatzailearen portaera

#### 5.5.4. Errekerimendu sozialeko adierazleak

Errekerimendu soziala kontuan hartuta alternatiba desberdinen jasagarritasuna konparatzeko hurrengo adierazleak zehaztu dira:

##### 5.5.4.1. Etxebizitza uzteko beharra

- Definizioa

Adierazle honen bidez ebaluatuko da etxebizitza uzteko beharra alternatiba baten, beste alternatiba batekin alderatuta, birgaitze prozesua irauten duen denboran zehar, kontuan hartuta uzte honek etxebizitzako maizterretan eragozpenak sortzen dituela.

Fatxadaren kanpotik edo barnetik egindako birgaitze prozesu batek, eraikitako eraikin batean egindako edozein obra bezala, eragozpenak eta asaldurak sortzen ditu etxebizitzetako maizterrei. Eragozpen horietako bat obra egikaritzen den bitartean etxebizitza uztea da. Etxebizitza uzteko beharra jabearentzat gastu ekonomiko bat izan daiteke izan ere, maizterrei ostatu eman behar zaie beste etxebizitza batzuetan edo kasu batzuetan hoteletan obra irauten duen bitartean.

Hortaz, oso kasu gutxitan gomendatzen da obra irauten duen bitartean maizterrari ostatu ematera behartzen duen alternatiba erabiltzea. Salbu etxebizitzaren okupazioa iraunkorra den kasuetan, obra etxebizitza okupatuta ez dagoen garaian egin daitekeelako. Azken honen adibide bat, udan edo neguan bakarrik erabiltzen diren etxebizitzak edo alokairuan dauden etxebizitzak izan daitezke. Baina Euskadiko kasuan, 3. Kapitularian ikusi den bezala, etxebizitzaren %10a bakarrik daude alokatuta hortaz, Euskadin dauden etxebizitzaren okupazioa iraunkorra da.

Alternatibaren birgaitzen prozesuan emango den esku-hartzearen arabera hau da, kanpotik, barrutik edo aire-ganberaren barrutik, etxebizitzaren uzteko beharra nulua, partziala edo totala izan daiteke. Hortaz, etxebizitza uzteko beharrak sortzen dituen eragozpenak ebaluatzeko eta neurtzeko kontuan hartuko da alternatiba bakoitzaren esku-hartze mota eta egikaritzaren konplexutasuna.

Esku-hartzea kanpotik egiten denean, etxebizitza uzteko beharra nulua izango da baina esku-hartzea barnetik egiten denean, egikaritzaren konplexutasuna kontuan hartu beharko da uzteko beharra neurtzeko. Aire-ganberaren barnetik egiten denean esku-hartzea etxebizitza uzteko beharra nulua edo partziala izan daiteke esku-hartzea etxebizitzaren barrutik edo kanpotik egiten denaren arabera.

- Balioztatzeko era

Adierazle hau era kualitatibo batean neurtuko da izan ere, balio-funtzioa zehazten da kontuan hartuta momentu konkretu batean duen portaera egoera. Funtzioa prozesuan parte hartzen duten pertsonen pertzepzioen, usteen edo juizioen bidez eraikitzen da. Hauek baloratuko dute etxebizitza uztearen beharra maizterretan sortzen dituzten eragozpenak.

Balorazioa hurrengo aukeren bidez egingo da:

- **Etxebizitza uzteko beharra nulua denean:** Birgaitze prozesu osoan zehar maizterrak ez du etxebizitza utzi behar. Hau emango da esku-hartzea fatxadaren kanpotik ematen denean eta aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemaren esku-hartzea fatxadaren kanpotik egiten denean.

- **Etxebizitza uzteko beharra denbora tarte labur batean zehar denean:** Denbora tarte labur batean maizterrak etxebizitza utzi beharko du. Eragozpenak sortuko dira etxebizitzaren barrura sartu behar delako eta paretetara heltzeko altzariak mugitu behar direlako. Aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemaren esku-hartzea fatxadaren barnetik egiten denean etxebizitza uzteko beharra, barnetik egindako isolamendu sistemetan baino denbora tarte laburragoa da. Izan ere, aire-ganberako sistemetan bakarrik utzi behar da etxebizitza isolatzailea injektatu edo insuflatzen den momentuan.

- **Etxebizitza uzteko beharra obra irauten duen deboran zehar denean:** Obra irauten duen tarte osoan zehar maizterrak etxebizitza uzten behartuta dago. Kasu honetan ere eragozpenak sortuko dira etxebizitzaren barrura sartu behar delako eta paretetara heltzeko altzariak mugitu behar direlako. Hau gertatuko da fatxadaren barnetik egindako isolamendu termikoko sistemetan.

Asetze maximoko balioa: Etxebizitza uzteko behar nulua definituko du balio hau.

Asetze minimoko balioa: Obra irauten duen tarte osoan zehar etxebizitza uzteko beharrak definituko du balio hau.


- Balio-funtzioa

Adierazle honentzat proposatzen den balio-funtzioa funtzio tabulatua, 5.20 . Taula, izango da, goian aipatutako aukerak bakarrik existitzen direlako eta balio-funtzio antzekoa delako guztientzat.

Etxebizitza uzteko beharra			
X	Nulua	Denbora tarte labur batean zehar	Obra irauten duen denbora osoan zehar
Y	1	0,3	0

5.20. Taula: Etxebizitza uzteko beharra

Hortaz, proposatutako funtzioaren forma beherakorra izango da eta hurrengo 5.22. Grafikoaren bidez adierazita dago.



5.22. Grafikoa: Etxebizitza uzteko beharra

#### 5.5.4.2. Instalazioaren ondoren espazio galera

- Definizioa

Adierazle honek alternatiba bat instalatu ondoren, beste alternatiba batekin alderatuta, etxebizitzaren barruan sortuko den espazio galera neurtuko du. Horretarako kontuan hartuko ditu etxebizitzaren maizterrei sortutako eragozpenak.

Esku-hartzea etxebizitzaren barnetik egiten denean, etxebizitzan espazio galera bat sortzen da. Izan ere, esku-hartze hauetan isolatzailea etxebizitzetako paretetara finkatzen da. Honen ondorioz etxebizitzaren barruan sortzen den espazio galerak eragozpenak sortzen ditu, bai maizterrei, bai jabeei etxebizitzako gainazal erabilgarria murrizten delako.

Isolatzaile optimoa aukeratzeko orduan, etxebizitzan galtzen den espazioa askoz garrantzitsuagoa da, dakarren ondorio ekonomikoengatik, isolatzailearen kostua eta instalazioaren konplexutasuna baino eta isolatzailearen bero transferentzia baino garrantzitsuagoa da (40).

Esku-hartzea eraikinaren kanpotik edo aire-ganberaren barnetik egiten denean aldiz, etxebizitzaren barnean ez da espazioa galtzen, isolatzailea fatxadaren kanpotik finkatzen delako eta aire-ganberaren barnetik.

Halaber, 3. Kapituluaren komentatu den bezala, 2015 urtean Euskadiko etxebizitzaren batezbesteko gainazal erabilgarria  $86,9 \text{ m}^2$  izan zen eta bigarren eskuko etxebizitzaren batezbesteko prezioa  $2.805,2 \text{ euro/m}^2$ -koa izan zen, 2016 urteko hirugarren hiruhilabetekoan. Kontuan hartuta batezbesteko gainazal erabilgarria hau eta bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa, etxebizitza barruan sor daitekeen espazio galerak, galera ekonomikoak sor ditzake eta maizterrak edo/eta jabeak haserretu daitezke. Aintza hartuta etxebizitzaren barnetik egindako birgaitze sistema bat igeltsu plaka batez eta lodiera minimoa  $60 \text{ mm}$  duen isolatzaile batez osatua dagoela, %2,8ko gainazal erabilgarria galtzen da instalazioaren ondoren. Eta bigarren eskuko etxebizitzaren batezbesteko prezioa eta espazio erabilgarriaren galera hori kontuan izanda, birgaitutako etxebizitzaren prezioa %2,75a murriztuko da. Balio hauek handitzen dira birgaitzean erabilitako igeltsuko plakaren eta isolatzailearen lodiera handitzen den heinean.

- Balioztatze era

Adierazle hau ebaluatuko da kontuan izanda alternatiba baten, beste batekin alderatuta, birgaitze prozesuaren ondoren etxebizitza barruan espazioa galtzen den edo ez.

Asetze maximoko balioa: Instalazioaren ondoren, etxebizitzan espazio galerak sortzen ez dituen alternatibak definitzen du balio hau.

Asetze minimoko balioa: Instalazioaren ondoren, etxebizitzan espazio galerak sortzen dituen alternatibak definitzen du balio hau.


- Balio-funtzioa

Balio-funtzioa kasu honetan, hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, 5.21. Taula:

Espazio galera etxebizitzaren barruan		
X	Ez	Bai
Y	1	0

5.21. Taula: Espazio galera etxebizitzaren barruan

Proposatutako funtzioaren forma eskaloari funtzioa izango da eta hurrengo 5.23. Grafikoaren bidez irudikatzen da.



5.23. Grafikoa: Instalazioaren ondoren espazio galera

Adierazle honek dikotomikoa izatera izango du, erantzun ebaluatzailea dena edo ezer baita (bai edo ez). Adierazle mota honi normatiboa deritzo eta adierazleen barruan dago izan ere, honek existitzen den edo ez den erreferentea edo aurrekaria baten egoera espezifiko bati esaterako, bete beharreko arautegi bati, praktika onen kodigoei, etab, buruzko informazioa ematen du (118).

### 5.5.4.3. Aldamioen beharra

- Definizioa

Alternatiba baten, beste batekin alderatuta, birgaitze obraren egikaritzean zehar aldamioen beharra ebaluatuko du adierazle honek. Horretarako, adierazle honek kontuan hartuko du aldamioen beharrak eraikinen maizterretan eta ingurunean esaterako, oinezkoetan sortzen dituen eragozpenak.

Esku-hartzea fatxadaren kanpotik egiten denean edo aire-ganberaren isolamendua fatxadaren kanpotik egiten denean, aldamioen edo eskalatzailen beharra beharrezkoa da nahiz eta, azken kasu honetan prezioa handiagoa izango da eta lan egiteko erraztasuna aldamioen plataforma bat erabiltzea baino txarragoa izango da.

Aldamioen erabilerak maizterretan eta eraikinaren ingurunean eragozpenak sortzen ditu. Sortutako eragozpenak hauek izan daitezke: etxebizitzetan lapurretak kanpotik sartzeko erraztasuna handitzen delako, maizterren eguneroko bizitzan asaldurak, alerta meteorologikoaren kasuetako arriskua, bide publikoaren okupazioa, zarata muntaketan eta desmuntatzean, etab.

- Balioztatzeko era

Adierazle hau ebaluatzeko era dikotomikoa da, bi aukera bakarrik existitzen direlako: aldamioen beharra bai edo ez.

Asetze maximoko balioa: Aldamioen beharra ez duen alternatibaren bidez definitzen da.

Asetze minimoko balioa: Aldamioen beharra duen alternatibaren bidez definitzen da.

- Balio-funtzioa

Kasu honetan balio-funtzioa hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da. (Ikusi 5.22. Taula)

Aldamioen beharra		
X	Ez	Bai
Y	1	0

5.22. Taula: Aldamioen beharra

Proposatzen den funtzioaren forma eskaloi funtzioa izango da, 1 edo 0 balioak bakarrik existitzen direlako, 5.24. Grafikoan ikus daitekeen bezala.



5.24. Grafikoa: Aldamioen beharra

#### 5.5.4.4. Jabeen arteko adostasunaren beharra

- Definizioa

Eraikin baten birgaitze obra bat burutzerako orduan, jabeen arteko adostasunaren beharra ebaluatzen da adierazle honen bidez, adostasun beharrik ez duen beste alternatiba batekin alderatuta.

3. Kapituluaren komentatu den bezala, eraikinean bere egituraren eta bere kanpoko itxituren edozein aldaketa egin ahal izateko, komunitatearen kideen ahobatezkotasuna behar da batzordera joan edo ez, uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera, Jabetza Horizontalarena, 2015eko urriaren 6an aldatua (98). Aukeratutako alternatibaren eskua-hartzea kanpotik bada

eta itxituraren kanpoko egoera aldatzen bada, orduan jabeen arteko adostasuna beharrezkoa da.

Halaber, auzotar-komunitate bezala euskal administrazioaren aldetik diru-laguntza bat lortzeko nahitaezkoa da eraikinean egiteko lanak onartzen diren komunitatearen akta aurkeztea.

Eraikinaren barnetik egindako birgaitze obretan aldiz, auzotar-komunitatearen arteko adostasuna ez da beharrezkoa obra mota hau egiteko.

Komunitate batean, jabeen arteko adostasun batetara heltzea ez da lan erreza kasu ia gehienetan, beti birgaitze bateko alderdi desberdinei buruz edo egingo den obrari buruz desadostasunak daudelako auzotarren arteko.

- Balioztatzeko era

Bi aukera bakarrik existitzen direnez, adierazle hau balioztatzeko era sinplea da.

Asetze maximoko balioa: Jabeen arteko adostasunaren beharrik ez duen alternatibak definitzen du balio hau.

Asetze maximoko balioa: Jabeen arteko adostasunaren beharra duen alternatibak definitzen du balio hau..

- Balio-funtzioa


Adierazle honen balio-funtzioa hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, 5.23. Taula.

Jabeen arteko adostasunaren beharra		
X	Ez	Bai
Y	1	0

5.23. Taula: Jabeen arteko adostasunaren beharra

Aurreko adierazlea bezala, proposatzen den funtzioa eskaloit funtzio da, bi balio bakarrik existitzen baitira, 1 edo 0 balioak, hurrengo 5.25. Grafikoan ikus daitekeen bezala.





5.25. Grafikoa: Jabeen arteko adostasunaren beharra

#### 5.5.4.5. Barruko konfort termikoa

- Definizioa

Alternatiba batekin, beste batekin alderatuta, etxebizitzaren barruan lor daiteken konfort termikoa ebaluatuko da adierazle honen bidez.

Barruko giroaren kontzeptuaren barruan konfort termikoa dago. Barruko giroa pertsona batek espazio batean duen pertzepzioan eragiten duten faktoreak sartzen diren termino zabala da, faktoreak fisikoki neurgarriak izan daitezke edo ez. Eraikin bateko barruko giroaren barruan pertsonen eraikin barruan eragiten dieten faktore estrintseko fisikoki neurgarriak biltzen dira. Neurgarriak diren faktore hauek sailkatu daitezke era honetan: termikoak, kimikoak, aktinikoak (efektu fotokimikoak sortzeko gai den erradiazioa), akustikoak eta mekanikoak. Faktore psiko-sozial eta estetikoak sailkapen honetatik kanpo uzten dira. EN 1525:2007 (124) arauak eraikinen kalkulu energetikorako eta barruko giroaren epe luzerako ebaluaziorako abiapuntu datu bezala kontuan hartu beharreko barruko giroaren parametroak definitu eta zehazten ditu. Parametro edo faktore horiek hurrengoak dira: barruko aire kalitatea, baldintza termikoak (konfort termikoa), iluminazioa eta zarata.

Arau horren arabera, eraikinen kontsumo energetikoa barruko girorako (tenperatura, aireztapen eta iluminazioa) eta diseinurako erabilitako irizpideen eta eraikinaren funtzionamenduaren (sistemak kontuan hartuz) nabarmen mende dago. Barruko giroak osasunean, produktibitatean eta barruan dauden pertsonen ongizatean ere eragiten du. Hortaz, kalitate txarreko barruko giroak eraikinean erabilitako energiako kostua baino kostu handiagoak sortzen ditu maizterrentzako eta gizartearentzako. Gainera, eraikinaren barruan daudenentzat barruko giro kalitatea desigarriena ez bada, eraikinaren ohiko kontsumoa handituko da, desiratua den barruko giro kalitatea hori lortzeko edo barruko giro kalitatea hobetzeko. Hortaz, eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko barruko giroko parametroak kontuan hartu beharko dira.

Eraikinetako hobekuntza energetikoa barruko giroa kontuan hartu gabe bultzatzeak osasun-arazoak sor diezazkieke bertan dauden pertsonen. Aitzitik, barruko giroko hobekuntza bultzatzen bada eraginkortasun energetikoa kontuan hartu gabe, kostu energetikoa eta

negutegi efektuko gas emisioak areagotu daitezke. Hortaz, barruko giroa eta eraginkortasun energetikoa batera kontuan hartu behar dira.

Eraikinen birgaitzean ebaluatu eta kontuan hartu beharreko faktore estrintsekoak hurrengoak izan ohi dira: baldintza termikoak (barruko konfort termikoa), barruko aire kalitatea eta barruko zarata.

Adierazle honek etxebizitza barruan dagoen konfort termikoa neurtuko du, hau da, gizaki batek espermentatutako sentsazio termikoa. Sentsazio hau gizakiaren gorputzaren oreka termiko globalarekin erlazionatuta dago, gehien bat. Oreka termikoa jarduera fisikoaren, pertsonak jantzita daraman arroparen eta ingurumen parametroen (airearen tenperatura, batezbesteko irradiazio tenperatura, airearen abiadura eta airearen hezetasuna) menpe dago. Ezinezkoa da eraikinaren barruan dauden pertsona guztiak asetzen dituen giro termiko bat ezartzea, gehien bat existitzen diren bakarkako desberdintasunengatik. Baina barruan dauden pertsonen ehuneko zehatz batentzat onargarria den giro bat ezartzea posiblea da. Honela, eraikinaren energia kontsumoa murriztuko da.

Hezetasuna eraikinetan kontuan hartu beharreko arazo bat da, barruan dauden pertsonen gain osasun arriskuak eta eraikinean arazoak (kondentsazioak, lizuna) sortzen dituelako. Hezetasun maila baxuak (< %15-20) begietan eta arnasbideetan lehortasuna eta narritadura sortzen du. Aitzitik, hezetasun maila altuetako aldi luzeetan zeharreko esposizioak mikrobio-hazkundera eragin dezake. Hortaz, hezetasun maila egokian mantentzeak ongizate termikoan eta barruko aire kalitatean eragiten du, eta baita eraikinaren kontsumo energetikoan ere. Eraikin bat energetikoki birgaitzean zubi-termikoak ekiditen dira eta hortaz, hezetasun maila baxuak eta altuak ekiditen dira (124).

Etxebizitzaren barruan hezetasuneko eta tenperaturako giro egokiak mantentzeko birgaitutako itxitura termikoaren transmitantzia termikoa ( $U$ ,  $W/m^2K$ ) kontuan hartu beharko da. Transmitantzia termikoa elementu batetatik beste batetara beroa transmititzeko gaitasuna denez, eraikinaren itxitura termikoan zehar kondukzio bidez sortutako irabaziak edo galerak zehaztu daitezke. Zenbat eta transmitantzia termikoaren balio txikiago izan, orduan eta berogalera txikiagoak egongo dira etxebizitzaren barruan. Hortaz, Euskadin kokatutako eraikinen berogailuaren kontsumoa txikiagoa izango da.

Fatxadaren birgaitzearen kasuan, bakarrik aldatzen da eraikinaren fatxada hortaz, fatxada-hormen eta lursailarekin kontaktuan dauden itxituren transmitantzia termikoa kontuan hartuko da bakarrik.

Aurrezte energetikoaren inguruan Espainian indarrean dagoen araudiak (EKT-OD HE1: Energia-eskaera mugatzea) existitzen diren eraikinen energia-eskaeraren muga zehazten du. Honen arabera, birgaitutako eraikinaren energia-eskaera eraikina kokatzen den zona klimatikoaren arabera zehazten den erreferentzia eraikinak duena baino txikiagoa izan behar da (erreforma obretarako non itxitura termikoaren gainazal totalaren %25a baino gehiago erreformatzen denean) (18). Arau horren D eranskinean birgaitutako eraikinaren eskaera energetikoa konparatzeko erreferentzia eraikineko itxituren berezko parametroak definitzen dira, birgaitutako eraikina kokatzen den zona klimatikoaren arabera. Hor dauden balioek ez dute nahitaezko karaktererik zentzu zehatzean, erreferentzia eraikin bat sortzeko bakarrik balio dutelako eta birgaitutako eraikinaren eskaera energetikoarekin konparatzeko. Honela, arauan ezarritako eskari energetikoko muga betetzea lor daiteke.

Halaber, arau horren E eranskinean, itxitura termikoaren berezko parametroen balio orientagarriak ezartzen dira, hau da, itxitura termikoko transmitantzia termikoko balio

optimoak eraikina kokatzen den zona klimatikoaren arabera. Balio hauen erabilerak ez du bermatzen eskari energetikoko muga eskaera betetzea baina, eraikuntzako konponbideen hasierako diseinu-fasean orientatzeko erabili daitezke. Balio orientagarri hauen bidez, kostu optimodun konponbidea lortu nahi da kontuan hartuta kostu globala eta kontsumo energetikoa, hau da, konponbide ekonomikoena kontuan hartuta eraikinaren bizitza-zikloan zehar sortutako kostuak.

Hurrengo 5.24. Taulan, fatxadaren transmitantzia termikoak EKT-aren eta Euskadin existitzen diren zona klimatikoen arabera ikus daitezke.

Transmitantzia termikoa ( $W/m^2K$ )	C1 zona klimatikoa		D1 zona klimatikoa		E1 zona klimatikoa	
	$U_{Mlim}$ (limitea)	$U_M$ (optimoa)	$U_{Mlim}$ (limitea)	$U_M$ (optimoa)	$U_{Mlim}$ (limitea)	$U_M$ (optimoa)
Fatxada-hormen eta lursailarekin kontaktuan dauden itxiturak	0,73	0,29	0,66	0,27	0,57	0,25

5.24. Taula: Fatxadaren transmitantzia termikoa EKT-aren eta Euskadin existitzen diren zona klimatikoen arabera

Alternatiba bakoitzaren eraikuntzako konponbideak fatxadaren transmitantzia termikoa zehaztuko du. Isolatzailearen ezaugarri termikoak kontuan hartu beharko dira, hau da, isolatzailearen eroankortasun termikoa ( $\lambda$ ,  $W/mK$ ) eta honen lodiera. Fatxadaren transmitantzia termikoa murrizteko eta arauak ezarritako exijentziak betetzeko, isolatzailearen lodiera handitu beharko da. Hurrengo 5.25. Taulan, ikus daiteke EKT-ak ezarritako transmitantzia termikoko balio orientagarri edo optimoak betetzeko isolatzailearen lodiera handitu behar dela, Euskadin kokatutako eraikinetan “informe potencial de ahorro de energía y reducción de emisiones de CO2 en viviendas mediante incremento del aislante” energia berriztagarrien zentro nazionalak (Cener) eraturako txostenaren arabera (126).

Zona klimatikoak	Transmitantzia termikoa (U) ( $W/m^2K$ )	Isolatzailearen lodiera (mm)
C1	$U_{limitea} = 0,73$	43
	$U_{optimoa} = 0,29$	133
D1	$U_{limitea} = 0,66$	47
	$U_{optimoa} = 0,28$	137
E1	$U_{limitea} = 0,57$	58
	$U_{optimoa} = 0,25$	158

5.25. Taula: Euskadin kokatutako eraikinen transmitantzia termikoa isolatzailearen lodieraren arabera  
Iturria: Propioa, “el potencial de ahorro de energía y reducción de emisiones de CO2 en viviendas mediante incremento del aislante” txostenaren balioak erabiliz. Energia berriztagarrien zentro nazionala (Cener). 2005-2012

Halaber, etxebizitzaren barruko konfort termikoa hobetzeko zubi-termikoak<sup>15</sup> ekidin beharko dira, energia termikoaren parte garrantzitsu bat zubi-termikoetatik galtzen baita. Zubi-termikoak orokorrean zutabeetan eta forjatu-aurpegietan eratzen dira. Eraikinaren itxituren zehar konponbide jarraia duen birgaitze sistema batek eraikinaren zubi-termikoak ekidindo ditu, itxituren zona guztiak uniformeak izango direlako. Aitzitik, konponbide ez jarrai batek ez ditu konponduko eraikinean dauden zubi-termikoak, eraikuntzako uniformetasun aldaketak daudelako. Konponbide jarrai bat lortzen da fatxadaren kanpotik esku-hartzen denean SATE sistemen eta fatxada aireztatu bidez izan ere, kasu hauetan isolatzailea era uniformean banatzen da fatxada osoan zehar. Bestalde, konponbide ez jarrai bat barrutik egindako isolamendu termikoko sistema bati eta aire-ganberan egindako isolamendu termikoko sistema bati dagokio. Hau dela eta, isolatzailearen posizioak zubi-termikoaren agerpena eta hortaz, eraikinaren konfort termikoa baldintzatuko du.

CEX V2.3 programa informatikoaren bidez lortutako datuekin, zubi-termikoengatik sortutako galerak ikus daiteke izan ere, berogailuan lortzen den energia aurrezte konponbide jarrai batekin eta konponbide ez jarrai batekin konparatu daitezke (Ikusi 5.26. Taula).

	Isolatzailearen posizioa	
	Konponbide jarraia	Konponbide ez jarraia
<b>Transmitantzia termikoa (U, W/m<sup>2</sup>K)</b>	0,43	0,43
<b>Berogailuan lortutako aurrezte energetikoa (%)</b>	%47,5	%6,4

5.26. Taula: Transmitantzia termikoa eta berogailuan lortutako aurrezte energetikoa isolatzailearen posizioaren arabera

- Balioztatzeko era

Behin birgaitu ondoren etxebizitza barruko konforta ebaluatzeko alternatiba batekin, beste batekin alderatuta, lortzen den fatxadaren transmitantzia termikoa eta isolatzailearen posizioaren arabera lortzen den aurrezte energetikoa kontuan hartu beharko dira.

**1) Fatxadaren transmitantzia termikoa:** Alternatiba baten, beste alternatiba batekin alderatuta, transmitantzia termikoa. Transmitantzia termiko hau kalkulatzeko CEX v2.3 programa informatikoa erabiliko da.

Komentatu den bezala, kontutan hartu beharreko transmitantzia termikoko bi balio existitzen dira, bata arauak exijitutakoa eta bestea optimoa edo orientagarria.

Hortaz, parametro honen balorazioa hurrengo eran egingo da:

- $U_{\text{alternatiba}} \geq U_{\text{limite}}$  = Alternatibaren transmitantzia termikoa arauak exijitzen duena baino handiagoa edo berdina da.


<sup>15</sup> EKT-aren arabera zubi-termikoak eraikuntzako uniformetasunaren aldaketa, estalduraren edo erabilitako materialen lodiera aldaketagatik, eroankortasun desberdina duten eraikuntzako elementuen barneratze osoagatik edo partzialagatik, elementuaren kanpoko eta barruko azaleraren arteko desberdintasunagatik eta abarregatik, nabarmentzen den itxitura termikoaren zonak dira eta hauek erresistentzia termikoaren murrizketa eragiten dute, gainerako itxiturekin alderatuz.

- $U_{\text{limite}} > U_{\text{alternatiba}} > U_{\text{optimoa}}$  = Alternatibaren transmitantzia termikoa arauak proposatzen duen balio optimoa baino handiagoa da eta arauak exijitzen duena baino txikiagoa da.
- $U_{\text{alternatiba}} \leq U_{\text{optimoa}}$  = Alternatibaren transmitantzia termikoa arauak proposatzen duen transmitantzia balio optimoa baino txikiagoa edo berdina da.

Asetze maximoko balioa: Alternatibaren transmitantzia termikoko balio txikienarekin definitzen da.  $X_{\text{min}} < U_{\text{optimoa}}$ .

Asetze minimoko balioa: Alternatibaren transmitantzia termikoko balio handienarekin definitzen da.  $X_{\text{max}} = U_{\text{limite}}$ .

Parametro honen balio-funtzioa hurrengo 5.26. Grafikoan definituta dagoen funtzio lineal beharakor bat da.



5.26. Grafikoa: Transmitantzia termikoaren balio-funtzioa

**2) Aurrezte energetikoa isolatzailearen posizioaren arabera:** Alternatiba batekin, beste batekin alderatuta, lortu den aurrezte energetikoa kontuan hartuta isolatzailearen posizioa.

Komentatu den bezala, konponbide jarraietan aurrezte energetiko handiago bat lortuko da, zubi-termikoak ekiditen baitira.

Asetze maximoko balioa: Konponbide jarraia duen alternatibak definitzen du balio hau. SATE sistema eta fatxada aireztatutako sistema.


Asetze minimoko balioa: Konponbide ez jarraia duen alternatibak definitzen du balio hau. Isolatzailea fatxadaren barruan edo aire-ganberan kokatzen den sistemenetan.

Kontuan izanda 5.26. Taulan lortutako balioak, parametro honen balio-funtzioa funtzio tabulatu bat izango da, ikusi 5.27. Taula.

Aurrezte energetikoa isolatzailearen posizioaren arabera		
X	<b>Konponbide jarraia:</b> SATE, fatxada aireztatua	<b>Konponbide ez jarraia:</b> Barnetik egindako isolamendu sistema, aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema
Y	1	0,2

5.27. Taula: Aurrezte energetikoa isolatzailearen posizioaren arabera

Parametro honen balio-funtzioaren forma eskaloi funtzio bat izango da, hurrengo 5.27. Grafikoan ikus daitekeen bezala.



5.27. Grafikoa: Aurrezte energetikoa isolatzailearen posizioaren arabera

Adierazlea aipatutako bi parametro horien aldaketa kontuan hartuta zehazten da: Transmittantzia termikoa eta isolatzailearen posizioa. Parametro bakoitzaren pisua zehazteko adituen talde bati kontsultatu zaio, aurreko adierazleetan bezala. Kontsulta horretatik lortutako emaitzek zehazten dute adierazlea ez dagoela baldintzatua modu berean bi parametro hauengatik. Transmittantzia termikoko parametroak %47ko pisua dauka adierazlearen barruan eta hortaz, zubi-termikoko parametroak %53ko pisua dauka.

Hortaz, adierazlea hurrengo ekuazioaren bidez definitzen da:

$$V_{ind} = 0,47 * Y_u + 0,53 * Y_{isolatzailearen\ posizioa} \quad [5.16]$$

Non:

- $Y_u$  = Alternatibaren asetze balioa kontuan hartuta fatxadaren transmittantzia termikoa.
- $Y_{isolatzailearen\ posizioa}$  = Alternatibaren asetze balioa kontuan hartuta isolatzailearen posizioa.

Adierazlearen balioa 0 eta 1 balioen artean egon behar da.

Asetze maximoko balioa: [5. 16] ekuazioaren bidez kalkulaturako balio maximoak definituko du balio hau. Transmittantzia termikoko balio baxuena eta birgaitze konponbide jarraia.

Asetze minimoko balioa: [5. 16] ekuazioaren bidez kalkulaturako balio minimoak definituko du balio hau. Arauak definitutako transmittantzia termikoko balioa ( $U_{\text{limite}}$ ) eta birgaitze konponbide ez jarraia.

#### 5.5.4.6. Barruko airearen kalitatea

- Definizioa

Adierazle honen bidez alternatiba batekin, beste batekin alderatuta, lortzen den barruko airearen kalitatea ebaluatuko da.

Komentatu den bezala, barruko airearen kalitatea eraikinen kalkulu energetikoan kontuan hartu beharreko barruko giroa osatzen duten faktore estrintseko bat da.

Barruko airearen kalitatea barruko airean dagoen kutsadurarekin erlazionatuta dago (124). Pertsonen emisioak eta haien jarduerak (bioefluentea, kea), eraikina eta altzariak eta HVAC (berogailua, aireztapena eta aire girotua) sistemak berak eraikinaren barruko airearen kalitatean eragina duten kutsadura iturriak dira.


Hortaz, barruko airearen kalitatea kutsadura-iturriak eta erakinak duen aireztapenaren efizientzia kontuan hartuta zehazten da. Eraikinean birgaitze sistema bat gehitzean ez da eraikinaren aireztapenaren efizientzia aldatzen hortaz, adierazle hau ebaluatzeko ez da parametro hau kontuan hartuko. Aldiz, birgaituko diren eraikinetan kontuan hartu beharko da gehitzen den material berria kutsadura iturri berri bat izan daitekeela.

Eraikin bat behin birgaitua, etxebizitza barruan dagoen airearen kalitatea baloratzeko orduan, aintzat hartu beharko da alternatiba desberdinek erabilitako isolatzailea eraikinean gehitutako kutsadura iturri berri bat izan daitekeela. Aurretik komentatu den bezala, isolatzailearen bolumena erabiltzen den beste materialena baino askoz handiagoa denez, bakarrik kontuan hartuko da material mota hau.

Halaber, kutsadura iturrien efektuak giza osasunean duen eragina neurtzeko eko-adierazlea'99 datu-basea erabiliko da, unibertsitatean eskuragarri dagoen datu-basea izanik. Eko-adierazle honen bidez ingurunean sortzen diren hiru kalte desberdin definitzen dira: giza osasunari eragindako kalteak (adierazle honetan eko-adierazle hau erabiliko da), ingurumenari eragindako kalteak eta baliabideetan eragindako kalteak (127). Giza osasunari eragindako kalteen barruan gaixotasunen kopurua eta iraupena eta ingurune-kausengatik heriotz goiztiarragatik galdutako bizitza-urteak kontuan hartzen dira. Gainera, produktuaren eraginez giza osasunean sortutako arnasketa efektuak kontuan hartuko dira (127).

Eko-adierazleak produktuaren Bizitza-Zikloaren Analisisian (ACV: Análisis del Ciclo de Vida edo LCA: Life Cycle Assessment) lortutako datuak kontuan hartuta, produktuaren inpaktua zein den adierazten duten sistema kuantitatiboak dira. Bizitza-zikloaren analisisian lortutako emaitzak konplexuak eta interpretatzeko zailak dira. Hau dela eta, eko-adierazleak erabiltzen dira, hauekin lortutako emaitzak, erabilera errazak diren zenbakiak baitira. Eko-adierazleak

produktuaren kilogramo batek eragindako inpaktua puntuetan neurtzen dute. Zenbat eta adierazlean lortutako puntuen kopurua handiagoa izan, orduan eta eragindako inpaktua handiagoa izango da.



5.9. Irudia: Eko-adierazleen kalkulurako prozedura orokorra  
Iturria: "Manual práctico de Ecodiseño". IHOBE (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa)

Eko-adierazle honen bidez isolatzaile kilogramo batek giza osasunean eragindako kalteak neurtuko dira.

Isolatzailearen posizioa kontuan hartuko den beste parametro bat izango da, adierazle hau neurtzerako orduan. Isolatzailea etxebizitzaren barruan kokatzen bada hau, ia kasu gehienetan, bakarrik egongo da babestua igeltsuko plaka baten bidez. Hortaz, isolatzailea ez da ia babestuta egongo eta horrek, barruko airearen kalitatean inpaktu handiagoa sor dezake. Aitzitik, isolatzailea fatxadaren kanpotik kokatuta badago, sortzen den inpaktua txikiago izango da.

- Balioztatzeko era

Aintzat hartuta aipatutako, adierazle hau ebaluatzeko bi parametro kontuan hartuko dira: isolatzaileak giza osasunari eragindako kalteak eta isolatzailearen posizioa.

**1) Giza osasunari eragindako kalteak isolatzailearen arabera:** parametro hau neurtzeko eko-adierazle'99-aren barruan dagoen giza osasunari eragindako kalteak deituriko adierazlea erabiliko da. Inpaktua kuantifikatzeko Eco-it<sup>16</sup> programa informatikoa erabiliko da. Programa honek bakarkako puntuazioen bidez prozesu edo material batek giza osasunean sortutako inpaktua neurtzen du. Halaber, isolatzailearen dentsitatea eta lodiera kontuan hartu beharko da izan ere, puntuak isolatzailearen kilogramo bat aintzat hartuta kalkulatzen dira. Zenbat eta puntuazio handiago lortu, orduan eta larriago izango da isolatzaileak eragindako inpaktua giza osasunean.


<sup>16</sup> IHOBE-k (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) bultzatutako tresna informatikoa da. Honekin prozesu batek edo material batek ingurumenean sortutako inpaktua kalkulatu daiteke. Horretarako, bakarkako puntuazioen bidez ingurumenean sortutako inpaktua adierazten duten adierazle ekologikoak erabiltzen ditu.



Asetze maximoko balioa: eko-adierazlean puntu gutxien lortutako isolatzailearen bidez eta gehitutako isolatzaile kantitate (kilogramo metro karratutan neurtuta) txikiaren bidez definitzen da balio hau.  $X_{\min} = 0,024$  puntuak.kg/m<sup>2</sup>.

Asetze minimoko balioa: eko-adierazlean puntu gehien lortutako isolatzailearen bidez eta gehitutako isolatzaile kantitate (kilogramo metro karratutan neurtuta) handienaren bidez definitzen da balio hau.  $X_{\max} = 1,345$  puntuak.kg/m<sup>2</sup>.

Parametro honen balio-funtzioa ahurra eta beherakorra izango da izan ere, zenbat eta puntuazio handiagoa lortu eko-adierazlean, orduan eta larriagoa izango da giza osasunean eragindako kaltea eta hortaz, asetze balioa txikiagoa izango da. (Ikusi 5.28. Grafikoa).



5.28. Grafikoa: Barruko aire kalitatea

**2) Isolatzailearen posizioa:** Alternatiba bakoitzean isolatzaileak duen posizioak etxebizitzaren barruko airearen kalitatea baldintzatuko du. Etxebizitzaren barruan kokatutako material kutsakor batek aire kalitate txarrago bat sortuko du, fatxadaren kanpoan dagoena baino, azken kasu honetan material honekiko kontaktua txikiagoa izango baita. Hortaz, adierazle hau ebaluatzeko orduan isolatzailearen posizioa aintzat hartuko da:

- **Fatxadaren kanpotik egindako isolamendu sistema. SATE sistema:** material isolatzaileko iturri kutsatzaile posibleak oso efektu txikiak ditu, isolatzailea fatxadaren kanpoan dagoelako eta estalduragatik kapsulatuta baitago. Kasu honetan balio-funtzioaren balioa maximoa izango da.

- **Fatxadaren kanpotik egindako isolamendu sistema. Fatxada aireztatua:** Isolatzailea fatxadaren kanpoan dago baina, estalduraren eta isolatzailearen artean aire-ganbera bat existitzen da. Isolatzailea atmosferarekin kontaktuan dago eta ez dago estaldurarekin babestuta. Hortaz, aurreko kasuan baino barruko airearen kalitatean arazo gehiago sor daitezke.

- **Aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema:** Isolatzailea aire-ganberaren barruan dago, fatxadaren bi orrien artean. Isolatzailea orri baten bidez bakarrik babestuta

dago, barruko orria hain zuzen ere. Hortaz, isolatzailea iturri kutsakor posible bat bezala kontuan hartuko da.

- **Fatxadaren barnetik egindako isolamendu sistema:** Isolatzailea fatxadaren barrutik dago hau da, etxebizitzaren barruan. Isolatzailea bakarrik babestua dago igeltsuzko plaka baten bidez, kasu ia gehienetan. Hau dela eta, isolatzailea iturri kutsakor posible bat bezala kontuan hartuko da.

Asetze maximoko balioa: Isolatzailea fatxadaren kanpotik kokatzen denean definitzen da balio hau, SATE sistemaren bidez hain zuzen ere.


Asetze minimoko balioa: Isolatzailea etxebizitzaren barrutik kokatzen denean definitzen da balio hau, fatxadaren barnetik egindako isolamendu termikoko sistemaren bidez hain zuzen ere.

Parametro honen funtzioa hurrengo funtzio tabulatuaren bidez zehazten da, 5.28. Taula:

Isolatzailearen posizioa				
X	SATE	Fatxada aireztatua	Aire-ganbera	Fatxadaren barnetik
Y	1	0,8	0,6	0,2

5.28. Taula: Iturri kutsagarria isolatzailearen posizioaren arabera

Balio-funtzioaren forma funtzio tabulatu bat izango da eta hurrengo 5.29. Grafikoaren bidez adierazten da:



5.29. Grafikoa: Iturri kutsakorren eragina isolatzailearen posizioaren arabera

Adierazle hau aipatutako bi parametroak kontuan hartuta zehazten da. Adierazlea ez dago era berdinean baldintzatua bi parametro hauekiko beraz, parametro bakoitzak pisu bat izango du. Aurreko adierazleetan egin den bezala, parametro bakoitzaren pisua ezartzeko adituen talde

bati kontsultatu zaio. Hortaz, adierazlearen %54ko pisua baldintzatuta dagoela isolatzailearen motarekin zehaztu da hau da, iturri kutsakorrarekin. Bestea, %46a, isolatzailearen posizioak baldintzatzen du.

Aipatutako bi parametroak aintzat hartuta, adierazlea hurrengo ekuazioaren bidez definituko da:

$$V_{ind} = 0,54 * Y_{isolatzailea} + 0,46 * Y_{isolatzailearen\ posizioa} \quad [5. 17]$$

Non:

- $Y_{isolatzailea}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balioa kontuan hartuta, erabilitako isolatzaile mota.
- $Y_{isolatzailearen\ posizioa}$  = Alternatiba bakoitzaren asetze balioa kontuan hartuta, erabilitako isolatzailearen posizioa fatxadan.

Adierazlearen balioa 0 eta 1 artean egon beharko da.

Asetze maximoko balioa: [5. 17] ekuazioaren bidez kalkulaturako balio maximoaren bidez definituko da. Gutxien kutsatzen duen isolatzailea (eko-adierazlearen arabera puntu gutxien lortutakoa) eta isolatzailea fatxadaren kanpotik dagoenean (SATE sistema erabiltzean).

Asetze minimoko balioa: [5. 17] ekuazioaren bidez kalkulaturako balio minimoaren bidez definituko da. Gehien kutsatzen duen isolatzailea (eko-adierazlearen arabera puntu gehien lortutakoa) eta isolatzailea fatxadaren barnetik dagoenean (barnetik egindako isolamendu termikoko sistema).

#### 5.5.4.7. Barruko konfort akustikoa

- Definizioa

Alternatiba bat instalatzean, beste alternatiba batekin alderatuta, etxebizitzaren barruan lortzen den konfort akustikoa ebaluatuko du adierazle honek.

Etxebizitza barruan existitzen den zarataren jatorria ondorengo izan daiteke: kanpotik barrurako transmisioa, aparatuen arteko transmisioa, barneko gainazalen zaraten absortzioa/erreflexioa edo/eta HVAC sistema. Zarata honek eragozpenak sor ditzake eraikinaren barruan dauden pertsonen.

Eraikina isolatzaile baten bidez isolatzean, kasu ia gehienetan, etxebizitza barruko konfort akustikoa hobetzen da, existitzen den zarata murrizten baita. Gainera, isolatzaileaz gain material gehiago gehitzen zaio fatxadari kanpotik edo barrutik, konfort akustiko handiago bat lortuz zenbat eta, material kantitate gehiago gehitzean.

Hau dela eta, bukaeran gehitzen den materialaren kantitateak inpaktu akustikoan eragina dauka. Zenbat eta material kantitate gehiago gehitu eraikinari, orduan eta konfort akustiko handiagoa izango da etxebizitzaren barruan. Aire-ganberan injektatzean edo insuflatzean gehitzen den materiala isolatzailearena izango da bakarrik hortaz, alternatiba honek asetze minimoko balio zehaztuko du. Esku-hartzea etxebizitzaren barrutik denean erabiltzen den material kantitatea etxebizitza barruan sortzen diren espazio galerekin erlazionatuta dago,

honen inguruan komentatu den adierazlean aipatu den bezala. Asetzeko maximoko balioa aldiz, material kantitate gehien gehitzen duen alternatibaren bidez definituko da.

- Balioztatzeko era


Alternatiba batekin, beste batekin alderatuta, fatxadan gehitzen den material kantitate totala kontuan hartuta, adierazle honek etxebizitzaren barruan lortzen den konfort akustikoaren hobekuntza ebaluatuko du.

Asetze maximoko balioa: Gehitu den material kantitate handienaren bidez definitzen da balio hau. Hartzeko plakazko estaldura batez osatua dagoen fatxada aireztatu baten kasua izango da.  $X_{\max} = 129,1 \text{ kg/m}^2$ .

Asetze minimoko balioa: Gehitu den material kantitate txikienaren bidez definitzen da balio hau. Kasu hau aire-ganberaren barnetik isolamendu sistema da.  $X_{\min} = 0,6 \text{ kg/m}^2$ .

- Balio-funtzioa

Proposatzen den balio-funtzioa funtzio hazkorra izango da izan ere, zenbat eta gehitu den material kantitate handiagoa izan, orduan eta zarataren aurrean sortutako asetzea handiagoa izango da. Funtzioaren forma lineala izango da, funtzioa proportzionalki aldatzen baita. (Ikusi 5.30. Grafikoa).



5.30. Grafikoa: Barruko konfort akustikoa

### 5.5.4.8. Ondare arkitektonikoa

- Definizioa

Adierazle honek erabiliko den alternatiba ebaluatuko du, kontuan hartuta eraikinak daukan babes gradua, hau da, eraikina ondare arkitektonikoa den edo ez kontuan hartuta.

Eraikin bat ondare arkitektonikoa bada, eraikina babestuta dago eta hortaz, ezin da eraikinaren itxitura aldatu.

Esku-hartzea kanpotik den alternatibetan eraikinaren itxitura aldatzen denez, ezin dira babestuta dauden eraikinetan erabili.

Aire-ganberaren barrutik isolamenduko sistemetan esku-hartzea kanpotik denean, ez da eraikinaren itxitura aldatzen hau dela eta, eraikin mota hauetan erabili daitezke sistema hauek.

- Balioztatzeko era

Bi aukera bakarrik daudenez, hau da, eraikina babestua egotea edo ez, asetze balioa baldintza horren bidez definituta egongo da.

Asetze maximoko balioa: birgaituko den eraikinaren fatxada mantentzen duen alternatibaren bidez definitzen da balio hau. Esku-hartzea etxebizitzaren barnetik edo aire-ganberaren barnetik egingo den sistemen kasua izango da.

Asetze minimoko balioa: birgaituko den eraikinaren fatxada mantentzen ez duen alternatibaren bidez definitzen da balio hau. Isolatzailea fatxadaren kanpotik kokatzen den sistema guztien kasua izango da.


- Balio-funtzioa

Adierazle honen balio-funtzioa, hurrengo funtzio tabulatuaren bidez definitzen da, ikusi 5.29. Taula:

Jatorrizko ingurutzaileraren kontserbazioa		
X	Bai	Ez
Y	1	0

5.29. Taula: Jatorrizko ingurutzaileraren kontserbazioa

Proposatzen den balio-funtzioaren forma eskaloi funtzio bat da, asetze balioa 1 edo 0 bakarrik izan daitekeelako, hurrengo 5.31. Grafikoa ikus daiteken bezala.



5.31. Grafikoa: Ondare arkitektonikoa

#### 5.5.4.9. Ingurunera egokitzeko gradua

- Definizioa

Adierazle honek alternatiba batek, beste batekin alderatuta, eraikinaren ingurunera egokitzeko duen gradua ebaluatuko du, eraikina kokatzen den ingurunearen arabera.

Birgaitzea eraikinaren kanpotik egiten bada, eraikinaren jatorrizko estaldura aldatzen da eta honekin batera eraikinak duen estetika. Hau dela eta, isolatzailea fatxadaren kanpotik instalatzen den alternatibetan egindako birgaitzearen inpaktu estetikoak ebaluatu beharko da.

Eraikinaren estetikak eraikinaren kanpoko fatxadak duen ikuste-itxura definitzen du, hau da, kontuan hartuta kanpoko fatxadaren kolorea, testura, forma, etab. Kasu gehienetan, eraikina bakarrik egiten duen berezko ezaugarri bat da estetika, beste erakinetatik bereiztuz edo auzoaren, hiriaren edo herriaren izaera definituz. Halaber, fatxada baten kolorea, beste aspektuen artean, eraikina kokatzen den lekuaren historiarekin erlazionatuta dago, eraikuntzan erabilitako bertako materialengatik, bertako eraikuntzako konponbideengatik eta bertako eskulanagatik. Azken finean, eraikinaren estetika, ia kasu gehienetan, eraikina eraiki zen momentuan zegoen eraikuntzako kultura lokalarekin erlazionatuta dago.

Eraikinaren ikuste-itxuran aldaketa drastiko bat maizterren artean desadostasunak ekar ditzake, auzoaren estetika eta batzuetan eraikinaren izaera bera aldatzen direlako.

- Balioztatzeko era

Ingurunera egokitzeko gradua ebaluatzeko alternatiba bakoitzaren inpaktu estetikoak neurtuko dira, kontuan izanda erabilitako estaldurarako edo itxiturarako materialak.

Alternatiba bakoitzean erabilitako estaldurarako materialarekin lortzen den egokitze gradua ebaluatzeko, hurrengo aspektuak kontuan hartuko dira: kolorea eta testura. Kolore eta testura gama handietan fabrikatu daitezkeen materialak existitzen dira. Honela, jatorrizko fatxadaren ia berdina den kolore eta testura lor daiteke, esku-hartzearen inpaktu estetikoak murriztuz.

Adierazle hau kualitatiboa izango da, balio-funtzioa zehazten baita, kontuan hartuta momentu konkretu bateko portaera egoera. Funtzioa eraikitzen da prozesuan parte hartzen duten pertsonen pertzepzioen, usteen edo juizioen bidez. Hauek baloratuko dute alternatiba bakoitzak duten ingurunera egokitzeko gradua, kontuan hartuta erabilitako estaldurarako materiala. Balorazioa hurrengo aukeren bidez zehazten da:

- **Oso ona:** Ingurunearekin ematen den egokitzea oso ona da, jatorrizko eraikinaren fatxada ez baita aldatu. Kasu hau emango da fatxadaren barnetik eta aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemetan.
- **Ona:** Fatxadan erabilitako estalduraren materialaren kolorea eta testura jatorrizko fatxadaren ia berdina da. Jatorrizko fatxada imitatzen duen plakazko estaldura erabiltzen denean kanpoko estaldurako.
- **Erregularra:** Fatxadaren estaldurarako erabiltzen den materialak bakarrik jatorrizko fatxadaren kolorea imitatzen duenean. Erabilitako estaldurarako materiala morteroa denean.
- **Nulua:** Fatxadaren estaldurarako erabiltzen den materialak jatorrizko eraikinaren estetika guztiz aldatzen duenean.

Asetze maximoko balioa: jatorrizko fatxada mantentzen duen alternatibaren bidez definitzen da balio hau.

Asetze minimoko balioa: jatorrizko fatxada mantentzen ez duen alternatibaren bidez definitzen da balio hau.


- Balio-funtzioa

Funtzio tabulatu bat proposatu da adierazle honentzat (Ikusi 5.30. Taula), goian aipatutako aukerak bakarrik existitzen direlako eta balio-funtzioa antzekoa delako guztientzat.

Ingurunera egokitzeko gradua				
X	Oso ona	Ona	Erregularra	Nulua
Y	1	0,67	0,38	0

5.30. Taula: Ingurunera egokitzeko gradua

Hau dela eta, proposatzen den balio-funtzioa funtzio tabulatu bat izango da, hurrengo 5.32. Grafikoa ikus daitekeen bezala.



5.32. Grafikoa: Ingurunera egokitze gradua

#### 5.5.4.10. Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa

- Definizioa

Adierazle honen bidez, alternatiba batekin beste batekin alderatuta, jatorrizko fatxadaren lortzen den hobekuntza estetikoa ebaluatzen da.

Birgaituko diren eraikin ia gehienetan, fatxada ez da aldatu eraikina eraiki zenetik. Fatxadak patologia izaten ditu, esaterako zikinkeria eta estaldura osatzen duen materialaren jaulkitzea. Halaber, kasu batzuetan eraikinaren instalazio nagusien harguneak (gas hodiak edo kableatu elektrikoak) fatxadaren zehar gaude eta erraz ikus daitezke.

Eraikinaren jatorrizko fatxada aldatzen den birgaitze sistemetan patologia horiek hobetzen dira eta kableatua edo gas hodiak ezkutatzea lortzen da. Honela, fatxadaren estetika hobetzen da, bere itxura gaztetuz jatorrizko fatxadarekin konparatuta. Hortaz, jatorrizko fatxadaren hobetze estetiko batek eraikina eta bere ingurunea errebalorizatzen du.

- Balioztatzeko era

Asetze balioa baldintzatuta egongo da jatorrizko fatxadaren aldaketarekin.

Asetze maximoko balioa: Birgaituko den eraikinaren fatxada aldatuko duen alternatibak zehazten du balio hau. SATE sistema eta fatxada aireztatua hain zuzen ere.

Asetze minimoko balioa: Birgaituko den eraikinaren fatxada aldatuko ez duen alternatibak zehazten du balio hau. Isolatzailea etxebizitzaren barruan edo aire-ganberaren barruan kokatuta dagoen alternatiba guztiak hain zuzen ere.




- Balio-funtzioa

Adierazle honen balio-funtzioa, hurrengo 5.31. Taula bidez definitzen da:

Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa		
X	Bai	Ez
Y	1	0

5.31. Taula: Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa

Proposatzen den balio-funtzioa eskaloi funtzio bat izango da, asetze balio 1 edo 0 bakarrik izan daitekeelako, hurrengo 5.33. Grafikoan ikus daitekeen bezala.



5.33. Grafikoa: Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa

## 5.6. Alternatiben balorazioa

### 5.6.1. Erabaki-zuhaitzaren haztapena

Erabaki-zuhaitzaren haztapena egin ahal izateko, multzo berdinari dagokion aldagai desberdinei pisuak esleitzen zaizkie. Haztapena erabaki-zuhaitzaren maila hierarkikoa kontuan hartuta burutzen da. Honela, errekerimendu, irizpide eta adierazle bakoitzaren garrantzi maila zehazten da.

Kasu honetan, pisuen esleipena egiteko Delphi metodoaren bidez egindako esleipen zuzena erabiliko da, adituen lan talde batekin burutu daitekeelako eta aplikazioa erreza delako. Metodo hau ikerkuntza teknika bat da, adituen panel baten bidez iritzi bat lor daitekeelarik (128). Kasu honetan, adituen panela osatuta egon daiteke tekniko preskriptoreen bidez, birgaitze enpresen bidea eta etxebizitzetako jabeen bidez. Adituei kontsultatzen zaie gutxienez kontu beraren gain bi aldiz, emandako erantzunean berriro pentsa dezaten. Hortaz, prozesu

iteratibo bat da. Eraitza ona lortzeko galderak era egokian egin behar dira erantzunen tratamendu kuantitatibo eta estatistikoa egin ahal izateko.

Jarrian, hurrengo 5.32. Taulan erabaki-zuhaitzaren elementu guztietan esleitutako pisua ikus daiteke, kontuan hartuta adituek emandako garrantzi gradua.

ERREK.	Pisua	IRIZPIDEAK	Pisua	ADIERAZLEAK	Pisua
Ekonomikoa (E)	%26	Kostuak (E1)	%56	Materialaren kostua (E1.1)	%28
				Instalazioaren kostua (E1.2)	%37
				Mantenuko urteroko kostua (E1.3)	%35
		Inbertsioaren errentagarritasuna (E2)	%44	Errentagarritasuna (E2.1)	%100
Ingurumena (I)	%18	Erabilitako materialak (I1)	%55	Birziklagarritasuna (I1.1)	%35
				Sortutako hondakinak (I1.2)	%32
				Ingurumen-inpaktua (I1.3)	%33
		Emisioak (I2)	%44	CO <sub>2</sub> -aren aurreztea (I2.1)	%100
Funtzionala (F)	%30	Eraikuntzako konponbideak (F1)	%37	Egikaritzearen konplexutasuna (F1.1)	%100
		Segurtasuna (F2)	%33	Suaren aurkako erreakzioa (F2.1)	%52
				Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea (F2.2)	%48
		Kondentsazioak (F3)	%30	Kondentsazioen aurkako isolatzailearen portaera (F3.1)	%100
Soziala (S)	%26	Sortutako eragozpenak (S1)	%27	Etxebizitza uzteko beharra (S1.1)	%47
				Instalazioaren ondoren espazio galera (S1.2)	%34
				Aldamioen beharra (S1.3)	%19
		Jabeentzako desegokitasuna (S2)	%17	Jabeen arteko adostasunaren beharra (S2.1)	%100
		Konfort eta osasuna (S3)	%27	Barruko konfort termikoa (S3.1)	%39
				Barruko aire kalitatea (S3.2)	%29
				Barruko konfort akustikoa (S3.3)	%32
		Ondare arkitektonikoa (S4)	%12	Ondare arkitektonikoa (S4.1)	%100
		Estetikoa (S5)	%17	Ingurunera egokitzeko gradua (S5.1)	%45
				Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa (S5.2)	%55

5.32. Taula: Erabaki-zuhaitzaren haztapena



## **6. Kapituluua: METODOLOGIAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA**

## 6.1. Sarrera

Ezari den metodologia egiaztatzeko, eraikinen eraginkortasun energetikoaren inguruan lehen eraikuntza araua (NBE-CT-79) indarrean sartu baino lehen eraikitako eraikin bat erabiliko da. Ikertuko den eraikinak ez du inolako isolamendu termikorik eta eraikina energetikoki pobrea da. Hortaz, eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko eraikina birgaitzea beharrezkoa da. Honela, eraikinak aurrezte energetiko kontuetan Eraikuntzaren Kode Tekniko (EKT) berriak ezartzen dituen exijentziak beteko ditu birgaitu ondoren.

## 6.2. Eraikinaren deskribapena

Aztertuko den eraikina tradizionalki ezkerraldea<sup>17</sup> deituriko eremuan kokatuta dago. Bizkaia probintziako Bilboko metropolialdearen edo Bilboaldearen barruan.



6.1. Irudia: Bizkaiko mapa

Eraikina 1967 urtean eraiki zen eta eraikinaren modelo arkitektonikoa garai horretako berezko etxebizitza-bloke motakoa da. Etxebizitza-blokearen 60 m<sup>2</sup>-ak bi logeletan eta bainugela, egongela eta sukalde batean banatuta daude. Etxebizitzaren orientazio nagusia mendebaldetik ekialdera da, aireztapen gurutzatua eta argiztapen naturala lortuz ia egun osoan zehar. Eraikinaren altuera zortzi metrokoa da, gutxi gorabehera.


<sup>17</sup> Bilboko metropolialdea edo Bilboaldea Nerbioi ibaiaren ibilbidearen zehar (ibaiaren bokaleraino) dauden udalerriek osatzen duten zonalde bat da. Zonalde hau hainbat eskualdetan banatzen da, horietariko bat tradizionalki Ezkerraldea deiturikoa izanik. Eskualde hau, bere izenak adierazten duen bezala, Bilboko itsasadarraren ezkerraldean kokatuta dauden herrialdeek osatzen dute. Zonalde hau historikoki industrialekin lotuta egon da.




6.2. Irudia: Aztertuko den eraikina

Eraikinaren fatxada nagusiak ipar-mendebalderantz eta hego-ekialderantz orientatzen dira. Azken orientazio horretan etxebizitzetako begiratokiak kokatzen dira. Eraikinaren sarrera nagusiak ipar-mendebaldean daude. Ipar-mendebaldeko fatxada urtean zehar eguzki-erradiazio gutxien jasaten duena da, gehien bat neguan. Hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko fatxadak aldiz, eguzki-erradiazio gehien jasaten dutenak dira.

6.3. Irudian eta 6.4. Irudian eguzkiaren solstizio eta ekinokzio ibilbideak adierazten dira. Lau kasuetan eguzkiaren intzidentzia handiagoa den orduan (12:00 am) proiektatzen diren itzalak ere adierazten dira. Ikus daitekeen bezala, eguzki-erradiazioa handiagoa den orduetan hego-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko fatxadak itzalpean daude, orientazio hauek izanik eguzki-erradiazioa gutxien aprobetxatzen dutenak. Gainera, ordu horietan eguzki izpiek plano horizontalarekiko duten inklinazio handiak ekiditen du bere ibilbidea oztopatua izan dadin hala nola, alboko eraikinengatik eta zonaren desnibel topografikoagatik.



6.3. Irudia: Eguzkiaren solstizio eta ekinokzio ibilbideak perspektiban 12.00 am-tan



**6.4. Irudia: Eguzkiaren solstizio eta ekinokzio ibilbideak oinplanoan 12.00 am-tan**

Erakina hiri-lurzoru finkatuan dagoen eta beste eraikinak dauden etxe-uhartearen barnean dago. Etxebizitza-blokeko hiru ilarak garai eta eraikuntzako tipologia berekoak dira, etxe-uharte horretan dauden eta auzoaren irudia itxuratzen duten eraikinak bezala. Oinplanoan banaketa antzekoa da, baina aldaketa txiki batzuekin, hurrengo 6.5. Irudian ikus daitekeen bezala. Irudi honetan ikusten da leihoen banaketa desberdina dela buruhormetan.



**6.5. Irudia: Eraikina kokatzen den Etxe-uhartea.**

Eraikina bizitegi-erabilerakoa da eta goiko solairuetan zein beheko solairuetan (kale mailan) etxebizitzak ditu. Eraikinak bi ezkaratzetan banatzen diren 20 etxebizitza ditu, solairu bakoitzeko bi etxebizitza daudelarik.


Zonaren topografia dela eta, eraikinaren parte bat partzialki lurperatuta dago. Honek sotorako lekua existitzea baimentzen du. Kasu honetan, erdisotoaren eremua bizitegi-zatiarekin bisualki bereizten da, zonalde honen itxitura harrizko plakazko estaldurazkoa baita. Eraikina eraiki zen garaian oso ohikoa zen merkataritza-erabilera edo bizitegi-erabilera ez zen beste erabilera zuten solairuen kanpoko hormak harrizkoak egitea. Horma hauetatik gora bistako adreiluzkoa zen fatxada nagusia altxatzen zen nahiz eta, kasu batzuetan fatxada estaldu ere egiten zen. Aztertzen ari garen kasuan, altuera desberdinetan dauden forjatuen gainean ezartzen da bistako adreiluzko fatxada, bere jarraitasuna bertikalki apurtuz eta lerro horizontal batzuk agertuz.



### 6.2.1. Zona klimatikoa

Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Oinarrizko Dokumentuetan Energia eskaera mugatzen duen sekzioan (EKT-OD-HE1), eraikinen zona klimatikoa ezartzen da, eraikina kokatzen den lekuaren neguko eta udako gogortasuna kontuan izanda. Honela, eraikinaren ingurutzalearen ezaugarri termikoak ezar daitezke. Eraikinak daukan zona klimatikoaren arabera, arauaren sekzio horretan transmitantzia termikoaren mugak eta orientagarria den transmitantzia termiko bat ezartzen dira energia eskaera mugatzeko (18).

Eraikina Bilbo ondoan kokatuta dago, Bizkaia probintzian hortaz, eraikinaren zona klimatikoa C1 da, hurrengo 6.6. Irudian ikus daiteken bezala.



6.6. Irudia: Zona klimatikoen banaketa, EKT-aren arabera

Hurrengo 6.1. Taulan, aipatu den EKT sekzioan zehazten diren transmitantzia termikoko balio limiteak eta orientagarriak adierazten dira. Ezarri den metodologiarekin bakarrik aztertuko dira fatxada birgaitzeko konponbideak beraz, bakarrik kontuan hartuko da fatxaden transmitantzia termikoa.

Transmitantzia termikoa (W/m <sup>2</sup> K)	Zona klimatikoa C1	
	U <sub>Mlim</sub> (limitea)	U <sub>M</sub> (orientagarria)
Fatxada-hormak eta lursailarekin kontaktuan dauden itxiturak	0.73	0.29


6.1. Taula: Birgaitzeko den fatxadaren transmitantzia termikoaren balioak, EKT-aren arabera

### 6.2.2. Termografia

Termografia infragorria kaltegarria ez den teknika bat da. Teknika honen bidez bat-batean edozein objektuko gainazal-tenperatura neurtu daiteke, bere emisibilitatearen funtziopean. Eraikinak izan ditzakeen zubi-termikoak eta ur-iragazketak antzemateko oso baliagarria den tresna bat da. Gainera, teknika honekin lortzen diren irudien interpretazioak birgaitzeko eraikuntzako konponbiderik egokienak balioestea laguntzen du. Izan ere, konponbideak neurri handi batean eta estandar ekonomiko batzuen barruan, inguratzaileren eraginkortasun energetikoaren hobekuntzan eragin dezake.


Hurrengo 6.7. Irudian, aztertzen ari den eraikinaren fatxadari egindako termografia ikus daiteke. Honetan tenperatura desberdinetan dauden gainazalak ikus daitezke eta hortaz, zubi-termikoak daudela ikusten da. Antzeman daitezke forjatuaren lerroak, leihoen inguruak eta gehien bat leihoen beirak nondik bero gehien galtzen den.

Eraikinaren alderik altuenean, azken solairuan, paramentoaren tenperaturaren handitzen graduala ere antzeman daiteke. Hemen biltzen baita neurri handi batean beroa, beste zonetan baino eguzki-erradiazio gehiago jasaten duelako eta solairu baxuetatik altuetara igotzeko beroak duen joeragatik.



6.7. Irudia: Eraikinaren fatxadaren termografia eta argazkia

Zubi-termikoez gain, bizigarriak ez diren espazioak ere antzeman daitezke, erdisotoa bezalako espazioa. Erdisotoa etxebizitzako espazio erabilgarriak baino tenperatura txikiagoan dago, hurrengo 6.8. Irudian ikus daitezkeen bezala. Honek bero galeretan eragina du eta horregatik, beheko solairuetako bero galerak handiagoak izango dira.



6.8. Irudia: Beheko solairua eta erdisotoaren arteko topaketaren termografia eta argazkia

### 6.2.3. Azterketa teknikoa

Kontuan hartuta egindako EAT (Eraikinen Azterketa Teknikoa), eraikinaren estalkiak ez du inolako patologiarik eta antza denez duela ez asko birgaitua izan da. (Ikusi eranskinak)

Egituraren azterketa bisualaren arabera, estalkian gertatzen den bezala, ez da inolako patologiarik antzematen.

Fatxadak ordea bai ditu patologiak esaterako, zikinkeria eta estaldura osatzen duen materialaren jaulkitzea eta pitzadurak. Ikuspegi termikotik, etxebizitza batzuetan kondentsazioak daude. Kondentsazio hauek itxurako euskarriko materialaren narriadura sor dezakete eta hortaz, energia galerak sortu. Gainera, barneko konfortean eta maizterren osasunean eragin dezakete.

Eraikinera doazen harguneko instalazio orokorren parte bat, kableatu elektrikoa edo gas-hodiak adibidez, kanpoko aurpegitik zeharkatzen dute fatxada eta erraz ikus daitezke. Bere baldintzari dagokionez, nahiz eta gaur egun itxurazko arriskurik ez aurkeztu, hondatzeari oso erakutsita daude.

Euri-urak husteko instalazioak (zorrotan) ere fatxadaren kanpotik doaz, baina kasu honetan onuragarria izan daiteke izan ere, instalazio mota hauetan ager daitezkeen ur-ihesak eta iragazketak arrisku larriak sor ditzake. Ur-ihesi hauek hodietan egon daitezkeen oztopoen ondorioz sor daitezke eta zorrotan ezkutatuta daudenean konpontzea zaila da.

Leihoen kasuan, etxebizitza batzuek bero kantitate handia galtzen den beira sinpleko jatorrizko egur leihoak dituzte. Gainera, hauen mantentzerik ezak eta narriadurak, bero galerak handitzen dituzten pitzaduren eta lasaiaren agertzea dakar

Eraikinen eraginkortasun energetiko kontuetan, lehen eraikuntza araua (NBE-CT-79) indarrean sartu baino lehen eraiki zen eraikina. Gainera, EAT-ak adierazten du urteetan zehar ez dela aldatu eraikinaren fatxada. Hortaz, aztertuko den eraikinak ez dauka inolako isolamendu termikorik bere ingurutzailan hau dela eta, energetikoki pobrea da.


### 6.2.4. Ziurtagiri energetikoa

Eraikin baten edo bere parte baten ziurtagiri energetikoa, lehen mailako energiaren kontsumoen, eskari energetikoen eta karbonoaren emisioen balio batzuk definitzen ditu, ingurutzalearen ezaugarrien (bere instalazio termikoak eta energia aprobetxatzeko baliabideak) eta eraikinaren erabileraren funtziopean. Ziurtagiri hauen helburua eraikinaren eraginkortasun energetiko definitzea da, etorkizunean egin beharreko hobekuntza energetikoa zeintzuk izan daitezkeen ezartzeko. Ezartzen diren hobekuntza energetikoa hauek izan daitezke: fatxadan ezartzea isolamendu termikoko sistema pasiboak, etekin handiagoa duten energia-sorkuntzako sistema aktiboak esaterako, berokuntza zentrala eta kondentsaziozkoa, ekologikoa den erregaia erabiltzea esterako, biomasa edo energia berriztagarriak erabiltzea esaterako eguzki-panel termikoa eta panel fotovoltaikoa.

Eraikinaren kalifikazio energetikoa egiteko CEX v2.3 programa informatikoa erabili da.

Bero eta etxeko ur beroko instalazioak banakakoak dira eta erregai bezala, gas naturala eta elektrizitatea erabiltzen da. Eraikinaren etxebizitzetan ez dago inolako hozte-sistematik.

Eraikinak lortu duen kalifikazio energetikoa "E" izan da. Kontsumo energetikoen eraginez eraikinaren metro karratuko isuritako batezbesteko emisioak 21 eta 45,9 kgCO<sub>2</sub>/m<sup>2</sup>urte artean daude. Eta eraikinaren metro karratuko berogailuaren eskariaren batezbesteko balioa 54,2 eta 99,8 kWh/ m<sup>2</sup>urte artean dago (Ikusi eranskinak). Hurrengo 6.9. Irudian balio hauek ikus daitezke.



6.9. Irudia: Eraikinaren kalifikazio energetikoa

### 6.2.5. Estetika auzo mailan

Eraikinaren inguruan dauden eraikinetan etxebizitza-blokeen bizitegi-arkitektura nabarmentzen da, etxebizitza-bloke gehienak altura ertainekoak (5 solairu) dira nahiz eta, ondoren eraikitako 7 solairu baino gehiagoko eraikin batzuk ere dauden. Bistako adreiluzko fatxadak nagusitzen dira gehien bat eta kasu batzuetan, kapa bakarreko fatxadak edo zeramikazko plakazko estaldura duten eraikinak daude.

Aspaldiko langile-izaera definitzen duten etxebizitza-blokeen ugaritasuna ere nabarmena da. Hau 60 urtearen ondoren garapen industrialaren azkartasunak ekarri zituen etxebizitza beharren eraginez denbora labur batean langileentzat eraiki ziren auzoen adierazle da.

Eraikuntza hauek gehienbat, bere morfologiagatik nabarmentzen dira, hau da, ilaran hiri-ehun barruan dagoelako eta eraikinen sakonera estua delako, 10 metro baino gutxiagokoa.



6.10. Irudia: Eraikinaren zona

### 6.2.6. Eskala soziala

2015-eko Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) datuen (97) arabera, eraikina kokatzen den auzoan hurrengo banaketa soziala dago: %51a emakumeak dira, %7a etorkinak eta %20a langabezian dago. Gainera, auzoan bizi diren ia %30a 65 urte baino zaharragoak dira.



6.1. Grafikoa: Adin multzoa (%). Eustat 2015

Auzoren egoera soziala baliabide ekonomiko eskasak duen langile-auzo bat dela nabarmendu daiteke. Izan ere, langabezian dauden pertsona kopuru handia da eta mugikortasun urriko eta baliabide ekonomiko eskasak dituzten eraikinaren jatorrizko jabe zahartuak bizi dira. Azken hau egiaztatu daiteke, urteetan eraikinean egin den mantenua eskasa izan delako.


### 6.3. Alternatiben definizioa

Alternatibak definitzerako orduan, existitzen diren birgaitze sistema desberdinak, isolatzaile motak eta huen lodiera kontuan hartu beharko da. Honela, 5. Kapitulu definitu diren adierazleen erantzuna aztertu daiteke.

Gau egun erabiltzen diren birgaitze sistema ohikoenak lau dira: SATE sistemak, Fatxada aireztatutako sistemak, barnetik egindako isolamendu sistemak eta aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemak, 4. Kapitulu ikusi zen bezala. Beraz, sistema hauek kontuan hartuko dira alternatibak definitzerako orduan. Planteatutako lau sistema hauetan erabiliko den isolatzailea zuntz minerala (MW) da. 4. Kapitulu komentatu zen bezala, zuntz minerala gaur egun eraikuntzan gehien erabiltzen den materialetariko bat da, dituen ezaugarri termiko, akustiko eta suaren aurkako erresistentziagatik eta bere aldakortasunagatik, isolatzaile hau lau sistemetan erabili baitaiteke. Gainera, EPS eta Poliuretanoarekin batera zuntz minerala Espainian gehien erabiltzen den isolatzailea da (129).


Hortaz, aukeratutako birgaitze sistemak hurrengo eran definituko dira:

**1) SATE bidez Fatxadaren kanpotik egindako isolamendu sistema:** euskarrira morteroz eta lotura mekanikoz finkatutako zuntz mineraleko panel zurrun batez osatuta dago. Estaldura mortero dekoratzailez osatuta dago. Estaldurako morteroa jatorrizko fatxadaren kolore berekoa izango da hau da, adreilu gorria.



6.11. Irudia: SATE sistemaren eskema. (Isover)

**2) Fatxada aireztatu bidezko kanpotik egindako isolamendu sistema:** Fatxadaren euskarran mekanikoki finkatuta dauden zuntz mineraleko panelez eta kanpotik belo natural beltz batez estalduta, isolatzailea fatxada aireztatua egikaritzen den bitartean eguraldi txarretik babesteko. Kanpoko estaldura edo akabera jatorrizko fatxadaren kolore bereko estruitutako plaka zeramikoaz osatuta dago.




6.12. Irudia: plaka zeramikazko fatxada aireztatu sistema. (CYPE)

**3) Barnetik egindako isolamenduko sistema:** igeltsu ijestuko plakaz eta plakei gehitutako zuntz mineral isolatzailez osatutako trasdosatu zuzeneko sistema da.



6.13. Irudia: Trasdosatu zuzeneko barnetik egindako isolamendu sistema. (ISOVER)

**4) Aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema:** aire-ganberaren barnetik zuntza mineral noduluen insulazioa fatxadaren kanpotik egiten da. Honela, isolatzailea eraikinaren inguratzailea osoan aplikatzen da.



6.14. Irudia: Aire-ganberaren insulazioa Kanpotik eginda. (CYPE)

Alternatiba egokiena aukeratzeko orduan isolatzaileak duen lodiera kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat ere da. Izan ere, lodierak fatxadaren transmitantzia termikoa zehaztuko du, aurreko kapituluan komentatu den bezala. Eraikinen aurrezte energetikoaren inguruan indarrean dagoen arauak (EKT-OD-HE) eraikinen eskakizun energetikoa mugatzeko bi transmitantzia termiko ezartzen ditu, bat transmitantzia limitea eta bestea orientagarria eraikina kokatzen den lekuaren zona klimatikoaren arabera, 5. Kapitulu

Zona klimatikoa	Transmitantzia termikoa (U) (W/m <sup>2</sup> K)	Isolatzailearen lodiera (mm)
C1	$U_{\text{limite}} = 0,73$	43
	$U_{\text{optimoa}} = 0,29$	133

6.2. Taula: Isolatzailearen lodiera, eraikinaren zona klimatikorako EKT-an ezartzen diren transmitantzia termiko balioen arabera. (Cener)

6.2. Taula kontuan izanda, EKT-ak ezartzen dituen transmitantzia termikoko balioak betetzeko, isolatzailearen lodiera 43 mm-koa izan beharko zen. Kostu globala eta kontsumo energetikoa kontuan hartuta kostu optimoa duen konponbidea lortu ahal izateko arauak ezartzen duen transmitantzia termikoko balio optimo edo orientagarria bete behar da. Transmitantzia balio hau lortzeko isolatzailearen lodiera 133 mm-koa izan beharko da. Existitzen diren merkataritza-lodierak kontuan hartuta eta transmitantzia termikoko balio horiekin betetzeko, aukeratu diren lodierak 50 mm eta 140 mm baliokoak izan dira. Halaber, 80 mm-ko bitarteko lodiera bat ere aukeratuko da.

Aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemen kasuan aukeratu den isolatzailearen lodiera aire-ganberak daukan lodieraren berdina izango da. Aztertzen ari den eraikinaren kasuan, aire-ganberaren lodiera zenbatekoa den ezaguna ez denez, 3. Kapitulu



Isolatzailen moten aurrean adierazleen erantzuna zein den aztertzeko, beste bi isolatzaile mota aukeratuko dira. Horietako bat Poliestireno hedatua (EPS) izango da izan ere, dituen ezaugarri termikoen ondorioz birgaitze sistemetan oso erabilgarria den material bat da. Aukeratuko den beste isolatzailea kortxo naturala (ICB) izango da, ekologikoa eta bere bizitza-ziklo osoan jasagarria den isolatzaile bat baita. Bi isolatzaile mota hauek bakarrik erabiliko dira SATE sistemen bidez fatxadaren kanpotik egindako isolamendu sisteman. Fatxadaren kanpotik egindako isolamendu sistemak eraikinak termikoki birgaitzeko sistema erabilienak dira, hauekin erakinean dauden zubi-termikoak kentzen baitira eraikinaren efizientzi energetikoa handituz. Dauden fatxadaren kanpotik egindako isolamendu sistemetatik ekonomikoa dena hartuko da, aztertuko den eraikina kokatzen den auzoaren egoera sozioekonomikoa kontuan hartu baita. Halaber, isolatzaile mota hauetarako aukeratu den lodiera 80 mm-koa da, lodiera limite eta optimoaren artean dagoen lodiera izanik.



**Zuntz minerala**



**EPS**



**Kotxo naturala**

**6.15. Irudia: Alternatibak definitzeko hartu diren isolatzaile motak. (Grupo Puma)**

Birgaitzeko sistemetan isolatzaile motaz gain, kanpotik egindako isolamendu sistemetan erabiltzen den kanpoko estaldura kontuan hartu beharreko faktore bat da, 5. Kapituluan ikusi zen bezala. Hortaz, adierazleak duen erantzuna ebaluatzeko, alternatiba bezala lauza txiki bidezko estaldura zeramiko bat planteatzen da. Zeramikazko lauza txikiak bistakoak izango dira horrela, eraikina birgaitu ondoren estetika ikuspuntutik fatxadak ez du jasango aldaketa handirik, jatorrizko fatxadaren kanpoko estetikarekin alderatuta. Isolatzaile moten arabera definitu diren alternatibetan erabili den irizpide berdinarekin jarraituz, planteatuko den alternatiba 80 mm-ko lodiera duen zuntz mineral isolatzailez eta zeramikazko lauza txikiko estalduraz osatutako SATE sistema bat izango da.



**6.16. Irudia: Zeramikazko lauza txikiak. (IDAE)**



**Jatorrizko egoera**



**Birgaitu ondoren**

**6.17. Irudia: SATE sistemaren estalduran zeramikazko lauza txikien erabilera. (Condenor)**

Hurrengo 6.3. Taulan, metodologiaren aplikazio praktikoan aukeratu diren alternatibak laburtzen dira.

Alternatiba	Birgaitze sistema	Isolatzailer mota	Isolatzaileraren lodiera
1	Barnetik	Zuntz minerala	50 mm
2	Fatxada aireztatua		
3	SATE mortero dekoratiboarekin		
4	Aire-ganberaren barnetik		
5	Barnetik	Zuntz minerala	80 mm
6	Fatxada aireztatua		
7	SATE mortero dekoratiboarekin		
8	Barnetik	Zuntz minerala	140 mm
9	Fatxada aireztatua		
10	SATE mortero dekoratiboarekin		
11	SATE mortero dekoratiboarekin	Zuntz minerala	80 mm
12		EPS	
13		Kortxoa	
14	SATE mortero dekoratiboarekin	Zuntz minerala	80 mm
15	SATE zeramikazko lauza txikiekin		

6.3. Taula: Aukeratutako alternatibak

#### 6.4. Kasu praktikoan lortutako emaitzak

Planteatu den alternatiba bakoitzerako erabaki-zuhaitzean definitu diren adierazleen balioak kalkulatu behar dira. Horretako, 5. Kapituluaren deskribatu diren adierazleen funtzioak erabiliko dira. Kapitulu horretan funtzioek lau forma desberdin izango zituztela ezarri zen: lineala, parabolikoa, tabulatua eta eskaloitua.

Jarraian, adierazleen balioak lortzeko prozedura deskribatzen da adierazleak balioztatzeko lau forma hauen arabera.


##### 1) Funtzio lineala

Funtzio honen bidez definituta dauden adierazleak eta hauek kalkulatzeko beharrezkoak diren alternatiben datuak hurrengo 6.4. Taulan adierazten dira:

Adierazlea	Parametroa	Altenatibaren datuak (X)	
		Kontzeptua	Unitateak
Kondentsazioen kontrako Isolatzailearen portaera (F2.2)		Isolatzaileak duen lurrunaren hedapenarekiko erresistentzia ( $\mu$ )	-
Barruko konfort termikoa (S3.1)	Transmitantzia termikoa	Transmitantzia Termikoa (U)	W/m <sup>2</sup> K
Konfort akustikoa (S3.3)		Gehitu den material kantitatea	Kg

6.4. Taula: Funtzio lineala duten adierazleak eta hauek kalkulatzeko behar diren datuak

Hurrengo 6.2 Grafikoan S3.1 alternatibaren datuak kontuan hartuta adierazlearen parametroaren balioa grafikoki nola kalkulaten den ikus daiteke, adibide bezala.



6.2. Grafikoa: Funtzio lineala duten adierazleen kalkuluaren adibide bat


## 2) Funtzio parabolikoa

Funtzio honekin irudikatuta dauden adierazleak eta adierazle hauek lortzeko beharrezkoak diren alternatiben datuak hurrengo 6.5. Taulan ikus daitezke:

Adierazlea	Parametroa	Alternatibaren datuak (X)	
		Kontzeptua	Unitateak
Materialaren kostua (E1.1)		Materialaren kostua	€/m <sup>2</sup>
Instalazioaren kostua (E1.2)		Instalazioaren kostua	€/m <sup>2</sup>
Mantenuko urteroko kostua (E1.3)	Iraunkortasuna	Mantenuko urteroko kostua	€ lehenengo 10 urteetan
Errentagarritasuna (E2.1)	Kostu totala	Kostu totala	€/m <sup>2</sup>
	Lortutako aurrezte energetikoa	Berogailuan aurrezte lortu dena	%
	Payback	payback	urteak
Sortutako hondakinak (I1.2)		Sortutako hondakinak	Kg
Ingurumen-inpaktua (I1.3)	Gehitutako energia	Erabili den isolatzailearen kostu energetikoa	MJ
	CO <sub>2</sub> emisioak	Erabili den isolatzailearen CO <sub>2</sub> emisioak	Kg
CO <sub>2</sub> -aren aurreztea (I2.1)		Lortu diren CO <sub>2</sub> -aren aurrezpena	%
Barruko airearen kalitatea (S3.2)	Giza osasunari eragindako kalteak	Eko-adierazlea eta isolatzailearen kantitatea	puntuak.kg/m <sup>2</sup>

6.5. Taula: Funtzio parabolikoa duten adierazleak eta hauek kalkulatzeko behar diren datuak

Grafikoki funtzio parabolikoa duten adierazleen kalkularen adibide bat ikus daiteke. Hurrengo 6.3. Grafikoa ikus daiteke adibide bat.



6.3. Grafikoa: Funtzio parabolikoa duten adierazleen kalkularen adibide bat


### 3) Funtzio tabulatua

Hurrengo 6.6. Taulan funtzio tabulatua duten adierazleak eta huen kalkulurako behar diren alternatibeen datuak zehazten dira.

Adierazlea	Parametroa	Alternatibaren datuak (X)
Egikaritzearen konplexutasuna (F1.1)		Eraikuntzako konponbide
Jatorrizko fatxadako euskarriaren egokitzea (F2.2)		Eraikuntzako konponbide
Etxebizitza uzteko beharra (S1.1)		Eraikuntzako konponbide
Barruko airearen kalitatea (S3.2)	Isolatzaileren posizioa	Eraikuntzako konponbide
Ingurunera egokitzeko gradua (S5.1)		Eraikuntzako konponbide

6.6. Taula: Funtzio tabulatua duten adierazleak eta hauek kalkulatzeko behar diren datuak

Funtzio tabulatua duten adierazleen kalkulu grafikoaren adibide bat irudikatua dago hurrengo 6.4. Grafikoan.



6.4. Grafikoa: Funtzio tabulatua duten adierazleen kalkularen adibide bat


#### 4) Eskaloi funtzioa

Eskaloi funtzioa duten adierazleak hurrengo 6.7. Taulan irudikatuta daude. Halaber, taula horretan adierazle hauek kalkulatzeko beharrezkoak diren alternatibaren datuak ikus daitezke.

Adierazlea	Parametroa	Alternatibaren datuak (X)
Mantenuko urteroko kostua (E1.3)	Bandalismoa sufritzeko posibilitatea	Eraikuntzako konponbide
	Bandalismoaren aurkako mantenua	Eraikuntzako konponbide
Birziklagarritasuna (I1.1)	Isolatzailer birziklagarria	Isolatzailer mota
	Birziklatutako edukia duen isolatzailer	Isolatzailer mota
	Isolatzailer ez den material birziklagarria	Isolatzailer mota
	Birziklatutako edukia duen isolatzailer ez den material	Isolatzailer mota
Suaren aurkako erreakzioa (F2.1)	Isolatzailer mota	Isolatzaileraren suaren aurkako erreakzioa
	Estaldurako materiala	Estalduraren suaren aurkako erreakzioa
Instalazioaren ondoren espazio galera (S1.2)		Eraikuntzako konponbide
Aldamioen beharra (S1.3).		Eraikuntzako konponbide
Jabeen arteko adostasunaren beharra (S2.1)		Eraikuntzako konponbide
Barruko konfort termikoa (S3.1)	Aurreztutako energia isolatzaileraren posizioaren arabera	Eraikuntzako konponbide
Ondare arkitektonikoa (S4.1)		Eraikuntzako konponbide
Jatorrizko fatxadaren hobekuntza estetikoa (S5.2)		Eraikuntzako konponbide

6.7. Taula: Eskaloi funtzioa duten adierazleak eta hauek kalkulatzeko behar diren datuak

Hurrengo 6.5. Grafikoan eskaloi funtzioa duten adierazleen kalkulu grafikoaren adibide bat irudikatzen da.



6.5. Grafikoa: Eskaloi funtzioa duten adierazleen kalkularen adibide bat

Behin adierazle guztien balioak kalkulatu eta adierazle bakoitzari dagokion irizpidea eta errekerimendua kalkulatu behar da. Horretarako, 5. Kapitulumuan deskribatu den erabakizuhaitza kontuan hartuko da (ikusi 5.32. Taula).

Jarraian, alternatiba bakoitzaren adierazleen eta errekerimenduen emaitzak adierazten dira.

### 6.4.1. 1etik 10erako alternatiben emaitzak

1etik 10erako alternatiben bidez alternatiba desberdinak konparatu nahi dira kontuan hartuta alternatiba bakoitzak duen eraikuntzako konponbide eta isolatzailearen lodiera. Erabakia hartzerako orduan, eraikuntzako konponbideak daukan eragina ikusteko 1etik 4rako alternatibak konparatuko dira. Alternatiba hauek honakoak dira: barnetik egindako isolamendu sistema, fatxada aireztatua, SATE sistema eta aire-ganberaren barnetik isolamendu sistema, hurrenez hurren. Bestetik, isolatzailearen lodierak erabakia hartzerako orduan, duen eragina zein nolakoa den ikusteko, 1. Alternatiba 5 eta 8. Alternatibekin konparatuko da, 2. Alternatiba 6 eta 9. Alternatibekin eta 3. Alternatiba 7 eta 10. Alternatibekin. Alternatiba hauen multzo bakoitzak isolamenduko sistema berdineko alternatibek osatzen dute baina multzoek duten isolatzailearen lodiera desberdina da hau da, lodierak 50, 80 eta 140 mm-koak dira, hurrenez hurren. Kasu honetan ez da 4. Alternatiba konparatu (aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema) izan ere, eraikinak 50 mm-ko lodiera finkoa duen aire-ganbera bakar bat baitu.

Komentatu den azterketa hau burutzeko deskribatutako sistema eraikitzaile guztiekin merkaturatzen eta sistema guzti hauetan zuntz minerala erabiltzen duen etxe komertziala bat hartu da.

Hurrengo 6.8. Taulan, komentatu diren alternatiben adierazleen emaitzak ikus daitezke.

Adierazlea	Alternatiba									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
E 1.1	0,86	0,67	0,79	0,99	0,81	0,66	0,76	0,78	0,62	0,66
E 1.2	0,86	0,09	0,35	0,45	0,86	0,09	0,35	0,86	0,09	0,35
E 1.3	0,85	0,61	0,53	1,00	0,82	0,60	0,53	0,79	0,59	0,51
E 2.1	0,29	0,72	0,87	0,32	0,34	0,71	0,85	0,39	0,70	0,77
I 1.1	0,25	0,43	0,25	0,67	0,25	0,43	0,25	0,25	0,43	0,25
I 1.2	0,62	0,98	0,41	1,00	0,59	0,95	0,42	0,52	0,95	0,39
I 1.3	0,85	0,85	0,85	0,97	0,75	0,75	0,75	0,58	0,58	0,58
I 2.1	0,11	0,99	0,99	0,10	0,23	1,00	1,00	0,34	1,00	1,00
F 1.1	1,00	0,20	0,50	0,00	1,00	0,20	0,50	1,00	0,20	0,50
F 2.1	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00
F 2.2	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00
F 3.1	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
S 1.1	0,00	1,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00
S 1.2	0,00	1,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00
S 1.3	1,00	0,00	0,00	0,00	1,00	0,00	0,00	1,00	0,00	0,00
S 2.1	1,00	0,00	0,00	0,00	1,00	0,00	0,00	1,00	0,00	0,00
S 3.1	0,41	0,83	0,83	0,41	0,49	0,91	0,91	0,57	0,98	0,99
S 3.2	0,25	0,52	0,61	0,61	0,14	0,41	0,51	0,09	0,37	0,46
S 3.3	0,03	0,27	0,07	0,02	0,05	0,29	0,10	0,09	0,34	0,15
S 4.1	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00
S 5.1	1,00	0,67	0,38	1,00	1,00	0,67	0,38	1,00	0,67	0,38
S 5.2	0,00	1,00	1,00	0,00	0,00	1,00	1,00	0,00	1,00	1,00

6.8. Taula: 1etik 10erako alternatiben adierazleen emaitzak

Bestetik, hurrengo 6.9. Taulan alternatiben hauekin lortu diren errekerimendu eta jasangarritasun indizearen emaitzak ikus daitezke.

Errekerimendua	Alternatiba									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<b>Ekonomikoa (E)</b>	0,61	0,56	0,68	0,59	0,62	0,55	0,67	0,63	0,54	0,62
<b>Ingurumen (I)</b>	0,37	0,85	0,72	0,54	0,39	0,83	0,70	0,40	0,80	0,67
<b>Funtzionala (F)</b>	0,70	0,40	0,52	0,33	0,70	0,40	0,52	0,70	0,40	0,52
<b>Soziala (S)</b>	0,48	0,71	0,68	0,58	0,48	0,71	0,68	0,49	0,72	0,69
<b>Totala: jasangarritasun indizea</b>	0,56	0,60	0,63	0,49	0,56	0,59	0,63	0,57	0,59	0,61

6.9. Taula: 1etik 10erako alternatiben errekerimenduen eta jasangarritasun indizearen emaitzak





6.8. Taulan eta 6.9. Taulan irudikatu emaitzak kontuan hartuta, jarraian alternatiba desberdinak haien artean konparatuz lortu diren emaitzak aztertuko dira.

#### 1) Alternatiben konparaketa kontuan hartuta eraikuntzako konponbide desberdinak.

Komentatu den bezala, planteatutako modeloaren aplikazioagatik lortutako emaitzak analizatuko dira lehenik eta behin, alternatiba bakoitzaren eraikuntzako konponbidea kontuan hartuz. Horretarako, konparatuko diren alternatiba guztiak isolatzaile berdina dute eta baita ere lodiera. (1etik 4rako alternatibak).

Horrela, transmitantzia termikoaren balioa aldatu gabe (isolatzailearen lodiera konstante) eraikuntzako konponbide desberdinek jasangarritasun indizean duten eragina analizatu daiteke. Armiarma diagramak erabiliz irudikatu dira lortutako emaitzak. Honela, alternatiba bakoitzean lortutako errekerimenduen emaitzak konparatu daitezke haien artean.



Alternatiba	Emaitzak
<p><b>1. Alternatiba:</b> <u>Barnetik</u> egindako isolamendu termikoen sistema, 50 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz.</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,56</b></p>
<p><b>2. Alternatiba:</b> <u>Fatxada</u> aireztatutako sistema, 50 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,6</b></p>
<p><b>3. Alternatiba:</b> <u>SATE</u> sistema, 50 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) =0,64</b></p>
<p><b>4. Alternatiba:</b> <u>Aire-ganberaren barnetik</u> egindako isolamendu termikoen sistema, 50 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea)= 0,5</b></p>

6.10. Taula: 1etik 4rako alternatibetan lortutako errekerimenduen emaitzen irudikapen grafikoa

6.10. Taulan ikus daiteke, alternatibak bakoitzak lortutako jasangarritasun indizearen balio maximoak eta minimoak. Jasangarritasun indizearen balio handiena lortu duen eraikuntzako konponbidea SATE sistema izan da (3. Alternatiba) eta honek lortutako balioa 0,64-ko izan da, 1 balioa lortu daitekeen balio maximoa izanik. Kontuan hartuta lau grafikoen azalera, alternatiba honek beste alternatibak baino azalera handiagoa dauka. Aldiz, jasangarritasun indizearen balio txikiena lortu duten eraikuntzako konponbidea aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu termiko sistema (4. Alternatiba) izan da, hau da, azalera txikiena duen alternatiba. Alternatiba honek 0,5ko balio lortu du, 1 balioa lortu daitekeen balio maximo izanik. SATE sistemak ia errekerimendu guztietan aise gainditu du batezbesteko balioa (0,5 balioa). Sistema honek lau errekerimenduetan lortutako batezbestekoa kalkulatu gero, balio hau 0,65koa da, 1 balioa lortu daitekeen balio maximoa izanik. Errekerimendu ekonomikoan balio handiena lortu duen alternatiba izan da, alternatiba guztietatik errentagarriena baita. Izan ere, SATE sistema ez da alternatiba garestienetako bat eta gainera sistema honekin lortzen den aurrezte energetikoa handienetarikoa da.

Kontrako muturrean, aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema dago. Hau dauden alternatibatik balio gutxien lortu duena da. Sistema honek errekerimendu guztietatik pisu handiena duen errekerimenduan, hots, %30eko pisua duen errekerimendu funtzionalean, ez du 0,5 batezbesteko balioa gainditzea lortu. Izan ere, sistema honen egikaritzea konplexua da, 4. Kapituluian ikusi zen bezala. Beste errekerimenduetan arinki gainditu du 0,5ko batezbesteko balioa.

Bigarren jasangarritasun indizearen balio onena lortu duen alternatiba, SATE sistemaren ondoren, fatxada aireztatua izan da (2. Alternatiba). Alternatiba honek lortu duen jasangarritasun indizearen balio 0,6koa izan da. SATE sistemarekin alderatuta, jasangarritasun indize txikiago bat lortu du errekerimendu ekonomikoan eta funtzionalean ez baitu puntuazio on bat lortu. Errekerimendu hauek pisu handiena duten errekerimenduak dira, %26ko eta %30eko pisua, hurrenez hurren. Izan ere, alternatiba hau garestiena da kontuan hartuta instalazio kostuak eta erabiltzen diren materialen kostuak. Gainera, instalatzerako orduan sistema konplexua da, aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistemen aurretik, eta hau errekerimendu ekonomikoan eragin handiena duen irizpidea da. Irizpide honek duen pisua %37koa da, errekerimendu funtzionalean dauden beste irizpideekin alderatuta. Baina errekerimendu sozialean eta ingurumen errekerimenduan puntuazio handiena lortu duen sistema da.

Azkenik, barnetik egindako isolamendu sistemak (1. Alternatiba) dauden eraikuntzako konponbide txarretik onena da, txarrena aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema izanik. Trasdosatu zuzeneko barnetik egindako isolamendu sistema eraikuntzako konponbiderik sinpleena da instalatzerako orduan, 4. Kapituluian ikusi zen bezala. Hau dela eta, alternatiba honek errekerimendu funtzionalean beste alternatibek lortu duten balioa baino askoz balio handiago bat lortu du, lortutako balioa 0,7koa izanik.

### **2) Alternatiben konparaketa kontuan hartuta isolatzailearen lodierak daukan eragina eraikuntzako konponbide desberdinetan.**

Aztertzeko isolatzailearen lodierak daukan eragina birgaitze konponbiderik jasangarriena aukeratzerako orduan, eraikuntzako konponbide eta isolatzaile mota berdina baina hiru lodiera desberdinak dituzten alternatibak konparatuko dira haien artean. Hasiera batean, 1, 5 eta 8 alternatibak konparatuko dira haien artean. Alternatiba hauek eraikuntzako sistema eta isolatzaile berdina dute, hau da, barnetik egindako isolamendu sistema zuntz mineraleko isolatzailea osatuta dago eta isolatzaileak hiru lodiera desberdin ditu 50, 80 eta 140 mm-koa,

hurrenez hurren. Ondoren, eraikuntzako sistema berdina, isolatzaile mota berdina baina, hiru isolatzaile lodiera desberdin dituzten 2, 6 eta 9 alternatibak konparatuko dira haien artean. Alternatiba hauek fatxada aireztatu sistemak dira sistemek zuntz minerala erabiltzen dute isolatzaile bezala eta alternatiba bakoitzean erabiltzen den isolatzailearen lodierak desberdinak dira izan ere, 50, 80 eta 140 mm-ko lodierak erabiltzen dira alternatiba horietan, hurrenez hurren. Azkenik, zuntz minerala eta 50, 80 eta 140 mm-ko isolatzailearen lodiera duten SATE sistemetan isolatzailearen lodierak duen eragina aztertuko da. Horretarako 3, 7 eta 10 alternatibak erabilitako dira, hurrenez hurren.

Konparaketa guztia hauek egiteko, alternatiba bakoitzak errekerimenduetan lortu dituen emaitzak grafikoki irudikatuko dira armiarma diagramak erabiliz.

Kasu honetan, ez da aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu sistema kontuan hartuko konparaketak egiterako orduan izan ere, eraikinak duen aire-ganberaren lodiera finkoa da, aurretik komentatu den bezala.

### **Barnetik egindako isolamendu sistemetan isolatzailearen lodierak duen eragina.**

6.11. Taulan 1, 5 eta 8 alternatibetan lortu diren errekerimenduen emaitzak grafikoki irudikatuta ikus daitezke. Alternatiba guzti hauek eraikuntza sistema eta isolatzaile mota berdina dute baina alternatiba bakoitzak duen isolatzailearen lodiera desberdina da, hau da, barnetik egindako isolamendu sistemak dira, zuntz minerala erabiltzen dute isolatzaile bezala baina 1. Alternatibaren isolatzailearen lodiera 50 mm-koa da, 5. Alternatibaren isolatzailearen lodiera 80 mm-koa da eta 8. Alternatibaren isolatzailearen lodiera 140 mm-koa da.

Lortutako emaitzak grafikoki adierazteko 6.9. Taulan dauden 1. Alternatibaren, 5. Alternatibaren eta 8. Alternatibaren datuak erabili dira.

Alternatiba	Emaitzak
<p><b>1. Alternatiba:</b> Barnetik egindako isolamendu termikoen sistema, <u>50 mm</u>-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	<p>Ekonomikoa (E ) 1,0 0,8 0,6 0,4 0,2 0,0</p> <p>Soziala (S) 0,48</p> <p>Ingurumena (I) 0,37</p> <p>Funtzionala (F) 0,70</p> <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,56</b></p>
<p><b>5. Alternatiba:</b> Barnetik egindako isolamendu termikoen sistema, <u>80 mm</u>-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	<p>Ekonomikoa (E ) 1,0 0,8 0,6 0,4 0,2 0,0</p> <p>Soziala (S) 0,48</p> <p>Ingurumena (I) 0,39</p> <p>Funtzionala (F) 0,70</p> <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,567</b></p>
<p><b>8. Alternatiba:</b> Barnetik egindako isolamendu termikoen sistema, <u>140 mm</u>-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	<p>Ekonomikoa (E ) 1,0 0,8 0,6 0,4 0,2 0,0</p> <p>Soziala (S) 0,49</p> <p>Ingurumena (I) 0,40</p> <p>Funtzionala (F) 0,70</p> <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,573</b></p>

6.11. Taula: 1, 5 eta 8 alternatibetan lortutako errekerimenduen balioak grafikoki adierazita

6.11. Taulan ikus daitekeen bezala, isolatzailearen lodiera handituz joan den heinean jasangarritasun indizearen balioa handitu da baino, hiru alternatibetan lortu den balio totala ia antzekoa da, 0,56, 0,567 eta 0,573 balioak izanik, hurrenez hurren. Honek esan nahi du barnetik egindako isolamendu sistemetan isolatzailearen lodiera handitzeak eragin gutxi duela. Bestekin konparatuta pisu (%30) gehien duen errekerimenduan eman den aldaketa nulua izan da. Aldaketa handiena jaso duen errekerimendua aldiz, ingurumen errekerimendua izan da. Errekerimendu honen balioa 1. Alternatibak lortutako 0,37 baliotik, 5.alternatibak lortutako 0,39 baliora pasatu da eta azkenik 8. Alternatibak lortu duen 0,4 baliora pasatu da, 50, 80 eta




140 mm-ko isolatzaile lodierako alternatibak izanik, hurrenez hurren. Baina errekerimendu hau lau errekerimenduetatik pisu (%18) gutxien duen errekerimendua denez, errekerimendu honek jasatako aldaketak ez du eragin handia izan alternatiben jasangarritasun indizean. Errekerimendu honen balioen handitze hori, isolatzailearen lodiera handitzean lortu den CO<sub>2</sub>-aren aurreztearen eraginez lortu da. Baina isolatzailearen lodiera handitzearekin lortu den aurreztutako energiak eta konfort termikoaren eta akustikoaren hobetzeak ez dute ia aldaketarik eragitea lortu haien errekerimenduetan. Izan ere, lodiera handitzean materialen kostua eta instalazio kostuak handitzen dira eta baita ingurumen-inpaktua eta barneko aire kalitatearen inpaktua ere, isolatzaile kantitate handiagoa gehitzen delako.

Hau dela eta, barnetik egindako isolamendu sistemetako alternatiba desberdinetan lortutako balio totalen inguruan komentatu dena kontuan hartuta, ziurtatu daiteke isolatzailearen lodiera handitzeak hobekuntza oso txiki bat eragin duela, %2,3koa gutxi gorabeherakoa, kontuan hartuta lodiera minimoarekin eta maximoarekin lortutako jasangarritasun indizearen balioak.

#### **Fatxada aireztatutako sistemetan isolatzailearen lodierak duen eragina.**

Fatxada aireztatutako sistema berdina eta isolatzaile mota berdina baina, hiru isolatzaile lodiera desberdina duten alternatibek lortu dituzten emaitzak 6.12. Taulan daude grafikoki irudikatuta.

Aurreko atalean bezala, 2. Alternatiban, 6. Alternatiban eta 9. Alternatiban lortutako emaitzak grafikoki irudikatzeko, 6.9. Taulan dauden datuak erabili dira.

Alternatiba	Emaitzak
<p><b>2. Alternatiba:</b> Fatxada aireztatutako sistema, 50 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,604</b></p>
<p><b>6. Alternatiba:</b> Fatxada aireztatutako sistema, 80 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,599</b></p>
<p><b>9. Alternatiba:</b> Fatxada aireztatutako sistema, 140 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,592</b></p>

6.12. Taula: 2, 6 eta 9 alternatibetan lortutako errekerimenduen balioak grafikoki adierazita

6.12. Taulan irudikatuta grafikoak kontuan hartuta, esan daiteke hiru alternatibetan lortutako jasangarritasun indizearen balioak ia berdinak dira. Baina hemen lortutako emaitzak aurreko kasuan lortutako emaitzekin konparatzen baditugu, ikus daiteke kasu honetan isolatzailearen lodiera handitzeak joera negatibo bat izan duela, indizearen balioa txikitzen baita. Hau, neurri handi batean, lodiera handitzeak suposatzen duen kostu ekonomikoagatik izan daiteke, handitze horrek ekartzen dituen aurrezte energetikoaren abantailarekin alderatuz. Izan ere, ikus daitekeen bezala, errekerimendua ekonomikoaren balioa txikitzen da isolatzailearen lodiera handitzen den heinean, inbertsioa geroz eta errentagarritasun gutxiago izatea lortuz. 50 mm-ko lodieratik 80 mm-ko lodierara eta azkenik 140 mm-ko lodierara pasatzeak ez du aurrezte energetikoaren eta CO<sub>2</sub>-aren aurreztean handitze nabarmen bat ekartzen fatxada aireztatuaren kasuan izan ere, balio hauek %48,3tik %50era eta azkenik %51,7ko baliora

pasatzen dira, hurrenez hurren. Hortaz, 50 mm-ko lodiera minimoarekin lortzen den aurrezte energetiko nahiko altua da.

Beste alde batetik, lodiera handituz doan heinena handitzen den errekerimendu bakarra errekerimendu soziala da. Izan ere, isolatzailearen lodiera handitzean konfort termikoa eta akustikoa handitzen da eta barneko aire kalitatea aldiz, txikitzen da baina, azken adierazle honek duen pisua beste biek dutena baino askoz txikiagoa da.




Halaber, aurreko kausan bezala, ikus daiteke errekerimendu funtzionalaren gain isolatzailearen lodierak ez duela inolako eraginik, hiru alternatibetan lortutako balioekin konparatuta errekerimendu hau ez baita aldatu.

Konklusio bezala, fatxada aireztatutako sisteman lortutako jasangarritasun indizearen balioak kontuan hartuta, baieztatu daiteke isolatzailearen lodiera handitzeak ez duela ia eraginik alternatiba hauen emaitzetan eta gainera era negatiboan eragiten duela %2ko balioarekin, kontuan hartuta lodiera minimoarekin eta maximoarekin lortutako jasangarritasun indizearen balioak.

#### **SATE sistemetan isolatzailearen lodierak duen eragina.**

SATE sistema eta isolatzaile mota berdina duten baino hiru isolatzailearen lodiera desberdina duten alternatibetan lortutako emaitzak grafikoki irudikatu dira hurrengo 6.13. Taulan.

3. Alternatiban. 7. Alternatiban eta 10. Alternatiban lortutako emaitzak grafikoki adierazteko 6.9. Taulan dauden datuak erabili dira.

Alternatiba	Emaitzak
<p><b>3. Alternatiba:</b> <u>SATE</u> sistema, 50 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p style="text-align: center;"><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,64</b></p>
<p><b>7. Alternatiba:</b> <u>SATE</u> sistema, 80 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p style="text-align: center;"><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,63</b></p>
<p><b>10. Alternatiba:</b> <u>SATE</u> sistema, 140 mm-ko lodiera duen zuntz minerala erabiliz</p>	 <p style="text-align: center;"><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,61</b></p>

6.13. Taula: 3, 7 eta 10 alternatibetan lortutako errekerimenduen balioak grafikoki adierazita

6.13. Taulan ikus daiteke fatxada aireztatu sistemetan gertatzen zen bezala, isolatzailearen lodiera handitzean hiru alternatibetan lortu den jasangarritasun indizea txikitzen dela. Baina kasu honetan, eman den txikitze hori beste kasuan baino pixka bat gehiago antzeman daiteke izan ere, indize honen balioa 3. Alternatibak duen 0,64tik, 7. Alternatibak duen 0,63ra eta azkenik, 10. Alternatibak duen 0,62ra pasatzen da. Halaber, hiru alternatibetan errekerimendu ekonomikoan lortu diren emaitza kontuan hartzen badira, lodiera handitzean errekerimendu honen balioa txikitzen dela antzematen da, gutxitze hau nabariago izanik isolatzailearen lodiera 80 mm-koa izatetik 140 mm-koa izatera pasatzean. Izan ere, zenbat era handiagoa izan



lodieraren handitzea, orduan eta handiagoa izango da sistemaren kostua, lodiera handitzearekin lortzen den aurrezte energetikoarekin alderatua, fatxada aireztatuaren kasuan gertatzen den bezala. Hau dela eta, isolatzailearen lodiera 80 mm-tik 140 mm-ra pasatzean errekerimenduaren balioan salto handiago bat ematen da, saltoa %7,5ekoa izanik eta fatxadan aireztatuan ematen den saltoa baino handiagoa izanik. Hortaz, lodiera handitzea ez da ekonomikoki errentagarria.

Baina errekerimendu sozialak bai sufritzen du bere balioaren handitze txiki bat beste errekerimenduekin alderatuta. Izan ere, fatxada aireztatuan gertatzen den bezala, isolatzailearen lodiera handitzeak konfort termikoan eta akustikoan dakarren hobekuntza handiagoa da, konparatuta barneko aire kalitatean dakarren txikitzea isolatzailearen kantitatea handitzeagatik.

Kontuan hartuta esandakoa, baieztatu daiteke, SATE sistema desberdin hauetan lortutako balio totalak aintzat hartuta, isolatzailearen lodiera handitzeak ez duela hobekuntzarik ekartzen minimo bezala planteatu den lodierako balioarekin (50 mm) alderatuta.

#### **6.4.2. 11, 12 eta 13 alternatiben emaitzak**

Erabakia hartzerako orduan, isolatzaile motak duen eragina aztertzeko 11, 12 eta 13 alternatibetan lortutako emaitzak erabiliko dira. Horretarako, eraikuntzako sistema (SATE sistema) eta isolatzailearen lodiera (80 mm) berdina duten baina isolatzaile mota desberdina duten alternatibak aztertuko dira. 11. Alternatibaren isolatzailea zuntz minerala izango da, 13. Alternatibarena EPS-a eta 13. Alternatibarena kortxoa.

Kasu honetan, azterketa hau egiteko hiru isolatzaile hauekin SATE sistema merkaturatzen duen etxe komertzial baten balioak hartu dira kontuan.

Hurrengo 6.14. Taulan alternatiba hauetan lortutako adierazleen emaitzak ikus daitezke.

Adierazlea	Alternatiba		
	11	12	13
	Zuntz minerala (LM)	EPS	Kortxoa (ICB)
E 1.1	0,68	0,78	0,59
E 1.2	0,35	0,35	0,35
E 1.3	0,50	0,52	0,49
E 2.1	0,78	0,87	0,72
I 1.1	0,25	0,25	0,58
I 1.2	0,95	0,95	0,95
I 1.3	0,75	0,67	0,98
I 2.1	0,99	0,99	0,99
F 1.1	0,50	0,50	0,50
F 2.1	1,00	1,00	1,00
F 2.2	1,00	1,00	1,00
F 3.1	0,00	0,01	0,00
S 1.1	1,00	1,00	1,00
S 1.2	1,00	1,00	1,00
S 1.3	0,00	0,00	0,00
S 2.1	0,00	0,00	0,00
S 3.1	0,90	0,90	0,89
S 3.2	0,51	0,92	0,82
S 3.3	0,10	0,04	0,09
S 4.1	1,00	1,00	1,00
S 5.1	0,38	0,38	0,38
S 5.2	1,00	1,00	1,00




6.14. Taula: 11, 12 eta 13 alternatibetan lortutako adierazleen emaitzak

Alternatiba bakoitzak errekerimenduetan eta jasangarritasun indizean lortutako balioak hurrengo 6.15. Taulan ikus daitezke.

Errekerimendua	Alternatiba		
	11	12	13
	Zuntz minerala (LM)	EPS	Kortxoa (ICB)
Ekonomikoa (E)	0,62	0,68	0,58
Ingurumen (I)	0,79	0,78	0,90
Funtzionala (F)	0,52	0,52	0,52
Soziala (S)	0,68	0,70	0,70
<b>Totala: jasangarritasun indizea</b>	0,64	0,65	0,65

6.15. Taula: 11, 12 eta 13 alternatibetan lortutako errekerimenduen eta jasangarritasun indizearen emaitzak

Lortutako errekerimenduen emaitzak kontuan hartuta, 6.15. Taulan dauden datuak, alternatiben arteko azterketa konparatibo bat egingo da. Horretarako emaitza hauek grafikoki irudikatu dira armiarma diagramen bidez. (Ikusi 6.16. Taula).

Alternatiba	Emaitzak
<p><b>11. Alternatiba:</b> SATE sistema, 80 mm-ko lodiera duen <u>zuntz minerala</u> erabiliz</p>	 <p>Ekonomikoa (E) 0,62 Soziala (S) 0,68 Ingurumena (I) 0,79 Funtzionala (F) 0,52</p> <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,635</b></p>
<p><b>12. Alternatiba:</b> SATE sistema, 80 mm-ko lodiera duen <u>EPS</u> isolatzailea erabiliz</p>	 <p>Ekonomikoa (E) 0,68 Soziala (S) 0,70 Ingurumena (I) 0,78 Funtzionala (F) 0,52</p> <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,655</b></p>
<p><b>13. Alternatiba:</b> SATE sistema, 80 mm-ko lodiera duen <u>kortxo</u> isolatzailea erabiliz</p>	 <p>Ekonomikoa (E) 0,58 Soziala (S) 0,70 Ingurumena (I) 0,90 Funtzionala (F) 0,52</p> <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,649</b></p>

6.16. Taula: 11, 12 eta 13 alternatibetan lortutako errekerimenduen balioak grafikoki adierazita

6.16. Taulan ikus daitekeen bezala, 12. Alternatiba (EPS material isolatzailea erabiltzen duena) izan da jasangarritasun indize maximoa lortu duena eta lortutako balioa 0,655ekoa izan da. Honen ondoren, 0,649 jasangarritasun indizearen balio lortu duen 13. Alternatiba dago. Antzeman daitekeen bezala haien indizeen balioen arteko desberdintasuna minimoa da. Bi

alternatiba hauen arteko desberdintasuna batez ere, bi errekerimendutan datza eta hauek errekerimendu ekonomiko eta ingurumen errekerimendua dira. EPS isolatzailea planteatu diren hiru isolatzaile motatik merkeena da eta kortxoazko isolatzailea garestiena da. Hau dela eta, EPS isolatzaileak errekerimendu ekonomikoan lortu duen balioa (0,68) handiagoa da kortxo isolatzaileak lortu (0,58) duena baino. Baina, errekerimendu hau ez bezala, ingurumen errekerimenduan kortxoak lortu duen balioa handiena da, beste isolatzaileek lortu duten balioaren alderatuta. Errekerimendu honetan kortxoak 0,9ko balioa lortu du, EPS isolatzaileak aldiz, 0,78ko balio lortu du. Izan ere, kortxoa material ekologiko bat da eta beraz, bere fabrikazioan sortzen duen ingurumen-inpaktua beste bi isolatzaileek (EPS eta zuntz minerala) sortzen dutena baino askoz txikiagoa da. Kortxoaren fabrikazioan gehitzen den energia eta isurtzen diren CO<sub>2</sub> emisioak beste isolatzaileek gehitzen eta isurtzen dutena baino askoz txikiagoa da. Baina hala ere, kortxoak daukan jasangarritasun indizea EPS isolatzaileak lortu duena baino txikiagoa da. Azken hau, errekerimendu ekonomikoaren pisua (%26) ingurumen errekerimenduak duen pisua (%18) baino handiago delako nagusiki gertatzen da.

Beste aldetik, zuntz mineraleko isolatzaileak jasangarritasun indize txikiena lortu duen alternatiba da, beste bi isolatzaileekin alderatuta. Isolatzaile hau EPS isolatzailea baino garestiagoa da baino kortxoa baino merkeagoa. Nahiz eta, ingurumenaren ikuspuntutik EPS-ak baino inpaktu gutxiago sortu ez da kortxoa bezalako material ekologiko bat. Hau dela eta, zuntz minerala EPS eta kortxo isolatzaileak baino pixka bat txarragoa da jasangarritasunaren ikuspuntutik.

Azkenik, baieztatu daiteke EPS isolatzailea material jasangarriena dela eta ondoren diferentzia minimo batekin kortxoa dela, zuntza mineralarekin alderatuta.

### **6.4.3. 14 eta 15 alternatiben emaitzak.**

14. Alternatiban eta 15. Alternatiban lortutako emaitzak aztertuz, kanpotik egindako isolamendu sistemetan kanpoko estaldurak adierazleetan duen eragina zein den analizatu nahi da. Honela, 80 mm-ko lodiera duten zuntz mineralez osatutako SATE sistema berdina duten baina kanpoko estaldura desberdina duten bi alternatiba aztertuko dira. 14. Alternatibaren estaldura morterozkoa da eta 15. Alternatibarena aldiz, bistako zeramikazko plakazko estaldura da.

Bi alternatiba hauen arteko azterketa konparatiboa egiteko, aurreko analisisian hartu den etxe komertzial berdina erabiliko da erreferentzi bezala izan ere, etxe komertzial honek bi estaldura desberdin horiek osatzen duten SATE sistemekin merkaturatzen du. Hortaz, aurretik planteatu den 11. Alternatiba eta hemen definitu den 14. Alternatiba berdinak izango dira, hau da, SATE sistema bat non 80 mm-ko lodiera duen zuntz mineral isolatzaileaz osatuta dagoen alternatiba.

Alternatiba desberdinetan lortu diren adierazleen balioak hurrengo 6.17. Taulan ikus daitezke.

Adierazlea	Alternatiba	
	14	15
	Morteroa	Zeramikazko plakazko estaldura
E 1.1	0,68	0,57
E 1.2	0,35	0,31
E 1.3	0,50	0,45
E 2.1	0,78	0,69
I 1.1	0,25	0,43
I 1.2	0,95	0,07
I 1.3	0,75	0,75
I 2.1	0,99	0,99
F 1.1	0,50	0,50
F 2.1	1,00	1,00
F 2.2	1,00	1,00
F 3.1	0,00	0,00
S 1.1	1,00	1,00
S 1.2	1,00	1,00
S 1.3	0,00	0,00
S 2.1	0,00	0,00
S 3.1	0,90	0,90
S 3.2	0,51	0,51
S 3.3	0,10	0,23
S 4.1	1,00	1,00
S 5.1	0,38	0,67
S 5.2	1,00	1,00



6.17. Taula: 14 eta 15 alternatibetan lortutako adierazleen emaitzak

Bestetik, alternatiba hauek lortu dituzten errekerimenduen eta jasagarritasun indizearen balioak hurrengo 6.18. Taulan adierazita daude.

Errekerimendua	Alternatiba	
	14	15
	Morteroa	Zeramikazko plakazko estaldura
Ekonomikoa (E)	0,62	0,55
Ingurumen (I)	0,79	0,67
Funtzionala (F)	0,52	0,52
Soziala (S)	0,68	0,71
<b>Totala: jasagarritasun indizea</b>	0,64	0,60

6.18. Taula: 14 eta 15 alternatibetan lortutako errekerimenduen eta jasagarritasun indizearen emaitzak

Beste kasuetan egin den bezala, bi alternatiba hauek konparatzeko errekerimenduetan lortutako emaitzak grafikoki adierazi dira armiarma diagramen bidez hurrengo 6.19. Taulan.

Alternatiba	Emaitzak
<p><b>14. Alternatiba:</b> SATE sistema, 80 mm-ko lodiera duen zuntz minerala eta <u>morterozko estaldura</u> erabiliz.</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,64</b></p>
<p><b>15. Alternatiba:</b> SATE sistema, 80 mm-ko lodiera duen zuntz minerala eta <u>zeramikazko plakazko estaldura</u> erabiliz.</p>	 <p><b>Totala (jasangarritasun indizea) = 0,6</b></p>

6.19: 14 eta 15 alternatibetan lortutako errekerimenduen balioak grafikoki adierazita

6.19. Taulan ikus daitekeen bezala, 14. Alternatibak lortu duen jasangarritasun indizea 15. Alternatibak lortu duena baino handiagoa da. Hortaz, morterozko estaldura duen konponbidea konponbide jasangarriena da, plakazko estaldura duen konponbidearekin alderatuta. Izan ere, errekerimendu ekonomikoaren (beste errekerimenduekin konparatuta %26ko pisua du) eta ingurumen errekerimenduaren (bere pisua %18a da) balioetan jaitsiera handiago bat eman da errekerimendu sozialaren (bere pisua %26koa da) balioan eman den handitzearekin alderatuta. Plakazko estaldura morterozko estaldura baino garestiago da gainera, ez du energia-aurrezterik sortzen. Hortaz, plakazko estaldura fatxadaren kanpoko estaldurarako erabiltzen duen alternatibaren errentagarritasuna txarragoa da. Horretaz aparte, ingurumenaren ikuspuntutik, nahiz eta bi alternatibek isolatzaile berdina erabili, 15. Alternatibak hondakin gehiago sortuko ditu. Ondorioz, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspuntutik, plakazko estaldura kanpoko estalduran erabiltzea ez da errentagarria. Baino 15. Alternatibak sortzen duen inpaktu soziala beste alternatibak sortutakoa baino handiagoa denez ikuspuntu sozialetik plakazko estaldura erabiltzea efizienteagoa da. Izan ere, errekerimendu sozialean alternatiba honek lortutako balioa 14. Alternatibarekin alderatuta

handiagoa da. Plakazko estaldura eraikinaren ingurunera hobe egokitzen da, jatorrizko fatxadaren kolore eta testura imitatzen baitu. Morterozko estaldura aldiz, bakarrik imitatzen du jatorrizko fatxadaren kolorea. Gainera, 15. Alternatibarekin zeramikazko plakazko estaldurako kapa bat gehitzen zaio eraikinari, etxebizitzaren barneko konfort akustikoa hobetuz.

## 6.5. Emaizten sentsibilitate analisia.

Planteatu den metodologiarekin lortzen den jasangarritasun indizeak konponbideen jasangarritasun gradua adierazten du eta errekerimenduen eta irizpideen pisuekin erlazio zuzena du. Hortaz, hauek dituzten pisu erlatiboen aldaketa arinek ebaluazioko azkeneko balioan edo indizean aldaketa handiak eragin ditzakete (130, 131). Pisu hauek ebaluazio subjektiboaren emaitzak dira izan ere, honen inguruan adituak diren lan talde baterik lortu baitira. Horregatik, beharrezkoa da sentsibilitate analisi bat egitea lortutako emaitzen baliotasuna, egonkortasuna eta sendotasuna frogatzeko. Sentsibilitate analisi hau irizpideen eta errekerimenduen pisuak aldatuz egiten da. Analisi mota hau adierazlearen pisua aldatuz ere egin daiteke, baina normalean ez da egiten (64) izan ere, honek azkeneko emaitzan daukan eragina irizpide edo dimentsioen pisu aldaketak daukana baino askoz txikiagoa izaten da.


Sentsibilitate analisia burutzeko OAT (One-at-a-Time Sensitivity Analysis) erabiliko da, AHP-an oinarritutako metodologietan dauden sentsibilitate analisi ikuspegietatik ohikoenetako bat baita (132). Gainera, ikuspegi simple bat du oinarri gisa, konputazio errekurtsu gutxi behar ditu eta lortutako emaitzak interpretatzen errazak dira (133).

Burutuko den emaitzen sentsibilitate analisi honek, proposatu den metodologiaren baliostasunaren eta egonkortasunaren inguruko informazioa emango du. Emaitzak irizpideen eta errekerimenduen pisu erlatiboen aldaketa oso txikiak sentiberak badira, pisuen berrikustea gomendatzen da. Hau dela eta, irizpideen eta errekerimenduen pisu erlatiboak era independentean aldatuko dira. Lehenik eta behin, irizpideen pisuak aldatuko dira,  $\pm 30\%$ eko,  $\pm 50\%$ eko eta  $\pm 80\%$ ko aldaketekin, hurrenez hurren. Ondoren errekerimenduen pisuak aldatuko dira,  $\pm 30\%$ eko,  $\pm 50\%$ eko eta  $\pm 80\%$ ko aldaketekin ere, hurrenez hurren. Azkenik, irizpideen zein errekerimenduen pisu erlatiboak aldatzearen ondorioz lortutako emaitzak aztertuko dira eta emaitza hauek adituen lan-taldeari erakutsiko zaizkie, pisu erlatiboren bat aldatzeko aukera eskainiz. Sentsibilitate analisisian lortutako emaitzak adituen lan-taldearekin (erabakitze-zuhaitzaren pisuak ezarri duen lan-taldea) aztertzea eta balioztatzea garrantzitsua da (131).

### 6.5.1. Irizpide mailan egindako sentsibilitate analisia

Planteatu diren alternatiba desberdinetan lortutako emaitzekin sentsibilitate analisi bat burutzeko, erabakitze-zuhaitzean dauden irizpide bakoitzaren pisu erlatiboa aldatuko da. Horretarako, irizpide bakoitzaren pisu erlatiboa  $\pm 30\%$ ,  $\pm 50\%$  eta  $\pm 80\%$  aldatuko da. 12 irizpide existitzen direnez 24 eszenatoki berri definituko dira (12 portzentaje positiboarekin eta beste 12 portzentaje negatiboarekin). Eszenatoki berri hauetako bakoitzean 3 kasu definituko dira portzentaje bakoitzarekin ( $30\%$ ,  $50\%$  eta  $80\%$ ), aztertuko den alternatiba bakoitzarentzat.

Kontuan izan behar da irizpideak errekerimenduetan biltzen direla (ikusi 6.18. Irudia) hortaz, errekerimendu berdineko irizpide guztien pisuen batura %100 izan behar da. Hau dela eta, irizpide baten pisua aldatzean errekerimendu bereko beste irizpideen pisua ere aldatu behar da hauen batura %100 izaten jarrai dezan. Beste errekerimenduetako irizpideek aldiz, ez dute inolako aldaketarik jasango izan ere, errekerimendu berdinekoa ez den irizpide batean egindako pisu aldaketak ez du azkeneko emaitzan eraginik.



6.18. Irudia: Erabakitze-zuhaitza errekerimenduekin eta irizpideekin. 5 eta 17 eszenatokien 1 kasuaren ( $\% \pm 30$ ) balioak nola lortzen diren adibidea

Aurreko atalean proposatu diren alternatiba kopuru handia dela eta, balio totalaren sensibilitate analisia egiteko bakarrik kontuan hartuko dira lehenengo lau alternatibak. Hortaz, analisirako erabilitako diren alternatibak birgaitze energetikorako eraikuntzako



konponbide desberdinak dituzte eta ondorengoak dira: 1. Alternatiba, 2. Alternatiba, 3. Alternatiba eta 4. Alternatiba. 6.20. Taulan irizpideen pisuen aldaketa portzentaje positiboekin definitu diren lehengo 12 eszenatoki berri adierazten dira, alternatiba bakoitzeko. Bestalde, 6.21. Taulan falta diren beste 12 eszenatoki berri definitu dira alternatiba bakoitzeko, hots, irizpideen pisuen aldaketa portzentaje negatiboekin definitutako 12 eszenatokiak. Eszenatoki bakoitzean 3 kasu (%30, %50 eta %80) definitu dira alternatiba bakoitzeko.

	Aldaketa positiboa duten eszenatokiak											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
<b>1. Alternatiba %30</b>	(E1) %30	(E2) %30	(I1) %30	(I2) %30	(F1) %30	(F2) %30	(F3) %30	(S1) %30	(S2) %30	(S3) %30	(S4) %30	(S5) %30
<b>1. Alternatiba %50</b>	(E1) %50	(E2) %50	(I1) %50	(I2) %50	(F1) %50	(F2) %50	(F3) %50	(S1) %50	(S2) %50	(S3) %50	(S4) %50	(S5) %50
<b>1. Alternatiba %80</b>	(E1) %80	(E2) %80	(I1) %80	(I2) %80	(F1) %80	(F2) %80	(F3) %80	(S1) %80	(S2) %80	(S3) %80	(S4) %80	(S5) %80
<b>2. Alternatiba %30</b>	(E1) %30	(E2) %30	(I1) %30	(I2) %30	(F1) %30	(F2) %30	(F3) %30	(S1) %30	(S2) %30	(S3) %30	(S4) %30	(S5) %30
<b>2. Alternatiba %50</b>	(E1) %50	(E2) %50	(I1) %50	(I2) %50	(F1) %50	(F2) %50	(F3) %50	(S1) %50	(S2) %50	(S3) %50	(S4) %50	(S5) %50
<b>2. Alternatiba %80</b>	(E1) %80	(E2) %80	(I1) %80	(I2) %80	(F1) %80	(F2) %80	(F3) %80	(S1) %80	(S2) %80	(S3) %80	(S4) %80	(S5) %80
<b>3. Alternatiba %30</b>	(E1) %30	(E2) %30	(I1) %30	(I2) %30	(F1) %30	(F2) %30	(F3) %30	(S1) %30	(S2) %30	(S3) %30	(S4) %30	(S5) %30
<b>3. Alternatiba %50</b>	(E1) %50	(E2) %50	(I1) %50	(I2) 50%	(F1) %50	(F2) %50	(F3) %50	(S1) %50	(S2) %50	(S3) %50	(S4) %50	(S5) %50
<b>3. Alternatiba %80</b>	(E1) %80	(E2) %80	(I1) %80	(I2) %80	(F1) %80	(F2) %80	(F3) %80	(S1) %80	(S2) %80	(S3) %80	(S4) %80	(S5) %80
<b>4. Alternatiba %30</b>	(E1) %30	(E2) %30	(I1) %30	(I2) %30	(F1) %30	(F2) %30	(F3) %30	(S1) %30	(S2) %30	(S3) %30	(S4) %30	(S5) %30
<b>4. Alternatiba %50</b>	(E1) %50	(E2) %50	(I1) %50	(I2) %50	(F1) %50	(F2) %50	(F3) %50	(S1) %50	(S2) %50	(S3) %50	(S4) %50	(S5) %50
<b>4. Alternatiba %80</b>	(E1) %80	(E2) %80	(I1) %80	(I2) %80	(F1) %80	(F2) %80	(F3) %80	(S1) %80	(S2) %80	(S3) %80	(S4) %80	(S5) %80

6.20. Taula: Irizpideen pisuetan aldaketa positiboak sortu dituen 12 eszenatokien definizioa

	Aldaketa negatiboa duten eszenatokiak											
	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
<b>1. Alternatiba %30</b>	(E1) %-30	(E2) %-30	(I1) %-30	(I2) %-30	(F1) %-30	(F2) %-30	(F3) %-30	(S1) %-30	(S2) %-30	(S3) %-30	(S4) %-30	(S5) %-30
<b>1. Alternatiba %50</b>	(E1) %-50	(E2) %-50	(I1) %-50	(I2) %-50	(F1) %-50	(F2) %-50	(F3) %-50	(S1) %-50	(S2) %-50	(S3) %-50	(S4) %-50	(S5) %-50
<b>1. Alternatiba %80</b>	(E1) %-80	(E2) %-80	(I1) %-80	(I2) %-80	(F1) %-80	(F2) %-80	(F3) %-80	(S1) %-80	(S2) %-80	(S3) %-80	(S4) %-80	(S5) %-80
<b>2. Alternatiba %30</b>	(E1) %-30	(E2) %-30	(I1) %-30	(I2) %-30	(F1) %-30	(F2) %-30	(F3) %-30	(S1) %-30	(S2) %-30	(S3) %-30	(S4) %-30	(S5) %-30
<b>2. Alternatiba %50</b>	(E1) %-50	(E2) %-50	(I1) %-50	(I2) %-50	(F1) %-50	(F2) %-50	(F3) %-50	(S1) %-50	(S2) %-50	(S3) %-50	(S4) %-50	(S5) %-50
<b>2. Alternatiba %80</b>	(E1) %-80	(E2) %-80	(I1) %-80	(I2) %-80	(F1) %-80	(F2) %-80	(F3) %-80	(S1) %-80	(S2) %-80	(S3) %-80	(S4) %-80	(S5) %-80
<b>3. Alternatiba %30</b>	(E1) %-30	(E2) %-30	(I1) %-30	(I2) %-30	(F1) %-30	(F2) %-30	(F3) %-30	(S1) %-30	(S2) %-30	(S3) %-30	(S4) %-30	(S5) %-30
<b>3. Alternatiba %50</b>	(E1) %-50	(E2) %-50	(I1) %-50	(I2) %-50	(F1) %-50	(F2) %-50	(F3) %-50	(S1) %-50	(S2) %-50	(S3) %-50	(S4) %-50	(S5) %-50
<b>3. Alternatiba %80</b>	(E1) %-80	(E2) %-80	(I1) %-80	(I2) %-80	(F1) %-80	(F2) %-80	(F3) %-80	(S1) %-80	(S2) %-80	(S3) %-80	(S4) %-80	(S5) %-80
<b>4. Alternatiba %30</b>	(E1) %-30	(E2) %-30	(I1) %-30	(I2) %-30	(F1) %-30	(F2) %-30	(F3) %-30	(S1) %-30	(S2) %-30	(S3) %-30	(S4) %-30	(S5) %-30
<b>4. Alternatiba %50</b>	(E1) %-50	(E2) %-50	(I1) %-50	(I2) %-50	(F1) %-50	(F2) %-50	(F3) %-50	(S1) %-50	(S2) %-50	(S3) %-50	(S4) %-50	(S5) %-50
<b>4. Alternatiba %80</b>	(E1) %-80	(E2) %-80	(I1) %-80	(I2) %-80	(F1) %-80	(F2) %-80	(F3) %-80	(S1) %-80	(S2) %-80	(S3) %-80	(S4) %-80	(S5) %-80

6.21. Taula: Irizpideen pisuetan aldaketa negatiboak sortu dituen 12 eszenatokiaren definizioa

Behin 24 eszenatoki berrietan definitutako irizpideen pisuen aldaketak eginda, alternatiba bakoitzaren balio totalak edo jasangarritasun indizeak lortu dira. Lortutako indizearen balio hauek hasieran lortutako balioekin, hau da, pisuetan aldaketarik egin gabe lortutako balioekin konparatu dira. Konparaketa horretatik jasangarritasun indize bakoitzak jasan duen aldaketak lortu dira, aldaketa hauek ehunekotan adieraziz. 6.22. Taulan eta 6.23. Taulan jasangarritasun indize bakoitzak eszenatoki bakoitzean eta alternatiba bakoitzean jasan duen aldaketa ikus daiteke.

	Aldaketa positiboa duten eszenatokiak											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
<b>1. Alternatiba %30</b>	%4,39	%-3,45	%2,44	%-1,92	%2,97	%2,65	%-4,82	%-1,82	%1,25	%-1,57	%0,88	%-0,38
<b>1. Alternatiba %50</b>	%7,31	%-5,75	%4,07	%-3,20	%4,96	%4,42	%-8,04	%-3,03	%2,09	%-2,61	%1,47	%-0,63
<b>1. Alternatiba %80</b>	%11,70	%-9,20	%6,52	%-5,12	%7,93	%7,07	<b>%-12,86</b>	%-4,85	3,34%	%-4,18	%2,36	%-1,00
<b>2. Alternatiba %30</b>	%-2,05	%1,61	%-1,24	%0,98	%-1,65	%4,43	%-2,68	%1,66	%-1,92	%-0,60	%0,58	0,42%
<b>2. Alternatiba %50</b>	%-3,42	%2,69	%-2,07	%1,63	%-2,76	%7,38	%-4,47	%2,77	%-3,19	%-1,01	%0,97	%0,70
<b>2. Alternatiba %80</b>	%-5,48	%4,30	%-3,31	%2,60	%-4,41	<b>%11,81</b>	%-7,16	%4,44	%-5,11	%-1,61	%1,56	%1,12
<b>3. Alternatiba %30</b>	%-2,25	%1,77	%-2,34	%1,84	%0,00	%3,50	%-3,18	%1,72	%-1,73	%-0,58	%0,62	%0,15
<b>3. Alternatiba %50</b>	%-3,76	%2,95	%-3,91	%3,07	%0,00	%5,83	%-5,30	%2,86	%-2,88	%-0,97	%1,03	%0,24
<b>3. Alternatiba %80</b>	%-6,01	%4,72	%-6,25	%4,91	%0,00	<b>%9,33</b>	%-8,48	%4,58	%-4,62	%-1,56	%1,64	%0,39
<b>4. Alternatiba %30</b>	%4,19	%-3,29	4,67%	%-3,67	%-3,34	%5,96	%-2,71	%2,67	%-1,91	%-1,23	%1,00	%-0,41
<b>4. Alternatiba %50</b>	%6,98	%-5,49	7,78%	%-6,11	%-5,57	%9,93	%-4,52	%4,45	%-3,18	%-2,06	%1,67	%-0,69
<b>4. Alternatiba %80</b>	%11,17	%-8,78	12,44%	%-9,78	%-8,91	<b>%14,98</b>	%-7,22	%7,13	%-5,09	%-3,29	%2,67	%-1,10


6.22. Taula: Jasangarritasun indizearen balioen aldaketak irizpideen pisuetan aldaketa positiboak egin ondoren

## 6. Kapitulu


	Aldaketa negatiboa duten eszenatokiak											
	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
<b>1. Alternatiba %30</b>	%-4,39	%3,45	%-2,44	%1,92	%-2,97	%-2,65	%4,82	%1,82	%-1,25	%1,57	%-0,88	%0,38
<b>1. Alternatiba %50</b>	%-7,31	%5,75	%-4,07	%3,20	%-4,96	%-4,42	%8,04	%3,03	%-2,09	%2,61	%-1,47	%0,63
<b>1. Alternatiba %80</b>	%-11,70	%9,20	%-6,52	%5,12	%-7,93	%-7,07	<b>%12,86</b>	%4,85	%-3,34	%4,18	%-2,36	%1,00
<b>2. Alternatiba %30</b>	%2,05	%-1,61	%1,24	%-0,98	%1,65	%-4,43	%2,68	%-1,66	%1,92	%0,60	%-0,58	%-0,42
<b>2. Alternatiba %50</b>	%3,42	%-2,69	%2,07	%-1,63	%2,76	%-7,38	%4,47	%-2,77	%3,19	%1,01	%-0,97	%-0,70
<b>2. Alternatiba %80</b>	%5,48	%-4,30	3,31%	%-2,60	%4,41	<b>%-11,81</b>	%7,16	%-4,44	%5,11	%1,61	%-1,56	%-1,12
<b>3. Alternatiba %30</b>	%2,25	%-1,77	%2,34	%-1,84	%0,00	%-3,50	%3,18	%-1,72	%1,73	%0,58	%-0,62	%-0,15
<b>3. Alternatiba %50</b>	%3,76	%-2,95	%3,91	%-3,07	%0,00	%-5,83	%5,30	%-2,86	%2,88	%0,97	%-1,03	%-0,24
<b>3. Alternatiba %80</b>	%6,01	%-4,72	%6,25	%-4,91	%0,00	<b>%-9,33</b>	%8,48	%-4,58	%4,62	%1,56	%-1,64	%-0,39
<b>4. Alternatiba %30</b>	%-4,19	%3,29	%-4,67	%3,67	%3,34	%-5,96	%2,71	%-2,67	%1,91	%1,23	%-1,00	%0,41
<b>4. Alternatiba %50</b>	%-6,98	%5,49	%-7,78	%6,11	%5,57	%-9,93	%4,52	%-4,45	%3,18	%2,06	%-1,67	%0,69
<b>4. Alternatiba %80</b>	%-11,17	%8,78	%-12,44	%9,78	%8,91	<b>%-14,98</b>	%7,22	%-7,13	%5,09	%3,29	%-2,67	%1,10

6.23. Taula: Jasangarritasun indizearen balioen aldaketak irizpideen pisuetan aldaketa negatiboak egin ondoren


Hurrengo 6.6. Grafikoan, 6.7. Grafikoan, 6.8. Grafikoan eta 6.9. Grafikoan, irizpideen pisuetan aldaketak burutu ondoren alternatiba bakoitzean lortu diren jasangarritasun indizeen emaitzak adierazten dira.




6.6. Grafikoa: 1. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, irizpideen pisuak aldatu ondoren



6.7. Grafikoa: 2. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, irizpideen pisuak aldatu ondoren



6.8. Grafikoa: 3. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, irizpideen pisuak aldatu ondoren




6.9. Grafikoa: 4. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, irizpideen pisuak aldatu ondoren

Ebaluazioaren emaitzak oso antzekoak direnean, nahiz eta irizpideen pisuak era adierazgarrian aldatu, ebaluazio-modeloa zuzena dela ondoriozta daiteke (134, 135). Kasu honetan, jasangarritasun indizeak sufritu duen aldaketa maximoa %15a baino txikiagoa izan da (Ikusi 6.22. Taula eta 6.23. Taula). Aldaketa hori txikitat har daiteke, irizpideen pisuen muturreko aldaketaren ondorioz eman dela kontutan hartuz, hau da, irizpideen pisua % 80a aldatu denean. Hau dela eta, irizpide mailan egindako sentzibilitate analisi honen bitartez proposatutako metodologiaren baliostasun eta egonkortasuna frogatuta geratzen da.

Halaber, jarraian errekerimenduen pisuak aldatuko dira metodologiaren baliostasuna eta egonkortasuna egiaztatzeko maila altuago batean.

### 6.5.2. Errekerimendu mailan egindako sentsibilitate analisia

Kasu honetan, beste aurrekoan bezala, portzentaje berdinetan aldatuko dira pisuak ( $\pm 30$ ,  $\pm 50$  eta  $\pm 80$ ) baino kasu honetan errekerimenduen pisuak aldatuko dira. Lau errekerimendu desberdin daudenez erabakitze-zuhaitzean (Ikusi 6.19. Irudia), kasu honetan bakarrik 8 eszenatoki berri definituko dira. Eszenatoki bakoitzeko 3 kasu definituko dira alternatiba bakoitzeko. Kasu bakoitzak portzentaje kopuru bat adieraziko du, aurreko atalean egin den bezala. Halaber, kontuan hartu behar da errekerimenduak erlazionatuta daudela haien artean eta hauen pisuen batuak %100 eman behar duela. Hortaz, errekerimendu baten pisua aldatzean beste errekerimenduen pisua ere aldatu beharko da, aldatu diren pisuen batura %100 izan dadin.



6.19. Irudia: Erabakitze-zuhaitza errekerimenduekin. 1 eta 5 eszenatokiaren 1 kasuaren ( $\pm 30$ ) balioak nola lortzen diren adibidea

Aurreko kasuan bezala, sentsibilitate analisia egiteko planteatutako lehenengo lau alternatibak bakarrik erabiliko dira.

Hurrengo 6.24. Taulan errekerimenduen pisuak aldatzean alternatiba bakoitzeko sortzen diren 8 eszenatoki berriak ikus daitezke.

	Eszenatokiak							
	1	2	3	4	5	6	7	8
<b>1. Alternatiba %±30</b>	(E) %+30	(I) %+30	(F) %+30	(S) %+30	(E) %-30	(I) %-30	(F) %-30	(S) %-30
<b>1. Alternatiba %±50</b>	(E) %+50	(I) %+50	(F) %+50	(S) %+50	(E) %-50	(I) %-50	(F) %-50	(S) %-50
<b>1. Alternatiba %±80</b>	(E) %+80	(I) %+80	(F) %+80	(S) %+80	(E) %-80	(I) %-80	(F) %-80	(S) %-80
<b>2. Alternatiba %±30</b>	(E) %+30	(I) %+30	(F) %+30	(S) %+30	(E) %-30	(I) %-30	(F) %-30	(S) %-30
<b>2. Alternatiba %±50</b>	(E) %+50	(I) %+50	(F) %+50	(S) %+50	(E) %-50	(I) %-50	(F) %-50	(S) %-50
<b>2. Alternatiba %±80</b>	(E) %+80	(I) %+80	(F) %+80	(S) %+80	(E) %-80	(I) %-80	(F) %-80	(S) %-80
<b>3. Alternatiba %±30</b>	(E) %+30	(I) %+30	(F) %+30	(S) %+30	(E) %-30	(I) %-30	(F) %-30	(S) %-30
<b>3. Alternatiba %±50</b>	(E) %+50	(I) %+50	(F) %+50	(S) %+50	(E) %-50	(I) %-50	(F) %-50	(S) %-50
<b>3. Alternatiba %±80</b>	(E) %+80	(I) %+80	(F) %+80	(S) %+80	(E) %-80	(I) %-80	(F) %-80	(S) %-80
<b>4. Alternatiba %±30</b>	(E) %+30	(I) %+30	(F) %+30	(S) %+30	(E) %-30	(I) %-30	(F) %-30	(S) %-30
<b>4. Alternatiba %±50</b>	(E) %+50	(I) %+50	(F) %+50	(S) %+50	(E) %-50	(I) %-50	(F) %-50	(S) %-50
<b>4. Alternatiba %±80</b>	(E) %+80	(I) %+80	(F) %+80	(S) %+80	(E) %-80	(I) %-80	(F) %-80	(S) %-80

6.24. Taula: Errekerimenduen pisuak aldatzean sortzen diren 8 eszenatoki berriak


Definitutako 8 eszenatoki berrietan lortutako jasangarritasun indizeen aldaketak, alternatiba bakoitzak duen indizearen arabera, hurrengo 6.25. Taulan ikus daitezke.




	Eszenatokiak							
	1	2	3	4	5	6	7	8
<b>1. Alternatiba %±30</b>	%1,32	%-2,19	%3,50	%-1,19	%-1,32	%2,19	%-3,50	%1,19
<b>1. Alternatiba %±50</b>	%2,21	%-3,66	%5,84	%-1,98	%-2,21	%3,66	%-5,84	%1,98
<b>1. Alternatiba %±80</b>	%3,53	%-5,85	<b>%9,34</b>	%-3,17	%-3,53	%5,85	<b>%-9,34</b>	%3,17
<b>2. Alternatiba %±30</b>	%-1,22	%2,71	%-4,47	%1,17	%1,22	%-2,71	%4,47	%-1,17
<b>2. Alternatiba %±50</b>	%-2,03	%4,52	%-7,45	%1,96	%2,03	%-4,52	%7,45	%-1,96
<b>2. Alternatiba %±80</b>	%-3,25	%7,24	<b>%-11,92</b>	%3,13	%3,25	%-7,24	<b>%11,92</b>	%-3,13
<b>3. Alternatiba %±30</b>	%0,64	%0,82	%-2,45	%0,31	%-0,64	%-0,82	%2,45	%-0,31
<b>3. Alternatiba %±50</b>	%1,06	%1,36	%-4,09	%0,52	%-1,06	%-1,36	%4,09	%-0,52
<b>3. Alternatiba %±80</b>	%1,70	%2,18	<b>%-6,54</b>	%0,83	%-1,70	%-2,18	<b>%6,54</b>	%-0,83
<b>4. Alternatiba %±30</b>	%1,71	%0,47	%-4,22	%1,27	%-1,71	%-0,47	%4,22	%-1,27
<b>4. Alternatiba %±50</b>	%2,85	%0,78	%-7,03	%2,12	%-2,85	%-0,78	%7,03	%-2,12
<b>4. Alternatiba %±80</b>	%4,55	%1,25	<b>%-11,25</b>	%3,40	%-4,55	%-1,25	<b>%11,25</b>	%-3,40

6.25. Taula: Jasangarritasun indizearen balioen aldaketak errekerimenduen pisuetan aldaketak egin ondoren


Halaber, alternatiba bakoitzeko definitutako 8 eszenatokietan lortutako jasangarritasun indizearen balioaren emaitzak grafikoki adierazten dira ondorengo 6.10. Grafikoan, 6.11. Grafikoan, 6.12. Grafikoan eta 6.13. Grafikoan.




6.10. Grafikoa: 1. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, errekerimenduen pisuak aldatu ondoren



6.11. Grafikoa: 2. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, errekerimenduen pisuak aldatu ondoren



6.12. Grafikoa: 3. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, errekerimenduen pisuak aldatu ondoren



6.13. Grafikoa: 4. Alternatibaren jasangarritasun indizearen balio berriak, errekerimenduen pisuak aldatu ondoren

Kasu honetan, jasangarritasun indizeak sufritu duen aldaketa maximoa %11,9koa izan da (Ikusi 6.25. Taula). Aurreko kasuan bezala, aldaketa hori txikitat har daiteke, errekerimenduen pisuen muturreko aldaketaren ondorioz eman dela kontutan hartuz, hau da, irizpideen pisua %80a aldatu denean.

Hau dela eta, irizpide mailan eta errekerimendu mailan egindako sentsibilitate analisien bitartez proposatutako metodologiaren baliostasun eta egonkortasuna frogatuta geratzen da.

Halaber, adituen lan-taldeari egindako bi sentsibilitate analisisietan lortutako emaitzak erakutsi zaizkie, pisu erlatiboren bat aldatzeko aukera eskainiz. Baina behin kontsulta erronda bukatu ondoren, ondorioztatu da ez dela beharrezkoa irizpideen eta errekerimenduen pisuak aldatzea. Hau dela eta, hasieran zehaztutako irizpideen eta errekerimenduen pisuak hau da, jatorrizko pisuak mantentze erabaki da.

## **7. Kapituluua: ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO IKERKETA LERRROAK**

### 7.1. Ondorioak

Doktorego tesi honetan lortutako ondorio orokorrak hurrengo ataletan zehar garatu dira:

#### 7.1.1. Arrazoiari buruzko ondorioak

Europa mailan eta estatu mailan bizitegi-sektorea energia kontsumitzen duen eta CO<sub>2</sub> emisioak isurtzen dituen sektore garrantzitsu bat da. Gainera, energia inportazioekiko mendekotasun hazkorrak, energia baliabideen eskasiak, negutegi efektuko gasak murrizteko beharrak eta krisi ekonomikoa gainditzeko beharrak, energiaren kontsumoa murrizteko eta jatorri berriztagarria duten energien erabilera bultzatzeko bizitegi-sektorean neurriak hartzea behartu dute. Neurri hauek eraikinen efizientzia energetikoaren inguruko Europako Zuzentarauen bidez ezarri dira eta estatu mailan, Zuzentaraia hauen transposizioaren bidez. Hau dela eta, Europa, estatu eta Autonomia Erkidego mailan dauden arauak eboluzioa bat izan dute eta honela energetikoki eraginkorragoa den etxebizitza parke bat lortu da. Halaber, kontuan hartuta eraikuntza berriaren hazkunde baxua eta efizientzia energetikoaren inguruko exijentzia minimoak betetzen ez dituzten eraikin kopuru handia (Espainian etxebizitzaren %92ak ez ditu exijentzia horiek betetzen, kontuan izan gabe jada energetikoki birgaitu diren eraikinak), existitzen diren eraikinen birgaitze energetikoa behar beharrezkoa da, epe motzean edo ertainean.

Gainera, eraikin berrietan eta existitzen diren eraikinetan efizientzia energetikoa sustatzeko Europa, estatu eta Euskadi mailan eraikinen ziurtagiri energetikoaren inguruko legezko marko bat garatu da. Ziurtagiri hau derrigorrezkoa da eta honek eraikinaren lehenengo energiaren kontsumoa eta CO<sub>2</sub> emisioak kontuan hartuta, eraikin osoaren edo parte baten efizientzia energetikoa ebaluatzen du. Halaber, eraikin berrien eta existitzen diren eraikinen jasangarritasuna ebaluatzen duten ziurtagiriak existitzen dira baino, ziurtagiri hauek ez dira derrigorrezkoak. Ziurtagiri hauek eraikinaren jasangarritasuna ebaluatzen dute ingurumen ikuspuntutik, ekonomia ikuspuntutik eta baita ikuspuntu sozialetik ere. Internazional eta Europa mailan jasangarritasuna ebaluatzeko tresna desberdinak existitzen dira esaterako, LEED eta BREEAM sistemak. Espainian VERDE tresna existitzen da eta Euskal Autonomia Erkidegoan "Las Guías de edificación sostenible" deituriko ebaluazio sistema dago.

Existitzen diren eraikinak energetikoki birgaitzeko neurri desberdinak existitzen dira. Baina eraikinaren inguratzailea termikoki hobetzen bada eta konkretuki erakinen fatxada hobetzen bada, lortzen den energiaren kontsumoa eta CO<sub>2</sub> emisioen murrizketa handiagoa da. Ahaztu gabe, ikuspuntu sozialetik, birgaitze energetikoarekin enplegu zuzena eta zeharkako enplegua handitzen dela.

Bere bizitza-ziklo osoan fatxaden birgaitze sistema jasangarriena aukeratzeko multi-irizpide metodologia (MCDM, Multiple criteria decision making) bat ezartzea beharrezkoa da. Izan ere, hiru zutabe desberdinetan (ekonomia, ingurumena eta soziala) oinarritzen diren jasangarritasunaren betebeharrak kontsideratzen dira eta hauetako betebeharrak bakoitzak unitate desberdinetan adierazita dauden irizpide eta adierazle desberdinez osatuta dago. Gainera, erabakia hartzea, hau da, hautatzea fatxaden birgaitze sistemarik jasangarriena ez da lan erraza zeren, gaur egun merkatuan existitzen diren birgaitze konponbideak ugariak baitira. Doktorego Tesi honetan aztertu diren multi-irizpide metodoetatik, fatxaden birgaitze sistema jasangarriena ebaluatzeko beharri hobekien moldatzen den metodologia MIVES da. Metodologia hau hein handi batean, egokiena da zeren, zehaztutako alternatiba bakoitzak

ebaluatzen baititu bakoitzaren jasangarritasun gradua neurtuz balio indize baten bidez. Balio indize hau jasangarritasun irizpide desberdinen gehitze ponderatu baten bidez lortzen da.

Eraikinen birgaitze prozesurik egokiena, bai Isolatzailek egokiena bai fatxadaren birgaitze sistemarik edo birgaitze estrategiari egokiena aukeratzeko laguntzen duten aukeraketa metodologia desberdinak existitzen dira. Egindako azterketan ikusi da, metodologia hauek ezartzeko irizpide desberdinak eta jasangarritasunaren faktore desberdinak erabili direla. Gainera, metodologia hauen aplikazio eremua zabala dela konprobatu da. Baina ez da aurkitu jasangarritasun osoaren ikuspuntutik, hots, kontuan hartuta aspektu ekonomikoak, funtzionalak, sozialak eta ingurumen aspektuak, eraikinen konponbidea aukeratzeko metodologiari ez eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta EKT-a indarrean sartu baino lehen eraikitako bizitegi-eraikinetan aplikatu daitezkeen metodologiari ere.

Hau dela eta, Doktorego Tesi honek fatxadaren konponbiderik eta isolatzailek jasangarriena aukeratzeko MIVES metodoa erabiliz eta Euskadi dauden eta garai konkretu horretan eraikitako bizitegi-eraikinetan aplikatu daitezkeen metodologia bat ezartzen du.

EAE-an dagoen etxebizitza parkea zaharra da nahiz eta, hauek, kontuan hartu gabe hauen efizientzia energetikoa, egoera onean aurkitzen diren eta konfort indize ertaina duten.

Fatxaden tipologiak aintzat hartzen badira 3 taldetan banatu daitezke eraikinak: NBE-CT-79 indarrean sartu baino lehen eraikitako eraikinak eta inolako isolamendutik ez dutenak, 1979 eta 2006 urteen artean eraikitako eraikinak eta zenbait isolamendu dutenak eta 2006 urtetik aurrera eraikitako eraikinak eta prestazio termiko hobekoak dituztenak zeren, EKT-an ezartzen diren betebeharrak betetzen baitituzte.

Kontuan izanda aipatutako 3 talde horiek, EAE-an dauden etxebizitza eraikinen %7a bakarrik 2006 urtearen ondoren eraiki ziren. Hortaz, etxebizitza eraikien %90a (kontuan hartu gabe jada birgaituta dauden eraikinak) birgaitu beharko da, haien efizientzia energetikoa hobetzeko

Eraikinak birgaitzeko joera handituz joan da azken urteotan EAE-an, etxebizitza berrien eraikuntzarekin alderatuta. Gainera, azken urteotan egindako birgaitzetan birgaitutako eraikinen efizientzia energetiko hobetu da.

Euskadiko etxebizitzetan ez dago ia aire girotuko sistemarik. Halaber, berogailu sistemarik erabiliena banakako sistema da, sistema zentralekin alderatuta eta sistema hauetan erabiltzen den erregairik erabiliena gasa da, elektrizitatearen aurretik.

AEA-ak hiru zona klimatiko ditu baino, zona hauetan dagoen klima leuna da izan ere, tenperaturaren eta hezetetasunaren balioak 15°C eta %70 inguruan daude, hurrenez urren.

Halaber, fatxada energetikoki birgaitzeko eraikuntzako konponbide desberdinak daude, konponbide bakoitzarekin aurrezte energetiko desberdin bat lortzen delarik. Konponbidea jarraia bada esaterako, SATE sistema edo fatxada aireztatu bat bada, aurrezte energetikoa eta hortaz, etxebizitzaren barruan lortutako konfort termikoa handiagoa da, konponbide ez jarraietan baino, hots, fatxadaren barrutik eta aire-ganbararen barrutik egindako isolamendu termikoa baino. Izan ere, fatxadaren kanpotik egindako isolamenduko konponbide jarraiekin eraikinaren zubi-termikoak eliminatzen dira. Baina sistema mota hauek ezin dira edozein eraikinetan aplikatu izan ere, fatxada aldatzen denez ezin dira babestutako eraikinetan aplikatu. Eta gainera, jabeen adostasun behar da fatxada aldatzen delako. Hortaz aparte, ez dira sistemarik merkeenak baino inbertsioren itzulera denbora laburragoa da, berogailu eta hotz-sistemen eskaeran aurrezte handiago bat lortzen delako.

Hau dela eta, eraikina babestua ez badago eta etxebizitzako jabeen adostasuna lortzeko arazorik ez badago, SATE sistemak eta fatxada aireztatuko sistemak gomendagarrienak dira. Bi sistema huen artean, ekonomikoa eta egikaritzean konplexutasun gutxien duen sistema SATE sistema da. Baina fatxada aireztatuaren bidez hozte sistemetan lortzen den aurreztea handiagoa da zeren, isolatzailearen eta estalduraren artean dagoen aire-ganbera eraikinaren barnearen eta kanpokoaren artean motelgailu termiko bezala funtzionatzen baitu.

Fatxadaren kanpotik egindako isolamendu termikoko sistemak erabili ezin direnean, barnetik egindako isolamendu termikoko sistemak erabiltzea gomendatzen da. Sistema huen egikaritzea erraza da, edozein fatxadetan aplikatu daiteke eta ez dira sistema garestiak. Baina lortzen den konfort termikoa eta aurrezte energetikoa txikiagoa da, etxebizitzaren barruan espazioa galtzen da eta obra irauten duen denboran zehar etxebizitza utzi behar da.

Bestetik, aire-ganberaren barrutik egindako isolamendu termikoko sistemak beste sistemak baztertu direnean bakarrik gomendatzen dira erabiltzea. Kasu hauetan sistema huen erabilera baloratu daiteke izan ere, arreta berezia eskatzen dute bere egokitasunaren balioespenagatik eta egikaritzeagatik.

Merkatuan isolamendu termiko bezala erabili daitezkeen material desberdinak existitzen dira. Isolatzaile bakoitzak bakarra egiten duten berezko ezaugarriak dituzte. Baina material bakoitzaren aspektu ekologikoak ere kontuan hartu beharko dira, aintzat hartuz bere fabrikaziorako beharrezkoa den lehengaia, bere fabrikazio-prozesuan kontsumitutako errekurtoak eta bere birziklagarritasuna. Dituzten ezaugarri termikoengatik eta birgaitze prozesuan duten aplikazioagatik material isolatzaile erabilienak hauek dira: zuntz minerala, EPS, XPS eta PUR. Baina ekologia ikuspuntutik, gomendagarrienak diren material isolatzaile termikoak biodegradagarriak diren materialak dira esaterako, egurrezko zuntza eta kortxoak. Izan ere, biodegradagarriak ez diren materialek energia gehiagoa behar dute edo material ez berriztagarriak behar dituzte hain fabrikazio prozesuan.

Nobedosoak diren eraikuntzako konponbideak erabiliz, ohikoak diren eraikuntzako sistemen desabantaila batzuk hobe daitezke. Honela, isolatzaileen prestazio termiko hobeekin aurrezte energetiko handiagoa lortzen da, metalezko lamena eta eskalatzaileen bidez egikaritze denborak murrizten dira eta landare-fatxaden bidez kanpoko airearen kalitatea hobetzen da nahiz eta, beste arazo batzuk dituen azken konponbide honek.

### **7.1.2. Metodologiari buruzko ondorioak**

Proposatzen den metodologiak birgaitze konponbidea ebaluatzen du, bere bizitza-ziklo osoan zehar. Horretarako, konponbideen aspektu ekonomiko desberdinak, ingurumen aspektuak, aspektu funtzionalak eta sozialak kontuan hartzen dira, izaera kuantitatiboa duten hainbat adierazleen bidez.

Birgaitze konponbiderik jasagarriena ebaluatzeko orduan, konponbideen aspektu desberdinak aintzat hartu dira esaterako, isolatzaile mota eta estalduran erabilitako material mota bakoitzaren ezaugarriak eta fatxadarako proposatutako birgaitze sisteman material isolatzaileak duen posizioa.



Ezartzen den metodologiak sistema hierarkiko bat erabiltzen du, erabaki-hartze prozesuan laguntzeko. Hierarkizazioa konponbide jasangarriena aukeratzeko erabilitako ebaluazio elementu guztietan egiten da. Elementu horiek ondorengo dira: errekerimenduak, irizpideak eta adierazleak. Adierazleak kuantifikatzeko balio-funtzio bat definitu da adierazle bakoitzeko. Erabakitze-zuhaitzaren maila desberdinen, hau da, errekerimenduen, irizpideen eta adierazleen pisuen esleipena adituen lan talde baten bidez egin da. Azkenengo emaitza 0 eta 1 arteko (asetze balio minimoa eta maximoa, hurrenez urruen) balio numeriko bat da, erabilitako parametro guztiak kontuan hartzen direlarik.

### **7.1.3. Metodologiaren aplikazioari buruzko ondorioak**

Bai errekerimendu mailan, bai irizpide mailan egindako sentzibilitate analisiak ondorioztatu du, planteatu den metodologia baliogarria eta egonkorra dela. Errekerimenduen pisuetan egindako aldaketek demostratu dute jasangarritasun indizean lortutako aldaketak minimoak direla (< %12). Gauza bera gertatu da irizpideen pisuetan egindako aldaketekin (< %15). Halaber, egindako sentzibilitate analisisian lortutako emaitzak adituen lan taldeari erakutsi zaizkie, errekerimenduen edo irizpideen pisu erlatiboren bat aldatzeko aukera eskainiz. Behin kontsulta erronda bukatu ondoren, ondorioztatu da ez dela beharrezkoa irizpideen eta errekerimenduen pisu erlatiboa aldatzea. Hortaz, adituen lan taldeek proposatutako hasierako errekerimenduen eta irizpideen pisuak ez dira berrikusi behar beraz, erabakitze-zuhaitzaren hasierako pisuak mantendu dira.

Bestetik, irizpideen zenbaki oso mugatu bat erabili denez, metodologiaren aplikazioa erraza da. Azken hau garrantzitsua da zeren, informazioa kuantifikatzeko ez baita denbora asko inbertitu behar ez eta baliabide askorik ere. Ezaugarri honek erabilgarria den tresna bat izan dadin baimentzen du.

### **7.1.4. Aplikazio praktikoaren emaitzei buruzko ondorioak**

Metodologiaren aplikazio praktikoaren bidez ikusi da, C1 zona klimatikoan kokatutako bizitegi-erakin batentzat birgaitze konponbiderik jasangarriena SATE sistema dela eta ondoren fatxada aireztatutako sistema dela, oso alde txikiarekin. Era berean, jasangarritasun txikiena duen sistema aire-ganberaren barnetik egindako isolamendu termikoko sistema izan da. SATE sistema jasangarriena da, ekonomikoki errentagarrien den alternatiba delako. Sistema hau ez da konponbiderik garestiena eta behin instalatuta aurrezte energetiko handiena lortzen duen konponbideetariko bat da.

Kontuan hartuta adierazleen erantzuna isolatzaileen lodiera handitzean ikusi da, eraikuntzako konponbidearen arabera erantzuna desberdina izan dela. Barnetik egindako isolamendu termikoko sistemetan lodieraren handitzeak alternatiba jasangarriagoak eratu ditu gehien bat, aurrezte energetikoa eta CO<sub>2</sub>-aren aurrezte handiagoa bat lortu delako eta barruko konfort termikoa eta akustikoa hobetu delako. Baina fatxada aireztatuetan eta SATE sistementan erantzuna desberdina izan da. Sistema hauetan isolatzailearen lodiera handitzeak

jasangarritasun gutxiago duten alternatibak sortu ditu, lodiera minimoko alternatibekin alderatuta. Isolatzailearen lodiera handitzeak sortutako hobekuntzak balio gabetuta geratu dira neurri desberdinetan, handitze ekonomikoa, sortutako hondakinen handitzea eta isolatzailearen kantitate kopurua gehitzeagatik ingurumen inpaktuaren handitzearen ondorioz.

Bestalde, proposatutako material isolatzaile mota desberdinak haien artean konparatuz, EPS-a erabiltzen duen eraikuntzako konponbidea kortxoa erabiltzen duen baino pixka bat jasangarriagoa dela konprobatu da. Hau neurri handi batean, kortxoa nahiz eta material ekologikoa izan EPS-a baino garestiago delako gertatu da eta gainera, azken material honen dentsitatea askoz baxuagoa delako ere gertatu da. Halaber, konparatu diren hiru isolatzaileen artean zuntz minerala jasangarritasun balio gutxien duen isolatzailea izan da, EPS eta kortxoarekin alderatuta. Izan ere, EPS-a baino garestiagoa da eta ez da kortxoa bezain ekologikoa, bere fabrikazioan energia gehiago behar duelako eta CO<sub>2</sub> emisio gehiago isurtzen dituelako.

SATE sistemetan kanpoko estalduran erabilitako materialak ere erantzun desberdinak sortzen ditu adierazleetan. Ikusi den bezala, estaldurarako morteroa erabiltzen duen alternatiba jasangarriena da, zeramikazko plakazko estaldura erabiltzen duen alternatibarekin alderatuta. Nahiz eta, ikuspuntu sozialetik zeramikazko plakazko estaldura erabiltzean balio hobekoagoak lortu, ez da errentagarria ekonomikoki ez eta ingurumena kontuan hartuta zeren, garestiago baita eta hondakin gehiago sortzen baititu.

### **7.2. Etorkizunerako ikerketa lerroak**

Existitzen diren etorkizunerako ikerketa lerro posibleen artean bizitegi-erakinen birgaitze sistemen multzoaren eremua zabaltzea planteatzen da. Eraikinen birgaitzean erabilitako material multzoaren ikerketa eremuan datu-base zabalago bat edukitzea komenigarria izango litzateke. Planteatu den metodologian, sinplifikatzeko asmoz, birgaitzeko eraikuntzako konponbideetan ohikoenak diren material isolatzaileak eta estaldurarako materialak kontuan hartu dira. Baina komenigarria izango litzateke ikerketa zabaltzea eraikinen birgaitzean erabilitako beste material guztientzat.

Konponbide eta material nobedosoak pixkanaka eraikinen birgaitze-merkatuan sartzen ari dira hau dela eta, beste ikerketa lerro bezala material hauen ikerketara zabaltzea proposatu daiteke. Zabalkuntza honek ikerketa neketsu eta handi bat behar du izan ere, kasu ia gehienetan konponbide eta material hauek garatze fasean daude eta hortaz, ez daude multzo bat bezala entseatuta. Gaur egun konponbide mota hauek inbertsio handi bat egitea suposatzen du, denbora pasa ahala estandarizatu daitezke, gainera haien portaera errealaren inguruko informazio gehiago eduki daiteke.

Halaber, planteatu den metodologia eraikinak birgaitzeko fatxadako konponbiderik egokiena aukeratzean zentratzen da zeren, inguratzailearen zati honetatik bero gehien galtzen baita. Baina eraikin baten inguratzaileak elementu gehiagok osatzen da esterako, estalkia, lurzoruarekin kontaktuan dauden elementuak, hutsuneak eta barneko banaketak. Hau dela eta, etorkizunerako ikerketa lerro bezala inguratzailean beste elementuei metodologiaren eremua zabaltzea proposatzen da. Gainera, familia bakarreko eraikinetan fatxada eta estalkiaren proportzioa nabarmenki murrizten da. Honela, eraikinaren inguratzaile osorentzat baliagarria den aukeraketa metodologia bat sortu daiteke. Era berean, eraikinen efizientzia

energetikoa neurri aktiboekin hobetu daiteke esaterako, birgaituko den eraikinaren instalazio termikoak hobetuz. Hortaz, etorkizunerako ikerketa lerro bezala berogailuaren, hozte-sistemen eta ACS-aren (etxeko ur beroa) kontsumoa murrizteko metodologiaren eremua instalazio termikoetara zabaltzea proposatzen da.

Etorkizunerako beste ikerketa lerro bat metodologiaren aplikazio eremua zabaltzea izan daiteke. Doktorego Tesi honetan planteatutako metodologia bizitegi-eraikinen birgaitzean zentratzen da baina, eraikin berrientzat ere erabilgarria izan daiteke metodologiaren aplikazio eremua zabaltzea. Eraikin berrien diseinu fasean gomendagarria eta beharrezkoa da material eta isolamendu termikoko sistema egokiak aukeratzea. Hortaz, metodologia honen aplikazio eremua eraikin mota hauetara zabaltzen bada, honek diseinu fasean sistema multzorik egokiena aukeratzeko lagunduko luke.

Halaber, beste etorkizunerako ikerketa lerro bezala planteatu daiteke errekerimenduen ikerketan sakontzea, errekerimendu berriak gehituz metodologian. Errekerimenduak gehitzen badira metodologia konplexuagoa bihurtu daiteke baina hasierako hau eginez gero, edozein eraikinen fatxada birgaitzerako erabilgarria den tresna global eta bakar bat lortu daiteke, hau da, erabili ahalko zen ez bakarrik bizitegi-eraikinetan baizik eta, bulego-eraikinetan eta eraikin publikoetan ere. Horretarako, errekerimendu bakoitzeko irizpideak eta adierazleak zehaztu beharko dira.

Bestetik, birgaitzen lanen finantzaketa sistema posibleen analisisa gehitzea planteatzen da beste etorkizunerako ikerketa lerro bat bezala. Honela, multzoaren analisi ekonomiko bat egin daiteke kontuan hartuta birgaitze obrarentzako finantzaketa iturri posibleak esaterako, Autonomia Erkidego eta estatu mailan existitzen diren diru-laguntzak. Banketxeei edo eraikitzaileei egindako maileguen eskaera ere kontuan har daiteke. Honela, obraren ordainketaren urte-kopuruaren egokitasuna aztertu daiteke. Horretarako, planteatutako metodologiaren errekerimendu ekonomikoan planteatutako adierazleak aldatu beharko dira edo berriak sartu beharko dira.

Azkenik, existitzen diren eraikinen irisgarritasuna (igogailurik gabeko eraikinak eta arkitektura-oztopoak), gizartearen egoera (zahartutako populazioa kopuru handia) eta diru-laguntza batzuk lortzeko irisgarritasuna hobetzeko beharra kontuan hartuta, beste etorkizunerako ikerketa lerro bat bezala Mives metodologia berri baten ezarpena planteatzen da. Metodologia honen bidez, gehien bat ikuspuntu sozialetik eta ekonomikotik existitzen diren eraikinen irisgarritasuna hobetzeko sistemen aukeraketa egin ahalko zen.



## **8. Kapituluua: BIBLIOGRAFIA**

## Bibliografía

1. Green building impact report 2008. *Renew Resour J.* 2009;25(4):14-20.
2. Hernández Sánchez JM. Consumo energético y emisiones asociadas del sector residencial. 15th International Congress on Project Engineering; Asociación Española de Ingeniería de Proyectos; 2012.
3. Schwartz Y, Raslan R. Variations in results of building energy simulation tools, and their impact on BREEAM and LEED ratings: A case study. *Energy Build.* 2013 7;62:350-9.
4. Observatorio vasco de la vivienda. *Informe de Evaluación de la Política de Rehabilitación 2014.* Junio 2015.
5. Instituto Nacional de Estadísticas. *Censos de Población y Viviendas 2011.* 2011.
6. Eustat. Viviendas familiares de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales. 2015.
7. Potencia de ahorro energético y reducción de emisiones de CO2 del parque residencial existente en España en 2020. Informe WWF 2010.
8. EVE. Ente Vasco de la Energía. Claves energéticas del sector doméstico en Euskadi. 2013.
9. Tupenaite L, Zavadskas EK, Kaklauskas A, Turskis Z, Seniut M. Multiple criteria assessment of alternatives for built and human environment renovation. *J Civ Eng Manage.* 2010;16(2):257-66.
10. Anastaselos D, Oxizidis S, Papadopoulos AM. Energy, environmental and economic optimization of thermal insulation solutions by means of an integrated decision support system. *Energy Build.* 2011 0;43(2-3):686-94.
11. Civic, A., & Vucijak, B. Multi-criteria optimization of insulation options for warmth of buildings to increase energy efficiency. *Procedia Engineering.* 2014;69:911-20.
